

Munduko Gizarte Foroa



JOSU EGIREUN / PAUL NICHOLSON
 ARUNDHATI ROY
 FRANÇOIS HOUTART
 KJELD JAKOBSEN
 SOPHIE ZAFARI
 LEILA DAKHLI
 MIRIAM NOBRE
 NAHLA CHAHAL
 ERIC TOUSSAINT

Gaiak

Eduardo Sanz y Escartín eta «anarkismo intelektual»
 IÑAKI IRIARTE LOPEZ

Egunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI
 • IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

JAKiN

136

maiatza
ekaina
2003



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Zenbaki honetan

► 7

Gai nagusia

Munduko Gizarte Foroa

Eraberrituak mende berriari begira ► 11
JOSU EGIREUN / PAUL NICHOLSON

Inperioari aurre eginez ► 19
ARUNDHATI ROY

Porto Alegre III. Irakaspenak ► 25
FRANÇOIS HOUTART

Munduko Gizarte Foroa ekinbide politiko berri gisa ► 33
KJELD JAKOBSEN

Munduko Gizarte Foroa eta gizarte mugimenduak ► 39
SOPHIE ZAFARI

Porto Alegre 2003. «Jai militantearen» distira eta miseriak ► 47
LEILA DAKHLI

Emakumeen Mundu Martxa, Munduko Gizarte Foroa eraikiz ► 55
MIRIAM NOBRE

Palestina eta gizarte mugimendua:
elkartasuna sendotu eta... gainditu! ► 65
NAHLA CHAHAL

India 2004. Munduko Gizarte Foroaren globalizazioa ► 69
ERIC TOUSSAINT

Gaiak

Eduardo Sanz y Escartín eta «anarkismo intelektuala».
Nietzscheren harreraren inguruan ► 77
IÑAKI IRIARTE LOPEZ

Egunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI ► 97
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia


Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

jakin@jakingunea.com

2003ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	39 €	—
Ale arrunta	6,50 €	8,40 €
KANPOAN		
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,60 €

Summary



World Social Forum

- *Brought up-to-date and looking towards the new century*

Josu Egireun, a member of the popular initiative *Hemen eta Munduan*, and Paul Nicholson, a member of *Via Campesina*, provide us with the historical background behind the setting-up of the World Social Forum, as well as its basic guidelines of activity (both ideological and methodological ones). ▶ JOSU EGIREUN / PAUL NICHOLSON

- *Confronting Empire*

The Indian writer Arundhati Roy helps to clarify the concept of Empire and analyses the impact of the neo-liberal and globalizing politics in third world countries, focusing essentially on the example of India. ▶ ARUNDHATI ROY

- *Lessons from Porto Alegre III*

The Belgian intellectual François Houtart gives an appraisal of the Third WSF held in Porto Alegre in January 2003, which brought together more organizations and participants than ever before. Houtart reveals the keys to this success and the main challenges faced by the Forum in the future. ▶ FRANÇOIS HOUTART

- *The WSF as a new form of political action*

Kjeld Jakobsen, a member of the Brazilian trade union CUT, considers that, given the complexity of current society, the struggle against neo-liberal politics which has been encountered in the WSF incorporates a greater variety of social agents. The ultimate challenge for the Forum consists of coordinating this pluralism in a beneficial way. ▶ KJELD JAKOBSEN

- *The WSF and the social movements*

The French professor Sophie Zafari, a member of ATTAC, reflects on the function which social movements should fulfil in the World Social Forum, and on the way in which the Forum should be set up to satisfactorily respond to the needs and claims of said social movements. ▶ SOPHIE ZAFARI

• *Porto Alegre 2003. Splendour and misery of the «activists' march»*

Leila Dakhli, a French activist in favour of civil disobedience, contrasts the unprecedented successful participation of the WSF with some difficulties and shortcomings when coordinating and programming the work and intervention of all the participants. ▶ LEILA DAKHLI

• *The World March of Women in building the WSF*

The Brazilian agronomist and feminist Miriam Nobre focuses on the contribution of the feminist movement through the World March of Women to the WSF, as well as on the difficulties in coordinating feminist claims with those of other social sectors who are embedded in the struggle against neo-liberal global politics. ▶ MIRIAM NOBRE

• *Palestine and the social movement: consolidating solidarity and... going beyond it!*

The Lebanese sociologist Nahla Chahal stresses the imbalance existing in the WSF with the marginal stance of the debate about the Palestinian question and the Iraq war. Chahal considers that a suitable reaction to the Palestinian problem proves to be a key point for the WSF.. ▶ NAHLA CHAHAL

• *India 2004. Globalizing the WSF*

The Belgian writer Eric Toussaint, a member of the International Council of the WSF, analyses the present and future of the WSF in view of its geographical move to India in 2004 which, undoubtedly, will have methodological, participatory and even political cultural implications. ▶ ERIC TOUSSAINT




Eduardo Sanz y Escartín and «intellectual anarchism»

The professor Iñaki Iriarte Lopez brings us closer to the figure of Eduardo Sanz y Escartín (1855-1939), an intellectual and conservative politician from Navarra who carried out a study on the thought of Nietzsche, identifying it, as was commonplace at that time, with anarchism, hedonism and immorality. ▶ IÑAKI IRIARTE LOPEZ



News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joseba Balerdi, Iñaki Martínez de Luna, Amatiño and Laura Mintegi. ▶ *Various Authors*



e skuetan duzun hau bigarren aldiko 136. zenbakia da eta 2003. urteko hirugarrena.

Zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean Euskal Herri-
tik mundura egin dugu jauzi, Munduko Gizarte Foroa az-
tertzeko. Izan ere, XX. mende hondarrean, «gerra hotza-
ren» garaian planteatutako bi eredu arteko gatazka ideo-
logikoa amaitzean, neoliberalismo kapitalistaren ereduak
mundu osoan barreiatzeari ekin zion. Ezkerreko diskurt-
soa krisi sakonean murgilduta, pixkanaka mundu osoko
gizarte mugimenduak foro berri batean biltzen eta koordi-
natzen hasi dira eredu hegemoniko izan nahi duen horri
aurre egiteko eta alternatiba berriak planteatzeko: 2003an
hirugarren aldiz bildu da Porto Alegren Munduko Gizarte
Foroa, mugimenduen mugimendua. Sail honetako beder-
ratzi artikuluetan, Foro honen inguruko auzi nagusiak jo-
rratzen dira: foroaren historia, izaera, antolaketa, funtzio-
namendua, kokapen ideologikoa, parte-hartzaileen aniz-
tasuna, helburuak, etorkizunerako erronkak.

Lehen-lehenik, sail hau antolatzeko Josu Egireunek
eta Paul Nicholsonek eskaini diguten lankidetzeta aipatu
behar dugu, beraiek diseinatu baitute artikulua bilduma,
eta baita egileekin harremanetan jarri eta lanak jaso ere.
Eskerrak, beraz, bioi egindako lanagatik.

Lehen artikuluan, sarrera gisa, Josu Egireunek eta
Paul Nicholsonek, Porto Alegreko foroetan parte-hartzaile
izandakoek, MGFren aurrekari historikoak eta funtsezko
lan-ildoak aurkezten dizkigute.

Ondorengo zortzi artikuluen egileak kanpokoak ditugu, Europa, Asia zein Latinoamerikakoak. Artikulu hauek guztiak Xabier Eizagirrek euskaratu ditu.

Arundhati Roy «Inperio» kontzeptua definitzen saiatzen da, politika neoliberalak hirugarren munduan duen eragin bortitza ere azalduz.

François Houtart-ek hirugarren MGFren balorazioa egiten du (Porto Alegre, 2003), arrakastaren gakoak eta etorkizuneko erronka nagusiak ere adieraziz.

Kjeld Jakobsen-ek MGFko parte-hartzaileen aniztasunaz dihardu, egungo gizartearen konplexutasunari erantzuten baitio. Aniztasun hori ongi taxutzea da Foroaren erronka nagusietakoa.

Miriam Nobrek mugimendu feministaren aldarrikapenak (Emakumeen Mundu Martxa) politika neoliberalaren aurka ari diren beste gizarte mugimenduenekin koordinatu eta bat etortzeko zailtasunak ditu gogoetagai.

Nahla Chahal-ek MGFn Irakeko eta batik bat Palestinako auziek duten agerpen eskasa salatzen du, palestinar arazoaren aurrean MGFtik egoki erantzuteari funtsezko irizten baitio.

Leila Dakhlik Porto Alegreko Foroan parte-hartzaile guztien lana eta ekarpena koordinatzeko izan diren zailtasun eta hutsuneak azpimarratzen ditu.

Sophie Zafarik gizarte mugimenduen asmoen eta Foroaren izaeraren arteko tentsioaz egiten du gogoeta.

Azken artikuluan, Eric Toussaint-ek 2004an Indian bilduko den Foroari begira, mugimenduen mugimenduen oraina eta geroaz dihardu.

Gaiak saileko Iñaki Iriarte Lopezen artikuluan, Eduardo Sanz y Escartín (1855-1939) nafar intelektual eta politikariak Nietscheren pentsamenduari egindako harrera lantzen da. Garai hartan ohikoa zen legez, anarkismo, hedonismo eta amoralismoarekin lotu zuen Nietzsche Sanz y Escartínek.

Egunen gorpolean saileko idazlanak datoz azken orrialdeetan. Azken hilabeteotako berrien iruzkin labur eta bi-ziak egin dituzte Joseba Balerdik Kultura alorrean, Laura Mintegik Literaturan, Iñaki Martinez de Lunak Soziolin- guistikan eta Amatiñok Telepolis atalean.¶

Munduko Gizarte Foroa



- Eraberrituak mende berriari begira
 JOSU EGIREUN / PAUL NICHOLSON ▶ 11
- Inperioari aurre eginez
 ARUNDHATI ROY ▶ 19
- Porto Alegre III. Irakaspenak
 FRANÇOIS HOUTART ▶ 25
- Munduko Gizarte Foroa ekinbide politiko berri gisa
 KJELD JAKOBSEN ▶ 33
- Munduko Gizarte Foroa eta gizarte mugimenduak
 SOPHIE ZAFARI ▶ 39
- Porto Alegre 2003. «Jai militantearen»
 distira eta miseriak
 LEILA DAKHLI ▶ 47
- Emakumeen Mundu Martxa,
 Munduko Gizarte Foroa eraikiz
 MIRIAM NOBRE ▶ 55
- Palestina eta gizarte mugimendua:
 elkertasuna sendotu eta... gainditu!
 NAHLA CHAHAL ▶ 65
- India 2004. Munduko Gizarte Foroaren globalizazioa
 ERIC TOUSSAINT ▶ 69

Eraberrituak mende berriari begira

JOSU EGIREUN / PAUL NICHOLSON

Paris, 2000. urtearen ekaina, Europako Batasunak abenduan Nizan burutu behar duen goi bilerari begira ehunka mugimendutako burkideak bildu dira ATTACek antolatutako bileran. Bileraren azken gaia mundu mailan Porto Alegren antolatu nahi den Munduko Gizarte Foroaren berri ematea da. Bernard Cassen-ek egiten ditu azalpenak: duela hilabete batzuk bi paulista (Brasilgo Sao Paulokoak) hurbildu zirela *Le Monde Diplomatique*-koengana proposamen bat luzatuz: urteko munduko enpresaburuek Davosen egiten duten Munduko Ekonomi Foroaren aurrean Foro Alternatiboa antolatu behar zela eta euren iritiz horren ardura *Le Monde Diplomatique*-k hartu behar zuela.

Ordurako 1994ko abenduan zapatisten matxinadak neoliberalismoaren aurkako borrokaldi berri bati eman zion hasiera Chiapas aldean, eta bi urte geroago *Neoliberalismoaren aurkako Galaxiarteko Topaketak* berebiziko garrantzia izan zuen borroka ren aldi berri horretan. Baina Foroa asmatu zutenen artean erreferentzia nagusiak beste bi izan ziren: bata, ordura arte Nazio Batuen urteko giza garapenari buruzko biltzarren aurrean gobernuak kanpoko erakundeen artean mamitzera heldu zen aldarrikapen al-

- ▮ **Josu Egireun** Hemen eta Munduan herri ekimeneko kidea da.
Paul Nicholson *Via Campesina*-ko kidea da. Biek Porto Alegreko Munduko Gizarte Foroan hartu dute parte.

ternatiboa; bestetik, Seattleko matxinadak piztutako borrokaldira zuzen eta erradikalak irekitako bideak.

Cassenen eta *Le Monde Diplomatique*-koen erantzuna zera izan zen: Gizarte Foroa egitearen ideia ona zela, baina ez zela Europan egin behar, hegoaldeko herri batean baizik, horrela ekonomikoaren eta sozialaren arteko antinomiarik iparraren eta hegoaren artekoa gehituz. Eta gainera eurek bazutela hegoalderako proposamena: Porto Alegre hiria, PTren agintepean hamabi urtez kapitalismo neoliberalaren aurkako politikak bideratzen zeramatzana, ordurako nahiko ezaguna zen «aurrekontu parte-hartzailea» ekimenaren bidez.

Paulistek Brasilerara itzuli eta handik gutxira Foroa antolatzeke aukeraren berri zabaldu zuten munduko bazter guztietara: Brasilgo zortzi erakunderen artean (sindikatuak, Gobernu Kanpoko Erakundeak...) osatutako batzorde eragilea eratu eta prozesua abian jarri zuten.

Ordutik hona hiru urtez Foroa Porto Alegren egin da (nahiz eta hori hasierako asmoa ez izan), eta urtetik urtera parte-hartzaileen kopurua handituz joan da: hasierako 13.000tik azkeneko 100.000ra; salbuespenak salbuespen, horren esangura da urtetik urtera neoliberalismoaren aurkako (eta azken urtean gerraren aurkako) jarrera gero eta zabalagoa, indartsuagoa, dela mundu osoan.

Baina zertarako balio du horrelako ekitaldi batek? Eta, batez ere, zertarako balio digu Euskal Herritik hartaraino hurbiltzen garenontzat? Ziuraski ez dago erantzun bakar bat, eta hemen jarriko dugunak huts asko eta, agian, akats bat baino gehiago izango ditu, baina batzuk zein besteak ez bai zabalaren bidez gaindituko ditugulakoan, hona hemen gure iritziak.

Dena den, galdera horiei erantzuten hasi aurretik zera aipatu behar: zapatisten matxinadak hautsak harrotu zituenetik, neoliberalismoaren aurkako mugimenduak era berriak zekartzen hegaletan, Seattlen erabat ziurtatu zirenak: antolaketa irekia, horizontala eta parte-hartzailea, mugimenduen arteko aniztasun ideologikoa, politikoa, kulturala, eta kontsentsuak inoren koloreak ezabatu gabe eraikitzeke helburua; borroka zein erakunde ezberdintza

sunak (GKEenak zein edonolako mugimendu eradikale-
nak) aintzat hartzea inor baztertu gabe; egiturarik gabeko
antolaketa bultzatzea... inolako zuzendaritzarik gabea.
Pragan oihukatu zen bezala: *mugimendu honek ez du lider-
gorik eta horren beharrik ere ez du*. Eta honek metodologia
berria ekarri zuen mugimenduak edo borroka berriak an-
tolatzerakoan: malgutasuna, egiturarik gabeko koordina-
zioa, mobilizazioari lehentasuna ematea edonolako adie-
razpen politiko sakonei baino.

Borrokan arnastu, borrokari hauspoa eman

Porto Alegreko Foroa mugimendu horren eta mugimendu horrek indartu dituen ezaugarri horien ondorioa da: gune irekia, neoliberalismoaren aurka azaltzen den edozeinentzako tokia, inork berea egin ezin duena. Eta horren adierazlerik nabarmenena litzateke, lehendabiziko urtean (121 herrialdeetako 13.000 pertsona) Ignacio Ramonetek Foroaren emaitzatzat jo zuena: *Washingtongo kontsentsuaren aurrean, Porto Alegreko kontsentsua jaio da*; nahiz eta Porto Alegreko Forotik ez zen atera inolako adierazpen programatikorik, bertako aniztasuna gordetzeak horretarako aukerarik ez zuelako ematen.

Porto Alegreko Foroa hausnarketarako, eztabaidarako, borrokatzen zen neoliberalismoari alternatibak asmatzeko... antolatu zen. Batek baino gehiagok uste zuen Munduko Gizarte Foroa sistemaren eta mugimendu berriaren tarteko bide bat zela, neoliberalismoari aurre egiteko kaleko altxamenduak baino alternatiba mamitsuagoak behar zirelakoan. Baina Porto Alegrek, ordura arte egindako borrokaren seme izanik —eta bertako parte-hartzaile kopuru nagusia borroka horretan aritutakoa—, ezin zion borrokari bizkarra eman, eta horren ondorio zuzena izan zen borrokatik arnasten zuen Gizarte Foroaren mugimenduentzako hauspoa bilakatu zela.

Esan daiteke, bada, hasiera-hasieratik inork Porto Alegreko Foroa neoliberalismoaren alternatibaren Foroa ez ezik mobilizazioen alternatiba gisa ikusi nahi bazuen, as-

mo horrek porrot egin zuela. Porto Alegren eztabaidatu ziren, bai, alternatibak; baina batez ere mugimenduen go-goek, asmoek eta helburuek hartu zuten lehentasuna. Halabarrez gainera, zeren eta neoliberalismoaren alternatibak borroka ren bidez, borroketan altxatzen diren errendikazioetan gauzatzen baitira... ez dira zerutik etortzen, edo ezerezetik asmatzen.

Horrek guztiak Foroaren emaitza aberastu zuen. Zergatik? Alde batetik, neoliberalismoaren aurkako Foro batean parte-hartze sutsuenak neoliberalismo horren aurka borrokatzen zutenek osatu zituztelako, sare telematikotik buruz buruko harremanetara pasatuz. Eta hori guztia mugimendu horrek eraiki duen kultura politiko berri batean oinarrituz: horizontalitatean (ez dago zuzendaritzarik, koordinazio irekiak baizik), aliantzak lantzeko metodologian (prozesu irekiak, kontsentsuan oinarrituz, aniztasuna eta ezberdintasunak gordez —«aniztasunean datza gure indarra» litzateke ondoriorik sakonena—)... beti borrokarako konpromisoan.

Zertan izan zen aberatsa? Gutxienez lau esparrutan:

a) *Neoliberalismoaren ezagupenean.* Porto Alegreko to-paketak bizi-bizian, ez liburuetan ez sarearen bidez, erakutsi zigun: munduko bazter guztietan politika neoliberalaren ondorioak berdin samarrak direla; diferentzia ez dagoela iparraldekoa edo hegoaldekoa izatean, sistemaren erasoak non-nahi antzekoak direla (nekazaritza arloan zein etxebizitza politikan; lan baldintzetan zein zerbitzuen pribatizazioan...), eta, beraz, ezbaian dagoena ez dela iparralde eta hegoaldearen arteko eredu, baizik eta eredu neoliberal eta justizia sozialean eta pertsona zein herrien autodeterminazioan oinarritutako eredu. Ezagupen honek bi ondorio izan zituen: bata, elkarlanerako eremu zabala irekitzen zuela guztion artean; bagenuela hamaika arrazoi, hamaika gauza amankomunean neoliberalismoari aurre egiteko. Seguruenik Ramoneten «kontsentsu» famatu horren iturriak hemendik edaten zuen. Eta, bigarrena, horrela izanik indarrak bildu behar genituela aurrera egiteko. Horretarako eredu mobilizazioetan landutako kultura politiko berri horrek izan behar zuen.

b) *Iritzi zein jarduera ezberdinen arteko elkarrizketa, trukaketa.* Bildutako guztiak neoliberalismoaren aurkako jarrera genuen, baina ez ginen guztiok jarrera berberekoak, eta Foroak gure arteko ezbaietarako eta esperientzien trukaketarako aukera ematen zigun. Oso kolore ezberdineko jendearen artekoak. Inork ezkerreko esparrua kolorez margotzen duenean larrosatik beltzera egiten badu, ez dugu esango han muturretik muturrerainoko tartea beteta zegoenik, baina bai esparrua oso zabala eta anitza zela. Zentzu horretan, gainera, zera azpimarratu behar da: Porto Alegreko Foroa neoliberalismoaren aurka borrokatzen zutenen eta borroka horiei bizkarra ematen zioten gizarte eragileen arteko elkarrizketarako gunea ere izan zela, zubiak ireki zituela.

Gauzatze hau norabide bikoia zen: alde batetik, borroketan parte hartzen ez zuten gizarte eragile horiek (gehienbat sindikatuetakoa konfederazio nagusiek, baina baita beste batzuek ere) halabeharrez onartzen zuten kale borroken legitimitatea, eta, borrokatzen zutenen aldetik, sistemari aurre egiteko guztion beharra ere ikusten zen. Harreman honek ez du izan bide jakin bat eta kontraesan ez josita dago, baina egoera aldatuz doa.

c) *Gizarte mugimenduen agenda osatzeko tresna.* Orokorrean, Foroaren egitura konferentziek, mintegiek, tailerrek, panelek (edo mahai inguruek) eta testingantzek osatzen dute. Horietan biltzen den parte-hartzaile bakoitzak bere helburu propioa du: batzuek euren ikerkuntzak ezagutzera eman, beste batzuek ordezkatzeko duten erakunde edo mugimenduen borroka, izaerak eta proposamenak aurkeztu... Eta tartean denetarik: zapalkuntza gordinen salaketa; kultur gintza berrien aldarrikapena... Horren harira, eta Foroak eskaintzen zuen abagunea profitatuz, nazioarteko borroka sare batzuek (Via Campesina, Focus on the Global South, ATTAC...) bilerak izan zituzten kezka baten inguruan: Foroa eztabaida hutsean gera ez zedin, zer egin neoliberalismoaren aurkako borroka indartuta ateratzeko bertatik. Eta, proposamenak proposamen, Foroaren azken bi egunetan gizarte mugimenduen arteko biltzar ireki baterako deialdia zabaldu zen, non hurrengo hamabi hilabetera-

ko borroka ardatz batzuk adosteko proposamena eraman zuten. Eta hori izan zen Foroari osotasuna eta gizarte mugimenduen aurrean zentzua eman ziona.

Esan beharrik ez dago biltzar horretara ez zirela hurbildu Forora joandako hainbat eta hainbat gizarte erakunde, batik bat sindikatu nagusiak, Gizarte Erakunde potolo batzuk eta ezta borroka honetan beren tokia duten sare batzuk ere. Baina azkenean bost kontinenteetako 150 erakunderen artean adostutako adierazpena eta agenda gauzatu ziren, eta horrek hauspoa eman zion mugimenduari mundu osoan. Ikusi besterik ez dago Via Campesinak urtero apirilaren 17an nazionarte mailan deitzen duen borroka egunak hartu duen bultzada, eta Foroaren ostean ALCaren eta G8ren bileren inguruan (Quebecen eta Genoan, hurrenez hurren) burutu ziren mobilizazio garrantzitsuak.

Aldi berean, dinamika horrek bere eragina izan zuen Foroaren baitan. Hots: Foroa ez zen ez bai edo hausnarke-ta gunea soilik, baizik eta mugimenduen arteko sareak antolatze-ko eta borrokak aurrera eramateko tresna ere bai. Era horretan, Foroa ezin da ulertu ekitaldi bat bezala baizik eta prozesu gisa, prozesu horren norabidea bertan biltzen direnen arteko harremanek eta indar erlazioek markatzen dutelarik. Eta hori urterik urte neurtu behar den gauza da. Ezin da inolaz ere pentsatu Foroa berez okerre-ko bidetik salbu dagoela. Dena dela, Porto Alegrekoaren gerizpean antolatu diren gainerako Foroek izaera berbera izan dute: irekiak, anitzak, ezbairako gunek, sareak zein borrokak antolatze-ko tresna baliagarriak izan direla ezin uka. Besterik aipatu gabe, hor dugu Florentzian burutu zen Europakoa, nondik atera baitzen Gerraren aurkako Otsailaren 15eko deialdia.

d) Aniztasunaren eremua. Baina ziur gaude hau guztia ez litzatekeela posible izango Foroaren izaera aniztasun-ean eta ezberdintasunaren onarpenean oinarrituko ez balitz. Era horretan, esan behar da Foroaren aurretik aniztasun horren erakustoki apartak izan zirela ere zapatistek antolatutako Neoliberalismoaren aurkako Galaxiarteko Topaketa, Seattlen Munduko Merkataritza Erakundearen aur-

kako borroka, Pragakoa... Guztietan kontsentsuaren kultura berri bat garatuz joan zen: berdintasunean oinarrituta, elkarren arteko ezberdintasunak errespetatuz eta inolako hierarkiarik gabe. Gainera, sarritan, ezberdintasunak hain dira handiak, ezen ez baitute adierazpen sendorik adosteko betarik ematen. Hori gertatu zen, esaterako, 2001ean G8ren aurkako mobilizazioak antolatzeke Genoako Gizarte Foroan.

Horrek guztiak izan ditu, gainera, esperientzia zabalagoak. Esaterako, Europako Gizarte Foroan: ez zen soilik topagunea antolatzeraz heldu, baizik eta ahalik eta esparru zabalena irekitzeko ahaleginak egin ziren, espazio horretara ahalik eta gizarte eragile gehien erakartzeko. Eta neurri handi batean Florentziako Foroaren arrakasta horri lotu behar zaio.

Porto Alegretik Euskal Herrira

Foroak, edo Foroek, izan dute beste hainbat gauza aipagarri eta gogoangarri. *Jakin*-eko monografiko honetan bertan horretaz beste batzuk arituko direnez, azal dezagun nola ikusi dugun Euskal Herritik Munduko Gizarte Foro hau.

Lehenik eta behin, hara hurbiltzerakoan bertan ikusitakoak eta ikasitakoak erreferentzia bilakatzen dira Euskal Herrirako —nahiz eta egun batetik bestera ez gauzatu bertan—, mugimendu honek duen sakontasuna berandu baino lehen mundu osora zabaltzen ari delako eta berak isurtzen duen kultura politiko berri horrek berebiziko garrantzia duelako edonongo gizarte mugimenduentzat.

Dena den, urteen erakutsi digu sekulako aldea dagoela han ikusitakoaz eta hemen gauzatutakoaz. Eta horretan zerikusi handia du herri bakoitzeko mugimenduen historiak eta nortasunak. Egoerak ezin dira batetik bestera bere osotasunean eraman. Foroak eman digun gauzarik baliagarriena hasieran aipatu dugun metodologia eta kultura politiko berri horren ezaugarriak dira. Horretan erreferentzia bat dugu. Baina erreferentzia besterik ez. Porto

Alegreko Foroa esperientzia bat besterik ez da, eta Europakoak bapo erakutsi zigun hobetzerik ere badagoela.

Ziurrenik, Euskal Herrikoari zein besteei begira, balantzea egiterakoan lau izango ditugu datu erreferentzialak: antolaketa prozesua, neoliberalismoaren aurkako irizpide eta borroken gune izatea, duen erakargarritasuna (gizarte mugimenduetan zein gizartean), eta borrokei ematen dien hauspoa.

XX. mendeko azken hogeitabost urteetan, gizarte mugimenduen porroten ondorioz, bazirudien neoliberalismoaren amaierarik gabeko bidea ireki zela. Baina XXI.era heltzerakoan ikusi dugu mende berriaren aurrean baditugula neoliberalismoari aurre egiteko borroka era berriak, eta dinamika horri eutsi behar diogu tinko.¶

Inperioari aurre eginez



ARUNDHATI ROY



Inperioari nola egin aurre?» galderaren inguruan hitz egiteko eskatu didate. Galdera gaitza da, eta nik ez daukat erantzun errazik.

«Inperioari» aurre egiteaz hitz egiten dugunean, «Inperioak» zer esan nahi duen identifikatzeko premia dugu. AEBetako gobernua (eta europar sateliteak) esan nahi ote du, ala Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtsa, Munduko Merkataritza Erakundea, korporazio multinazionalak? Ala hori guztia baino gehiago?

Herrialde askotan, Inperioak beste buru subsidiario batzuk sortu ditu, azpiproduktu arriskutsu batzuk —nazionalismoa, fanatismo erlijioso, faxismoa eta, jakina, terrorismoa—. Horiek guztiak enpresa-globalizazioaren egitasmoarekin besoz besoz doaz.

Azal dezadan zer esan nahi dudan. India, munduko demokraziarik handiena, gaur egun globalizazio egitasmoaren aitzinean dago. Mila milioi laguneko bere «merkatua» irekitzen ari da MMEren presiopean. Gobernuak eta indiar eliteak begi onez ikusten dute Korporatizazioa eta Pribatizazioa.

Ez da kasualitate hutsa Lehen Ministroa, Barne Ministroa eta Desinbertsio Ministroa —Indian Enronekin kontratua sinatu zutenak; herrialdeko azpiegiturak korporazio

► **Arundhati Roy** indiar idazlea da (*The God of Small Things* [Gauza txikien jainkoa], 1997).

multinazionalei saltzen ari direnak; ura, elektrizitatea, petrolio, ikatza, altzairua, osasungintza, hezkuntza eta telekomunikazioak pribatizatu nahi dituztenak— RSSko kide edo jarraitzaile izatea. RSS eskuineko indiar talde ultranazionalista da, eta publikoki agertzen du Hitler eta bere metodoekiko miresmena.

Demokraziaren eraispena Egiturazko Doitze Programa baten azkartasun eta eraginkortasunez daramate aurrera. Enpresa-globalizazioaren egitasmoak Indiako biztanleen bizimodua hausten duen bitartean, neurri handiko pribatizazioek eta lan merkatuko «erreformek» bere lur eta lanpostuetatik kanporatzen dute jendea. Pobretutako ehunka nekazarik bere buruaz beste egiten dute pestizidak hartuz. Herrialde osotik heltzen dira gosez hildakoei buruzko berriak.

Elitea bere ametsezko helmugarantz —munduaren gailurrerantz— abiatzen den bitartean, txiroak delinkuentzian eta kaosean murgiltzen ari dira guztiz azkar. Eta, historiak erakusten digunez, frustraziozko eta nazioetsipenezko giro hauxe da faxismoaren haztegia.

Indiar gobernuaren bi besoek ezin hobeto burutu dute pintzaren ekintza. Beso bat India zatika saltzen ari den bitartean, bestea, arreta desbideratzeko, nazionalismo hinduaren eta faxismo erlijiosoaren aldeko garrasien koru bat orkestratzen ari da. Proba nuklearrak zuzentzen ari da, histori liburuak berridazten, elizak erretzen eta meskitak botatzen. Zentsura, zaintze iraunkorra, askatasun zibilen eta giza eskubideen etendura, indiar heritarra nor den eta nor ez den definitzea —bereziki gutxiengo erlijiosoei dagokienez—, ohiko jarduerak bilakatu dira egun.

2002ko martxoan, Gujarat estatuan, bi mila musulman hil zituzten estatuak babestutako pogrom batean. Emakume musulmanak jazarri zituzten bereziki. Biluztu eta bortxatu zituzten haiek, bizirik erre aurretik. Su-emaleek dendak, etxebizitzak, ehun-lantegiak eta meskitak arpilatu zituzten eta su eman zieten. 150.000 musulmanek baino gehiagok beren etxeak utzi behar izan dituzte. Komunitate musulmanaren oinarri ekonomikoa guztiz suntsitu dute.

Gujarat sutan zegoen bnitaratean, Indiako Lehen Ministroa MTVn ari zen bere olerki berrien promozioa egiten. Aurtengo urtarrilean, sarraskia agindu zuen gobernuak berriro ere boterean eroso jarraitzeko moduko boto gehiengoan lortu zuen. Inor ez dute zigortu genozidioagatik. Narendra Modi, arraza-jazarpenaren arkitektoa, RSSko kide harroa, Gujarateko Ministro Nagusi da bigarren aldiz. Saddam Hussein izan balitz, bere ankerkeria guztiak CNNn agertuko lirateke, ezbairik gabe. Baina, hala ez denez —eta indiar «merkatua» munduko inbertsiogile guztiei irekita dagoenez—, sarraskiak desegokikeria gogaikarriaren maila baino ez du lortu.

Indian ehun milioi musulman baino gehiago dago. Erloju-bonba bat jarri da abian gure lurralde zaharrea.

Honekin guztiarekin hauxe nahi dut adierazi: merkatu libreak hesi nazionalak behera botatzen dituela mito bat baino ez da. Merkatu libreak ez du nazio subiranotasuna mehatxatzen, demokrazia ahultzen du.

Aberats eta pobreen arteko aldea hazten den heinean, baliabideak metatzeko borroka indartzen da. Beren «asmo oneko akordioak» irentsarazteko, landatzen ditugun produktuak, edaten dugun ura, arnasten dugun airea eta amesten ditugun ametsak merkaturatzeko, enpresa-globalizazioak gobernu morroi, ustel eta autoritarioen nazioarteko konfederazio bat behar du herrialde pobreetan, herritarrei erreforma deserosoenak irentsarazteko eta matxinadak zapaltzeko.

Enpresa-globalizazioak —dei diezaiozun bere izenez: Inperialismoa— libre diruditen hedabideak behar ditu. Justizia banatzeko itxura egiten duten epaitegiak behar ditu.

Bitartean, Iparraldeko herrialdeek beren mugak gogortzen dituzte eta suntsipen handiko armak metatzen dituzte. Azken buruan, dirua, produktuak, patenteak eta zerbitzuak bakarrik globalizatzen direla ziurtatu behar dute. Ez jendearen mugimendu librea. Ez giza eskubideen errespetua. Ez arraza-bazterketari edo armamentu kimiko eta nuklearrari edo negutegi-efektuko gasen isurpenari edo aldaketa klimatikoari buruzko nazioarteko trataturik, edo ezta ere, jakina, justiziari buruzkorik.

Horrela, bada, horixe —guztia— da «inperioa». Konfederazio leial hori, botere metaketa lizun hori, erabakiak hartzen dituztenen eta horiek jasan behar dituztenen arteko distantzia gero eta sakonagoa.

Gure borrokak, gure xedeak, Bestelako Mundu baten gure ikuskerak distantzia hori ezabatu behar du.

Nola egin aurre, beraz, «Inperioari»?

Gauzarik onena da ez garela hain gaizki jokutzen ari. Garaipen garrantzitsuak izan ditugu. Latinoamerikan izan dira batzuk —Bolivian, Cochabambakoa; Perun, Arequipako matxinada; Venezuelan, Hugo Chavez Presidenteak tinko eusten die AEBetako gobernuaren ahaleginei—.

Eta munduko begi guztiak Argentinara zuzentzen dira, NDFk eragindako errautsetatik herrialde bat berriro altxatzen saiatzen ari baita.

Indian, enpresa-globalizazioaren aurkako mugimendua faxismo erlijiosoari aurre egiteko ahalmena izan dezakeen benetako indar politiko bakarra bihurtzeko zorian dago.

Enpresa-globalizazioaren enbaxadore liluragarriei dagokienez —Enron, Bechtel, WorldCom, Arthur Anderson—: non zeuden iaz, eta non daude orain?

Eta, jakina, hemen Brasilen galdetu behar dugu... nor zen iaz presidente, eta nor da orain?

Dena dela, gutariko askok ditugu itxaropenik gabeko eta etsipenezko une ilunak. Badakigu, Terrorismoaren Aurkako Gerraren estalkiaren pean, trajedunek lanean jarraitzen dutela gogor.

Bonbak gure buruen gainera erortzen diren eta gurutzaldi-misilek zerua zeharkatzen duten bitartean, badakigu kontratuak sinatzen direla, patenteak erregistratzen direla, oliobideak eraikitzen direla, natur baliabideak xahutzen direla, ura pribatizatzen dela, eta George Bush Iraken aurkako gerra prestatzen ari dela. Gatazka hori «Inperioaren» eta haren aurka gauden guztion arteko aurrez aurreko norgehiagoka gisa hartzen badugu, galtzen ari garela lirudike.

Baina badago hori ikusteko beste modu bat. «Inperioari» aurre egiten diogun guztiok, bakoitzak bere bide-

tik, bere lekuan jarri dugu hura. Agian ez dugu oraindik haren aurrerakada geratu, baina agerian utzi dugu. Mozor-roa kendu diogu. Argitara irtenarazi dugu. Egun, gure aurrean datza, munduaren eszenatokian, guztiz biluzik.

Inperioa gerrara joan daiteke, baina oraingoan agerian dago —bere isla jasateko itsusiegi—. Bere herria biltzeko itsusiegi. Luze itxaron gabe AEBetako herritar gehienak gure alde izango dira. Duela egun gutxi, Washingtonen, milioi laurden lagun manifestatu ziren Irakeko gerraren aurka. Hilero protesta indartzen ari da.

2001eko irailaren 11 aurretik, AEBek historia sekretu bat zuten. Batez ere bere herriarentzako sekretua. Orain, haatik, AEBen sekretuak historia dira, eta historia hori ezagutza publikoa da. Ageriko sekretua da.

Egun, badakigu Iraken aurkako gerran aurrera egiteko erabilitako argudio guztiak gezur hutsak direla. Guztietan barregamiena, Irakera demokrazia eramateko AEBetako gobernuaren konpromiso sakona. Diktaduratik edo ustelkeria ideologikotik askatzeko jendea hiltzea, jakina, AEBetako gobernuaren aspaldiko kirola da. Latinoamerikan inon baino hobeki dakite hori.

Inork ez du zalantzan jartzen Saddam Hussein diktadore anker bat, hiltzaile bat denik (haren gehiegikeria latzenak AEBetako eta Erresuma Batuko gobernuen babespean burutu ziren). Zalantzarik gabe, irakiarrak askoz hobeto leudeke hura gabe.

Baina, orduan, mundu osoa ere askoz hobeto legoke Bush jauna delakorik gabe. Izan ere, hura Saddam Hussein baino arriskutsuagoa da. Beraz, bonbardatu beharko al genuke Bush Etxe Zuritik kanpora?

Oso argi dago Bushek Iraken aurkako gerrara joatea erabaki duela, gertakariak gorabehera —eta nazioarteko iritzi publikoa gorabehera—. Aliatuak biltzeko kanpainan, AEBak gertakariak asmatzeko prest daude. Armamentu ikuskatzaileen txantxa hauxe da: AEBetako gobernuak nazioarteko etiketazko itxura batzuk gordetzea onartu du, modu erasokor eta iraingarri batez. «Txakurraren atea» azken orduko aliatuentzat irekita utzi balu edo Nazio Batuetatik hortik sartzera makurrarazi balu bezala.

Baina, ikuspuntua edozein dela, Iraken aurkako Gerra Berria hasi da.

Zer egin dezakegu?

Gure oroitzapenak berpiztu ditzakegu, gure historia-tik ikasi. Iritzi publikoa eraikitzen jarrai dezakegu, hura eztarri burrunbatsu bilakatu arte. Iraken aurkako gerra AEBetako gobemuaeren gehiegikerien arrain-ontzi bihur dezakegu. Bertan George Bush eta Tony Blair —eta beren aliatuak— haur-hiltzaile koldar gisa, ur pozointzaile gisa eta urrunetiko bonbardatzaile uzkur gisa aurkez ditzakegu. Desobedientzia zibila hamaika modutara berrasma dezakegu. Bestela esanda, ipurdiko grano kolektibo bilakatzeko hamaika modu izatera irits gaitzke.

George Bushek honakoa dioenean, «gurekin zaude, edo terroristekin zaude», guk hauxe esan dezakegu, «Ez, mila esker». Jakinaraz diezaiokegu munduko herriek ez dutela Mickey Mouse Gaizkilearen eta Mulah Zoroen artean hautatzeko premiarik.

Gure estrategiak ez du soilik inperioari aurre egitea izan behar, hura setiatzea baizik.

Oxigenoa kentzea. Lotsaraztea. Barregarri uztea. Gure artearekin, gure musikarekin, gure literaturarekin, gure ir-motasunarekin, gure alaitasunarekin, gure argitasunarekin, gure erabakitasun zorrotzarekin —eta geure istorioak kontatzeko gure abileziarekin—. Istorio horiek burua jateko sinestarazten dizkigutenetatik bestelakoak baitira.

Enpresa-iraultzak porrot egingo du eskaintzen digutena erosteari uko egiten badiogu —beren ideiak, historia-ren beren bertsioa, beren gerrak, beren armak, ezinbestekoaren beren nozioa—.

Izan gogoan hau: gu asko gara eta beraiek gutxi dira. Beraiek gure premia handiagoa dute guk beraiena baino. ♪

Porto Alegre III. Irakaspenak



FRANÇOIS HOUTART



*m*unduko Gizarte Foroaren hirugarren topaketek etapa garrantzitsua osatu dute ekitaldi horren historia labur eta bizian. Azken bi bileren artean igarotako aldiak, lurralde mailako foroak eta foro tematikoak indar handiz hedatu ziren. Florentzian, Europako Gizarte Foroan, ia 40.000 lagun bildu ziren hamaika tailer eta mintegitan, eta testuinguru horretan burututako gerraren aurkako ibilaldian milioi erdi lagunetik gora hartu zuten parte. Indian, Hyderabad-en, Asiako Gizarte Foroak 30.000 lagun inguru bildu zituen; eta, gainera, Addis Abeban (Etiopia) Afrikako bigarren Gizarte Foroa antolatu zen, parte-hartze nabarmenarekin hau ere.

Belem-en (Brasil), 2003ko urtean Panamazoniar Foroa antolatu zen. Bertan bildu ziren, Amazonasko auzia aztertzeko, lurralde horri lotutako herrialdeetako pertsonak —Bolivia, Peru, Ekuador, Kolonbia, Venezuela, Guyana eta, jakina, Brasilgoak—, eta herri indigenetako ordezkari ugari ere parte hartu zuten. Herrialde anitzetan ere ari dira prestatzen Nazio, Lurralde edo Udalerri mailako Foroak, eta Florentzian uraren arazoari buruzko Foro bat ere aurreikusten da.

Kontuan hartzen badugu mota honetako lehen bilera 1999an Zurich eta Davosen antolatu zela —kontinente

► **François Houtart** belgikar intelektuala da, MGFko Nazioarteko Kontseiluko kidea eta *Centre Tricontinental*-eko zuzendaria.

bakoitzeko gizarte mugimendu bakarraren parte-hartzearekin eta «Beste Davos bat» izenburuarekin—, aurrerakada ikusgarria izan dela baieztatu genezake. 2003an, Porto Alegren, ia 100.000 lagun bildu dira, 1.700 bilera, mintegi eta hitzaldi inguru antolatu dira, eta bertan lan egin duten 4.000 kazetariak nazioarteko hedabideetan Davoskoa gainditu duen oihartzuna eman diote Porto Alegri.

Munduko Gizarte Foroa Davosekiko guztiz desberdina bilakatu da, eta beheko gizarte zibilak goiko gizarte zibilaren aurrean egiten duen adierazpena agertzen du. Politika neoliberalen gizarte hondamendiak hain dira nabarmenak, ezen sistemari atxikitako hainbat pertsona ere (J. Stiglitz, kasu) aurrera eramaten diren politiken izaera ideologikoa eta ondorio negatiboak salatzen eta erantzuten hasi baitira. Gero eta gizarte talde gehiagok jasaten dituzte politika horiek, eta gero eta mugimendu eta erakunde gehiago biltzen dira Munduko Foroan beren desadostasunak adierazteko, zergatiak aztertzeko eta ordezkoko soluzioak proposatzeko. «Mugimenduen mugimendu» horren funtsezko orientabidea oso argia da: neoliberalismoaren eta kapitalen mundu mailako hegemoniaren aurka borrokatzen direnak bildu nahi dira, fenomeno horien aurrean soluzio berriak bilatzeko asmoz.

Zergatik gertatu da leherketa hori hain urte gutxitan? Jakina, hainbat arrazoi daude. Lehena, neoliberalismoa, 70eko hamarkadatik aurrera, metaketa kapitalistaren fase gisa oztoporik gabe garatu dela; bereziki Berlingo Harresia erori ondoren, kapitalismoaren eta merkatu ekonomiaren edo komertzio librearen leloari bidea ireki baitzitzaion. Merkatu kapitalistaren barnean, ekonomia indartsu eta ekonomia ahulen arteko erlazio gero eta desorekatuagoan islatzen da fase hura; eta herrialde bakoitzaren barnean, erlazio desorekatu hori eragile ekonomiko boteretsuen eta indar murrizak dituzten gainerakoen artean gauzatzen da.

Egungo globalizazio prozesuak kapitalaren esplotazioa herritarren baitako gero eta talde zabalagoetara hedatu du, kapitala/lana erlazioekin zuzenean lotuta zeudenei eragiteaz gain, kapitalaren dominazioaren beste mekanismo batzuekin —monetarioak, finantza mailakoak, fiska-

lak...— erlazionatutako gizarte taldeei ere ukituz. Bestalde, pribatizazioen ondorioz, bizitza kolektiboko eta zerbitzu publikoetako gero eta sektore gehiago merkantzia bilakatzeko dira, eta, hori dela eta, talderik txiroenek horietara heltzeko aukera guztiak galtzen dituzte. Kapitalaren nagusigoa aurretiko gizarte hitzarmenetako eragileen —lana eta Estatua— aurkako eraso bikoitz batez lagunduta aritu da. Halakoxeak izan dira emaitzak, kaltetuak gero eta gehiago baitira: emakumeak, herri indigenak, nekazari txikiak, hiritako txiroak...

Gizarte Foroekin gertatzen ari dena bi gertakari motaren ondorioa da. Batetik, gizarte mugimenduak eta erakunde progresistak bat etorri dira 1999ko hasierako «Beste Davos bat» hartatik aurrera, eta bat-etortze hori biziki hedatu da brasildar ekimenari esker. Bestetik, nazioarteko erabakien aurkako hainbat protestaldi egin dira: 1999ko amaieran Seattlen MMEren aurkako protestak, Washingtonen Munduko Bankuaren eta NDFren aurkakoak, Göteborgen Europako Goi Bileraren aurkakoak, Genoan G8ren aurkakoak... Gero eta suntsitzaileagoa den sistema baten aurkako protesten bat-egiteak eta etsai komun baten aurkako eta alternatiben bilaketarako konbergentziak elikatu dute, hain zuzen, mugimendu hori. Kapitalismoaren espiriturik triunfalista 80ko hamarkadaren amaieran agortu zen, eta ondorengo erresistentzia-olatuak sistemaren krisiarekin egin zuen bat —ez soilik finantza krisia, baita ekoizpen sistemarena eta bere funtzionamendu-arau etikoena ere—.

Munduko Gizarte Foroaren 2003ko bileran talde eta erakunde berriak aurkeztu dira, bereziki, Eliza Kristauetako hainbat erakunde: Nazioarteko Caritas, Elizen Kontseilu Ekumenikoa... Langile sindikatuak ere indar handiagoz agertu dira, bereziki nazioarteko konfederazio nagusiak, guztien artean mintegi bat antolatu baitzuten Foroaren baitan. Jakina, zenbaiten ustez hedapen horrek protestaren indar erradikala ahultzea eta mugimendua zentzuzko erreformismo bilakatzea ekar dezake. Objektzioak badu funtsik, tamaina handitzean gero eta jende gehiago ados jartzeko kontraesanaren arriskua sortzen baita. Haatik, Foro mugimendu eta erakundeen bat-etortzea denez eta ez

kupulazko egitura bat, ez da ezinbestekoa kontsigna, agiri eta ondorioei buruzko akordioak lortzea. Oinarrizko agiriarekin ados egotearekin nahikoa da. Bere baitan hainbat korrante egon daitezke batera, eta analisi eta ekintza-proposamenetan erradikalenak diren taldeek badute agertze-ko aukera; adibidez, Gizarte Mugimenduen Taldeak beti egiten du ekintza-proposamenak dituen agiri bat.

Munduko Gizarte Foroaren existentzia bera gertakari politiko bat da. Inork ezin du ez ikusiarena egin. Alderdi politiko askok bidaltzen dituzte kideak eta buruzagiak ekitaldi horretara, nahiz eta ezin duten prozesuan ofizialki parte hartu. 2002an, Foroaren eta alderdi politikoen arteko erlazioen auzia asko eztabaidatu zen. Urtean zehar hainbat aldiz jorratu zen arazo hau Nazioarteko Kontseiluan. Hauxe zen auzia: nola ziurtatu Foroan gizarte mugimenduen eta erakunde progresisten bat-etortzea alderdien zamarenean erori gabe, eta nola ziurtatu, aldi berean, bertan adierazitako kritiken eta proposamenen eraginkortasun politikoa? Nazioarteko Kontseiluan landu zen auzi hori, Bartzelonan, 2002an Bangkok, eta 2003an Porto Alegren.

Bi ekintza esparruen premia ikusi zen, baina onartuz bakoitzak berezko funtzioak dituela eta ezin direla nahasi. Batetik, mugimenduek eta GKEek ezin dute utzi alderdi politikoen helburuek instrumentaliza ditzaten, eta, bestetik, alderdiek ezin dute utzi GKEek eta zenbait gizarte mugimenduk gizartea despolitizatzen lagundu dezaten. Elkarrenganako aintzatespena da soluzio posible bakarra.

Ikuspuntu praktikoa batetik, elkarrenganako autonomia ahalbidetuko duten zubiak ezarri behar dira, baina, aldi berean, beraien arteko lankidetzak ziurtatu behar da. Era horretan, politikariek banako gisa parte har dezakete Foroetan, Foroek alderdiak gonbida ditzakete mahai-inguruetan gairen bati buruz hitz egitera, eta politikariek testigantza pertsonalak eskaini ditzakete. Alderdi gehienak dituzte oso hurbilekoak zaizkien GKEak, eta erakunde horiek zuzenean esku har dezakete Foroaren eta honen baitako jardueren antolakuntzan.

Izan ere, oraindik asko aurreratu behar bada ere, badi-rudi prozesua bide onetik doala. Horrela, Indian 2004rako

aurreikusitako bilerak eztabaida berriak jorratzeko aukera ematen du. Foroen eraginkortasun politikoarena da arazorik larriena, eta galdera horixe da kanpotik gehien entzuten dena. Pentsa liteke munduko sistema ekonomiko eta politikoaren baitako adimentsuenak bilera hauen biderkaketarekin oso zoriontsu direla, hainbat eta hainbat herri-erakunde pro gresisten denbora, indarra eta bitartekoak xahutzen baitituzte. Zoriontsu izan daitezke ikusten dutenean bilera horiek baketsuak direla, jendeak abestu eta dantzatzen duela, desfilatzen duela... aldi berean mundu kapitalistako buruzagiak beren politika ekonomikoetan eta prestaketa militarretan buru-belarri sartuta dauden bitartean.

Horrela planteatzen da Munduko Gizarte Foroaren eraginaren arazoa. Ezbairik gabe, MGFk kultur aldaketa nabaria ekarri du pentsamendu bakar neoliberalak menperatzen duen mundura. «Bestelako mundu bat posible da» ideiak berak bere bidea egin du mundu mailako kulturari, eta hori lorpen handia da. Nazioarteko Foroaren hirugarren bilera kontzientzia kolektiboaren indartzeak ezaugarritu zuen. Gero eta jende, mugimendu eta erakunde gehiagok uste du arerioa (kapitalismoa, fase neoliberal eta militarizatuan) berbera dela eta, ondorioz, batera egin behar dutela lan.

Haatik, kontzientzia hartzea aldaketarako lehen urratsa den arren, ez da nahikoa. Bat-etortzeen bidezko Foroaren osaketak berak ez du ahalbidetzen helburu komunak eta ekintza orokorrak proposatzeko gai izango den organo erabakitzaile baten sorrera. Hasiera batean, horrek k o n t r a e s a n g a i n d i e z i n a d i r u d i . E t a a r r a z o i o s o z g a l d e t z e n d u j e n d e a k k a n p o t i k : z e r g e r t a t z e n d a F o r o e t a k o b i l e r e n o n d o r e n ? H u r r e n g o h i l a b e t e e t a n j o r r a t u b e h a r r e k o a r a z o a b i o s a g a i k o n t r a e s a n k o r h o r i e i e r a n t z u t e n s a i a t z e a d a . N a z i o a r t e k o K o n t s e i l u a k b e s t e m e k a n i s m o b a t z u k e r e t o p a d i t z a k e .

Etorkizunean, antolakuntza mailako bi arazo nagusi eztabaidatu behar dira. Lehena, Nazioarteko Kontseilua-ren osaketari eta eskumenei buruzkoa. Horrela, hasiera batean Kontseiluak sareez osatuta egon behar duen arren,

errealitatea konplexuagoa da. Izan ere, antolakuntzan zeregin garrantzitsua izan duten erakunde lokal batzuk historikoki present egon dira. Kontseilua latinoamerikarrek eta europarrek osatzen dute nagusiki. Haatik, 2004ko Indiako Foroak asiarren presentzia handiagoa ahalbidetzea espero da. Inoiz ezingo da ordezkartza osoa ezarri, ez baitago horretarako oinarririk. Eta hauxe da eutsi beharreko beste printzipioa: Foroak existitzen denaren adierazpena izan behar du. Hala ere, horrek halako arbitrariotasuna eragiten du ezinbestean, eta ahal den heinean hori mugatzeko bitartekoak topatu behar dira.

Gainera, Kontseiluaren ardurak zehaztu behar dira, baita idazkaritzarekiko harremanak ere. Orain arte, idazkaritzak azken erabakiaren ahalmena izan duenez, idazkaritza teknikoarena baino botere betearazlearen itxura hartu du. Hauxe zen funtzionatzeko modu bakarra, gogoan hartzen badugu idazkaritza Brasilgo zortzi erakunde eta mugimenduk osatzen dutela. Hau guztia aldatuko da, eta 2004rako hainbat asiar erakunde txertatuko dira, aurreko Foroetako esperientzia duten brasildarren laguntzaz.

Azken buruan, hauxe nahi da saihestu: Kontseilua erabakiak monopolizatzen dituen eta GKEen gehiengo boterea duen talde minoritario bat bihurtzea. Zenbaitek, Foroa Hirugarren Internazionalaren antzeko antolakuntza zentral gisakoa bihurtzearen beldur, Kontseiluaren eskumenak ahalik eta gehien murriztu nahi dituzte. Haatik, ziuraski hobe izango da arau batzuk formalizatzea, demokrazia erradikal baten itxurapeko botere bat garatzea baino. Dena dela, uste baino arrakasta handiagoa izan duen mugimendu baten erakundetze prozesuan ohikoak dira arazo hauek guztiak.

Egoera horri atxikitako erronka, hain zuzen, Foroek hartu duten neurria da. Porto Alegren, Foroa 20.000 lagunetik 100.000ra hazi da. Hainbeste parte-hartzaile antolatzea oso zaila da, gauza ez baita futbol partida bateko banakoak kontrolatzea, baizik eta guztiek lana elkarrekin egitea, ideiak eta esperientziak elkartrukatzea eta alternatibak bilatzea. Ondorioz, argi dago erronka latz baten aurrean gaudela. Porto Alegreko azken Munduko Foroan an-

tolakuntza hutsuneak egon dira, ekitaldiaren neurriagatik saihestezinak; areago, kontuan hartzen badugu haren prestaketa Brasilgo hauteskondeekin batera izan dela eta antolakuntzako arduradun batzuk gobernu berrian sartu direla. Hala eta guztiz ere, brasildar idazkaritzak lan azpimarragarria egin du.

Ekitaldi horien topaketa kutsua eraginkortasun politiko biziarekin konbinatu nahi izanez gero, formula aldatu beharko da. Lehenik, Foroak geografikoki eta tematikoki dezentralizatu behar dira, eta hori ari da betetzen. Beharrezkoa izango da, gainera, Foro partikularren eta Munduko Foroaren arteko harremana aztertzea. Izan ere, topaketa burutzeko orain arteko betekizun bakarra oinarrizko agiria onarpena zen. Horrek ongi funtzionatu du eta gizarte mugimendu eta erakunde progresista askotarikoen lurralde mailako bat-etortzeak bizkortu ditu. Haatik, hainbat desadostasun ere sortu dira, bereziki alderdi politikoe-kiko harremanen inguruan.

Neuriaren arazoa ebazteko, Nazioarteko Kontseiluan Munduko Foroa tokian tokiko Foroen eta Foro tematikoen adierazpen bihurtzea planteatu da. Horrela, kopurua murrizteaz gain, guztientzako funtsezkoak diren arazoak —gera, haziak, ura, hezkuntza...— lantzeko lan talde espezifikoak antolatu ahal izango lirateke. Kontseiluak ez zuen ideia jaso, baina etorkizunerako planteatuta geratu da.

Garrantzitsua da nazioarteko bileren kopurua murriztea, bai antolakuntza eta bai diru arrazoiengatik ere. Ezin izango zaio beti hain erritmo biziari eutsi. Pertsonen indarrak mugatuak dira, eta dirua lortzea gero eta zailagoa izango da. Porto Alegreakoa bezalako Munduko Foro batek 10 milioi dolar eskatzen ditu, eta hori ez da gehiegizkoa beste ekimen batzuekin konparatuz gero; eta, Foroaren eragina ikusiz, merezi zuela baieztatzen badugu. Hala ere, bitartekoak emaitzei egokitu behar zaizkie, eta etorkizunak erakutsiko digu bien arteko erlazioa nola eraiki.

Porto Alegrek Davosen aldean duen indarra bere izaera masiboan datza, eta hori ezin da galtzen utzi. Izan ere, Davosen pertsona gutxi batzuek munduaren etorkizunaz eztabaidatzen dute zirkulu oso itxi batean. Ondorioz, ez

da Gizarte Foroa Davos berri batean bihurtu behar. Mundu mailako topaketak murrizteko premiaren aurrean, urtero munduko herrialde guztietan —egun berean, Davosko bileran zehar— manifestazio bat antolatzea proposatu zen Nazioarteko Kontseiluan, horrela protestaren eta aldarrikapenen izaera masiboa bermatzeko. Proposamen hau onartu zen, eta ideia berriak eskatuko ditu manifestazio horien gaien inguruan. Izan ere, jendea ez da abstrakzioengatik ateratzen, helburu oso jakinengatik baizik. Nazioarteko Kontseiluaren zeregina izango da asmo horrentzat ideiak aurkitzea. Izaera masiboa gordetzeko beste proposamena bi, hiru edo bost urtetik behin mundu mailako bilera bat egitea izan zen; baina oraingoz proposamen hori ez da jaso, eta hurrengo urteotan Munduko Foro berriak antolatzea erabaki da, 2004an Indian eta 2005ean Porto Alegren.

Munduko Foroak aurrera egiteko modua topatu behar du, Woodstock sozial bat edo 1968ko Maiatza bezala ez amaitzeko, hau da, eragin jakin bat izan bai baina ezer erabakigaririk ekarri ez zuen zerbaitetan ez amaitzeko. Sistema kapitalistaren krisia sakona da eta erresistentziak areagotzen ari dira. Ez da denborarik galdu behar. Gizarte mugimendu zahar eta berrien, GKE progresisten, intelektualen eta tokian tokiko gizon eta emakumeen arteko bat-etortzea inoiz baino premiazkoagoa da. Alternatibak bilatzeak, epe labur eta erdiko utopien mailan, neurri zehatzak eragin behar ditu. Hauxe da ehunka milioika gizon-emakumek duten itxaropen bakarra, eta horrek erronka itzela eta balio handiko helburua adierazten du.¶

Munduko Gizarte Foroa ekinbide politiko berri gisa



KJELD JAKOBSEN



aurreko mendean zehar, erosteko ahalmena eta gizarte ongizatea —eskubide politikoak hedatzea—ekin batera— hobetzeko herri-lorpen garrantzitsuenak hainbat gizarte eragileen eta erakunde politikoaren arteko itunetan oinarritu dira.

Hasiera batean, sindikatuen eta alderdi sozialisten arteko itun klasikoa zegoen, eta egoera batzuetan Eliza Katolikoaren gizarte doktrinaren jarraitzaileen babesa ere bazuen. Herrialde industrializatu gehienetako hainbat erakunde, mobilizazio eta ekimen instituzionalen konbinaketatik abiatuta, 1920 eta 1960ko hamarkaden artean, itun horrek errenta banaketarako eta langileria-erentzako eskubide politiko eta sozialen inplementaziorako egitura garrantzitsuak sorrarazi zituen. Prozesu horrek 1929ko krisiak eta Bigarren Mundu Gerrak eragindako etenak jasau zituen.

1960ko hamarkadaren amaieran, itun hori indartu egin zen, ikasle mugimenduak eta intelektual garrantzitsuak bere baitan hartuz. Kasu horretan, grebek (sarritan bortitzak), ekimen instituzionalek, manifestazioek eta barrikadek indarra erantsi zioten mugimenduari. Ondorioz, ongizate estatuan hobekuntzak egin ziren, eta baita erreformak ere hezkuntza sisteman. AEBetan, herritar belt-

► **Kjeld Jakobsen** Brasilgo Central Unica de Trabalhadores (CUT) sindikatuko Nazioarteko Harremanetarako Idazkaria da.

zentzat eskubide zibilak lortzearen erantzukizuna izan zuen, eta, beranduago, Vietnamgo Gerra amaitzearena. Mugimenduaren lotsagabekeria eta erradikalismoaren ondorioz, nazioarte mailan ere balio berriak hedatu ziren, esate baterako sexu librea, feminismoa eta ingurumena. Ohitura eta kultura aldaketarako proposamen horiek hartu zuten neurriaren kariaz, «kontrakultura» mugimenduaz hitz egitera iritsi zen. Herrialde gutxi geratu ziren mugimendu horren eraginetik at. Erregimen autoritarioen pean zeuden hainbat herrialdek ere, Brasil eta Txekoslovakia kasu, ikasle eta langileen protestaldi larriak jasan behar izan zituzten.

Argi dago, aipatu ditugun bi adibide horietan, kasu bakoitzean zegoen diru eskuragarritasunarekin eta koiuntura politikoarekin lotuta zeudela lorpenak. Hala ere, kapitalismoak bere egin zuen «kontrakultura», kontsumitze-ko moduko produktu batean bihurtuz. Bere alderdi guztiak bereganatu eta kontsumo gai bihurtu zituen: janzkera, ile eta bizar luzeak, musika, legez kanpoko drogen erabilera... Woodstock, gaur egun, zinema eta diskoaren sinonimoa da, eta ez bakea eta norberak nahi duena egiteko askatasuna defenditzeko 300.000 lagunaren topaketarena. Askatasun sexualak ez du dagoeneko norberaren gorputzaren kontrolaren eskubidea soilik esan nahi; aitzitik, industria farmazeutikoak pilula antisorgailuen bidez lortzen dituen mozkin ikaragarriak ere ekartzen dizkigu gogorra, adibidez.

Gizarte eragileen parte-hartzearen ikuspuntutik begiratuta, 2001ean Porto Alegren abiatutako Munduko Gizarte Foroa aurretiko ekimen haiek baino askoz ere zabalago eta konplexuagoa da. Dena den, politikoki esperientzia haiek izan zuten eragina izatetik urrun dago oraindik. Aspalditik hitz egiten zen Davosko Munduko Ekonomi Foroaren ildotik gizarte mugimendu mailako ekimenen bat sustatzeaz. MGF, haatik, hori baino askoz gehiago izatera iritsi zen, eta neoliberalismoaren eraso bortitzaren ondorioz gogor astinduta zeuden gizarte indarrak berbiltzeko prozesuari hasiera eman izanaren meritua aitortu behar zaio.

Itun handia

Dena den, «kapitalismoaren urrezko urteekin» edo sozialismo erreala ren gailurra rekin konparatuz gero, egungo gizartearen osaketa askoz ere dibertsifikatuagoa da. Ohiko eragileekin batera —langileak eta ikasleak—, neoliberalismoak eragindako egiturazko doitzeen ondoren beste gizarte maila batzuk ere agertu dira: lurrik gabeko nekazariak, langabetuak, langile informalak, besteak beste. Badira auzi lokal edo espezifikogoengatik —ingurumena, osasungintza, genero auziak, auzi etnikoak, sexu aukerak...— borrokatzen duten taldeak ere. Azken 30 urteotan garrantzia hartu duten beste eragile batzuk gobernuz kanpoko erakundeak dira (GKEak). Duela gutxi, ATTAC (finantza transakzioen zergak herritarren alde ordainarazteko ekimena) bezalako taldeak ere sortu dira, banakoei kanpaina espezifikoetan parte har dezaten ahalbidetuz —ATTACen kasuan finantza-fluxuei prezioa jartzearen alde—. Izaera ekumenikoagoa duten beste erakunde batzuk ere agertu dira.

Mugimendu hori batzean datza erronka nagusia, politikoki protagonismoa izan dezan baldintzak sortzean eta, 1960ko hamarkadan gertatu zen bezala, *establishment*-ak besterik gabe bereganatu dezan ekiditean. (2002ko Davosko Foroa, esaterako, MGFren ereduan oinarritu zen argi eta garbi bere eztabaidak antolatzeke). Horretarako, zenbait zailtasun gainditu beharko dira, gizarte talde bakoitza batzen duen korporatibismotik hasita. Rolak definitzeko epe bat zehaztea ezinbestekoa da, eragileek elkar ezagutu dezaten eta gutxieneke konfiantza maila sor dadin.

Esate baterako, sindikatuen eta GKEen arteko erlazioa. Azken horien artean, sarritan, sindikatuen rola gutxiesten da, lan merkatu formalean sartutako langileak soilik ordezkatzan dituztelako —hau da, integratuak—, helburua baztertutakoak defendatzeak izan beharko lukeen ean. Neurri batean, tamalez, ikuskera horrek neoliberalismoaren kontzeptuarekin egiten du bat: lan kontratu erregularra eta nolabaiteko etekin finkoak —soldata barne— dituen langilea pribilegiatu bat da. Egia esan, sindikatuek

nahi dituzte langile informalak ordezkatu, baina ez dakite nola egin. XX. mende hasieran, artesauen sindikatuek ere ikasi behar izan zuten industriako langileak antolatzen. Egun, horixe da, hain zuzen, sindikatu legez ezagutzen dugunaren antolakuntza eredu. Langile informalen auziaren inguruan ezin izango al luke, agian, sindikatuen eta GKEen arteko sinergiak soluzio egokia eskaini?

Aldi berean, buruzagi sindikalek ere normalean gaizki erantzuten dute bestelako erakunderen batek langileen eskubideak defendatzeari ekiten dionean, zeregin hori sindikatuena eta ez beste inorena dela aldarrikatuz —batik bat erakunde arrotz horrek ordezkapenik ez duenean—. Egia esan, eskubideen defentsa ezin da inoren monopolio bihurtu. Antolatu, ordezkatu, negoziatu eta hitzarmenak sinatzeko zereginak baino ezin ditu sindikatuak «bereganatu». Mobilizazio prozesuak berak ere ez dira eksklusiboak, gosearen eta miseriaren aurka Betinhok abiatutako kanpainak erakusten duen bezala. Kanpaina horrek milioika lagun mobilizatu zituen Brasilen.

Ohi denez, zaila izan da hainbat sektore rentzat norberaren aldarrikapenen muga gainditzea eta, horiek oso zuzenak eta bidezkoak izan arren, hauxe ulertzea: beste arazo esanguratsu batzuk ere badaudela eta zati guztien baturak guztion arazoak soluzionatzea ahalbidetuko duela. Har dezagun, adibidez, genero diskriminazioa. Gizarte aldaketak ez du diskriminazioaren amaiera bermatuko, baina gizarte aldaketarik gabe oso zaila izango da halakorik saihestea, edozein diskriminazioren oinarri ekonomiko, sozial eta politikoa dela-eta, eta aldaketa hori ez da gertatuko aldarrikapen espezifikoaren plataformetatik abiatuta.

Beste arazo batek MGFko parte-hartzaileen espektro ideologikoarekin du zerikusia: batzuek besteek baino ez-kerrerago kokatzen dute beren burua. Printzipio ideologikoen mugak ezartzea erraza da, baina egokiak ez direnak bereiziko dituen epailea jartzea, aldiz, lan nekeza izan daiteke. Beraz, jarrera zuzenena hauxe izan daiteke: MGFren Printzipioen Agirian bezala, neoliberalismoari aurkakotasuna eta berdintasunaren aldeko borroka ideologikoki adierazten dituen parte-hartzerako parametro bat ziurtat-

zea. Gainera, etikak zedarritu beharko luke inklusio/esklusio muga.

*M*GF prozesu gisa

Elkar ulertze hori oso garrantzitsua da MGFren hazkunde eta mundializazioarentzat. Foroa eraikitzeko prozesuan hauteman daiteke haren sendotasuna eta ahulezia. Hauxe da lehen ahulezia: MGFk, bere zabaltasunari eusteko —horixe baita bere sendotasunaren adierazleetakobat—, ezin du ebazpen edo ekimen politikorik proposatu. Bigarren ahulezia: aktibista, militante, buruzagi eta intelektualen topaketa baino ez da oraindik. Egun, langileak, komunitateetako kideak, bazterketaren biktimak, politika alternatiboak aurrera daramatzatenak ez daude Foroan bertan, nahiz eta ordezkatura egon. Gauza ez da «basismoari» atxikitzea, baizik eta objektiboa izatea eta, gaur egun, ordezkapen hutsa baino garrantzitsuagoa dela parte-hartze handiagoa sustatzea. Eztabaidarako eta erabakitzeko eskema gero eta horizontalagoak erabiltzearen erronka datza auzi horretan, beti ere gobernagarritasuna galdu gabe.

Benetan izugarri lortu da bi urte eskasetan! MGFren lorpen nagusia honakoa izan da: globalizazio neoliberalaren aurkako egungo eta atzoko mobilizazio prozesuekin bateragarria den eztabaida eta eraikuntzarako esparrua irekitzea, kezka eta erreferentzi puntu berberak gordez. 2003ko MGFtik aurrera, ziuraski, Gizarte Mugimenduen Munduko Sarea eratu ahal izango da. Ekimen hori ehunka erakundek sinatutako Porto Alegreko bi agiritan jaioten, eta Bangkok, Johannesburgo, Quito eta Florentzian 2002an zehar burututako eztabaidetan. Sare hori oso eraginkorra izan daiteke erakundeak elkarrengana hurbiltzeko eta ekimen global zein nazionalak lotzeko.

1968ko mugimenduak ekonomia eta politikaren esparruetan nolabaiteko erreakzio kontserbadorea sustatu zuela ondoriozta genezake. Azken hiru hamarkadetan jasan izan dugu erreakzio hori. Haatik, inoiz baino premiaz-

koagoa da defentsa-jarrerak utzi eta erasoari ekitea. Horregatik, MGFk, eztabaida ez ezik, zerbait gehiago eman behar du. Ez da ezagutzen eztabaida edo gatazkarik gabeko gizarte aldaketarik.

Oraingoan ez du zertan desberdin izan, eta horregatik da hain garrantzitsua MGFn oinarritutako gizarte zibila ren ituna sendotzea. Proposamenak harrera ona izan du 2001eko lehen Forotik, bertaratutako jendetzak antolatzaileek aurreikusitakoa laukoiztu zuenean. Baita ia 60.000 bildu zituen bigarren Foroan ere, Irailaren 11ren ondoko lehen masa-manifestazioan. Harrera on horrek erakusten du «bestelako mundu bat posible da» eslogana erretorika hutsa baino zerbait gehiago dela. ¶

Munduko Gizarte Foroa eta gizarte mugimenduak



S O P H I E Z A F A R I



Porto Alegre III-k argi erakutsi digu gizarte foroen prozesua gorantz doan mugimendua dela. Ez soilik parte-hartzaileen kopuruan izandako arrakastagatik —100.000 lagun inguru—, lurralde mailako foroen bitartez prozesua nazioarte mailara hedatzeagatik; baita ere foroek erresistentzi mugimendu guztiei eskainitako «esparru irekia» taxutzeko eta esparru horretan bertan alternatibak prestatu eta sareak eta kanpainak koordinatzeko erakutsitako gaitasun politikoagatik.

Munduko Gizarte Foroa ren bihotzean bertan kokatzen da gizarte mugimenduen biltzar orokorra, eta Foroa ren bihotz horretan eztabaidatu eta erabaki da gizarte mugimendu horiek sarean antolatzea, duela hiru urte Porto Alegren sortutako dinamika itzela iraunarazteko asmoz.

Gizarte mugimenduen biltzar orokorra. Ideia ez da berria. 2000.ean aurkeztu zen Nazio Batuen goi bilera «sozialaren» —Kopenhage+5— kontra-bilera gisa, batik bat ATTACek zuzendua. Une horretan hainbat mugimenduren ezezkoa jaso zuen, enegarren Internazional baten eraketa izan zitekeela susmatuz.

Oraingoan, baina, ideiak bere bidea egin du eta, behar den zuhurtziarekin jokatzuz, aurrerapauso nabarmena ahalbidetu du ildo horretan.

► **Sophie Zafari** frantziar irakaslea da, ATTAC taldeko kidea eta FSU irakaskuntza sindikatuko batzordekidea.

Hainbat hilabeteren ondoren proiektuaren sortzaileek —CUT, MST, Focus on the Global South, ATTAC, Emakumeen Mundu Martxa— proposatutako testuak honakoa azpimarratzen du: gero eta premiazkoagoa da —ariskuak ere gero eta gehiago baitira— mugimenduen arteko noiz-behinkako erlazioak gainditu eta eztabaida politiko sakonagoa eraikitzea, egitura horizontal berriak ezartzeko saioak egitea, mugimenduari bere ekintzak nazioarte mailan hedatzea ahalbidetu dioten elkartruke eta ekimen komunitan oinarrituta... Mundua oso azkar ari da aldatzen, eta guk egitura berriak eta antolatzeke molde berriak behar ditugu agenda erradikal, anti-inperialista eta internazionalista bat prestatzeko. Premiazkoa da honelako mugimendu bat eraikitzea: demokraziaren, pakearen eta pluralismoaren aldeko jarrerak defendatuko dituen, neoliberalismoari aurre egingo diona eta alderdi politikoekiko independentea izango dena.

Gizarte mugimenduen lekua Foroan baitan

Gizarte mugimenduen biltzar orokorrean parte hartzeko PUCen bildutako sei hain lagunaren aurrean —batik bat Latinoamerikatik etorritakoak, baina baita Europa, Asia, Afrika, Ipar Amerika eta arabiar mundutik ere—, CUTeko Gustavo Coda iildoari eta kudeaketari buruz ari-tu da, eta horien mugez hitz egin du zuhurtziaz. Horien azpian dautza, jakina, erakundeen baitan eztabaidatutako hainbat auzi ere. «Gizarte Foroa ez da sare bat, ez antolokunde bat» aipatuz, gogora ekarri digu guztiok ongi ezagutu, gutxi gorabehera onartu eta asko eztabaidatu dugun «morroilo» hori. Izan ere, askoren ustez ezinbestekoa da harantzago joatea, urrats gehigarri bat egitea, baina inork ez du hartu nahi oso kaltegarria izango litzatekeen zatiketaren arriskua.

Eztabaida, bestalde, ez da gizarte mugimenduen bileren ondoren erabat irekita planteatu; ordain gisa, Nazioarteko Kontseiluaren bilera baino bi egun lehenago agertu zen berriro. Irakeko gerraren berehalako mehat-

xuaren aurrean, MGFren Nazioarteko Kontseiluko hainbat kidek ezinbestekotzat jo zuten Foroak jarrerarik hartu behar ez duela baieztatzen duen araua haustea. Iritziak oso banatuta zeuden auzi horri dagokionez. Nazioarteko Kontseiluak bere zeregin jakinari heldu zion: berori osatzen duten eta batik bat gizarte mugimenduen biltzar orokorraren baitan batzen diren mugimenduei itzuli zien auzia, bakoitzak gerraren aurkako jarrera bere kasa har zezan. Baina eztabaida hori, ezbairik gabe, berriro agertuko da Nazioarteko Kontseiluaren barnean eta lurralde mailako foroetan. Xehatze formal hori ez da oso irakurgarria izan iniziatuen zirkulutik at. Horrela, *Le Monde* frantziar egunkariak izenburu hauxe jarri zuen MGFren irekieran: «Munduko hirugarren Gizarte Foroa Irakeko gerraren aurka», Foroaren irekierako manifestazioaren mezua izandakoa, bestalde.

Bat-batean, egoera horren harira, bigarren eztabaida bat mahaigaineratu da indar handiz: gizarte mugimenduen eta Foroaren —Foroen— arteko harremanaren ingurukoa. Gizarte mugimenduen Porto Alegreko bileretan nabarmendu ez bazen ere, Florentziako Europako Foroaren prestaketa bitartean berragertu da, eta Europako hurrengo Foroaren prestaketaren testuinguruan ere berriro agertuko da, inolako zalantzarik gabe.

Argi dago Foroak gizarte mugimendu eta mobilizazioentzat euskarri garrantzitsua direla, baina ezin da beren eginkizuna horretara murriztu. Elkartruke eta eztabaida gune irekiak izatera iritsi behar dute, baldin eta indar eta ahalmen asko bidean galtzeko arriskua saihestu nahi badute.

Foroen eginkizun bikoitz horrek esangura jakin bat du: gizarte mugimenduen biltzar orokorra estatutu berezi batekin kokatzen da Foroen baitan. Horien baitako une jakinak ditugu —denboran foroan amaieran koka ditzakegu, Florentziako kasuan gertatu bezala—, baina Foroei lotuta: leku berean gizarte eragile berekin eztabaidatuz eta gizarte mugimenduen erronkak eta erabakiak eta foroaren bilakaera hurbiltasun handiagoz —baina inor behartu gabe— taxutzen saiatuz.

Gizarte mugimenduak antolatze bidean

Hurbilketa horiek guztiak eztabaida merezi dute oraindik, eta gizarte mugimenduen eta beren arteko koordinazioaren aldetik zuhurtzia badagoela azaltzen dute. Foroak bere kasa egin ezin duen urrats gehigarri hori egin dezakete gizarte mugimenduek, baina urrats faltsuen arriskua ere saihestu behar dute.

Horrela, Gustavo Codasek luze adierazi du sareak zer izan behar duen, baina batik bat zer izan behar ez duen: «egin behar ez dena: dagoeneko badauden sareak ordezkaturako lituzkeen mundu mailako zuzendaritza edo koordinazio motaren bat sortu, bertikalki lan egin eta mugimenduen arteko hierarkia bat eratu». Premiazkoa zaigunari buruzko eztabaidan sakontze aldera, proposamenaren oinarria gogorarazi digu: «gizarte mugimenduen arteko eztabaida antolatu eta sarriago burutu —urtean behin bederen—, herri bakoitzeko eta gai bakoitzari buruzko kanpainak ezagutu, ekimen horiek sustatu, larrialdiak kudeatu, gure presentzia munduko beste herrialde batzuetara —Afrika, arabiar mundua, Asia— hedatu».

Eztabaidak homogeneotasun handia izan du proiektua osatzeko burutu den prozesuan. Izan ere guztiak antzeko premiak adierazi dituzte: errealitate militanteak eta indarrean dauden borrokek hobeto ezagutzekoa; kanpainak hobeto koordinatzekoa; aparatu, gainegitura edo erakuntza hierarkikoen itxura izan dezakeen egikera edo molderik ezartzeko aukera guztiz errefusatzekoa. Idazkaritza bat ezartzearen proposamena —hainbat modutara interpreta liteke: Bureau politikoa?— albo batera utzi da, «harreman talde» formula leunagoaren alde. Izan ere, talde horren zeregina informazioa hedatzera, bilerak prestatzera eta sarea prestatzen laguntzera mugatzen da. Brasildarrei soilik utzi zaie zeregin hori —CUT, MST, ATTAC, Emakumeen Mundu Martxa eta bertan sartzeko borondatea eduki lezaketen beste brasildar erakundeak—; horrela, ordezkartzari buruzko —dela geografikoa, dela politikoa...— eztabaida aztoratu, zail eta arriskutsua saihestu ahal izan dugu.

Kezka espezifikagoak agertu dira eztabaidan zehar. Era horretan, esplotatu eta zapalduenen, langabetuen, aterpe gabeen borroka eta aldarrikapenei esparrua eta ikusgarritasuna eskaintzearen premia adierazi da. Alderdi politikoei egindako deialdia berriro ere akordiorik gabe amaitu da; praktikak, «kulturalak» oso bestelakoak dira herrialde bakoitzaren baitan. Horrela, Munduko laugarren Gizarte Foroaren prestaketaren ardura duten indiar militanteek auzi horri heltzeko beren berezko hurbilketa dute.

Sarearen prestaketa

Batzorde mailako lan luzearen ondorioz proposatu ahal izan den testuan, gizarte mugimenduak berriro bilduko duen sare bat abian jartzeko ideia onetsi da. Aldi berean, sarearen malgutasuna azpimarratu da. Guztiok partekatutako helburuak bi zailtasun nahi ditu gainditu: batetik, gehiengoaren asmo legitimoari jarraituz, erabakien zentralizazioa saihestu; bestetik, bertaratu nahi duen edozein erakunderen parte-hartze aktiboa ahalbidetu, hau da, gurari sektario oro saihestu... Sei hilabeteren buruan lehen balantzea iragarri da. Testuak bere behin-behineko izaera azpimarratzen du eta bide batez balantze kolektiboa egiteko egutegi bat eta eztabaidara deitzeko metodo bat definitzen ditu. Honelaxe definitzen da sarea: «erreaktibo, malgu eta iraunkorraz gain, irekia eta gardena. Bere erantzukizuna prozesua aberastu eta elikatzea izango da, aniztasuna sustatzea eta ezinbesteko koordinazio maila ziurtatzea. Sarearen xedea hauxe izango da: mundu osoko mugimenduak funtsezko eztabaidatan parte hartzera gonbidatzea, ekimen komuna erraztera bultzatzea, gizarte auzien inguruan mobilizatzen diren guztien ekimena indartzea. Horrek guztiak aldi berean horizontala eta eraginkorra izan beharko du».

Harreman taldearen eginkizuna honela definitzen da: «nazioarteko gure mobilizazioen zerbitzura bilerak prestatu, interneteko gune baten eta eztabaida-zerrenda elektronikoen bitartez debatea eta demokrazia dinamiza-

tu. Dena behin-behinekoa den arren, talde horrek jarraitasuna ziurtatzen du. Behin-behineko talde horren egin-kizun nagusia hauxe da: mundu osoko gizarte mugimenduek lan komunerako prozedura jakinak definitu ahal izateko eztabaida erraztea. Prozesu hau ebolutiboa da».

Testuak, gainera, lehen balantze bat iragartzen duen metodo bat ere definitzen du, Cancun-en 2003ko irailean MMEren aurkako mobilizazioen ondotik. Balantzearen bigarren fasea Indian 2004an aurreikusita dagoen hurrengo MGFren ondoren osatuko litzateke.


Politikarekiko erlazioari dagokionez, indiar erakundeen eskakizun zorrotzak aintzat hartu ditu testuak. Izan ere, politikarekiko erlazioak malgutu daitezela eskatu dute; testuak, beraz, mugimenduaren —oro har— eta gizarte mugimenduen —bereziki— independentziaren lehen-tasuna baieztatzen du indar handiz. Era honetan erantzuten dio testuak eskakizun bikoitz horri: «horrek mugimendu guztien parte-hartze aktiboa eskatzen du, gobernu eta alderdi politikoen aurrean duten independentziarekiko errespetutik abiatuz, beren autonomiarekiko errespetutik abiatuz. Esparru hori gizarte eragile guztien ekarpene-kin elikatuko da, beren esperientzia eta gizarte jarduerak partekatuz, gizarte mugimendu horien adierazpen politiko eta antolakuntza moldeekiko, beren balioekiko eta beren kultura espezifikoei errespetutik abiatuz».

Mobilizazio komunerako agenda

Gizarte mugimenduen biltzarrak, bestalde, kanpainak ikusgarri bihurtzen ditu eta egutegi komun bat ezartzea ahalbidetzen du. Foroaren baitan, sare, kanpaina eta koordinazio ugari biltzen dira, hitzaldi, mintegi eta taile-rretan gertatzen diren elkartruke politikoei ikuspuntu orokorra eskainiz. Ura izateko eskubidea, Tobin tasa, mobilizazio feministak... mobilizazio sektorialak biltzeko aukera paregabea da Foroa. Gizarte mugimenduen biltzarrak, eztabaidagune horietan egindako lanetik abiatuz, konpromisoak eta ekimenen egutegi komun bat definit-

zea ahalbidetzen du. Aztergaien ugaritasuna aberastasuna eta erronka da aldi berean: gizarte mugimenduek azken urtean egindako deialdian 400 ekimen baino gehiago zenbatu zitezkeen...

Aurten, puntu esanguratsuei lehentasuna eman zaie argi eta garbi. Ariketa zaila eta arriskutsua izan da hori, baina mundu osoko sare militanteei proposatutako mobilizazio komunak sustatuko lituzketen auziak lehenestea erabaki da. Gerraren errefusapena eta munduaren merkantilizazioaren aurkako mobilizazioa —MMEren Cancungo hurrengo goi bileraren kariaz— nabarmendu dira bereziki.

Gerraren aurkako manifestazioen arrakasta peregabea, otsailaren 15ean (Florentziako Gizarte Foroan hitzartutako data), gizarte mugimenduen koordinazioak mundu mailan lortu duen lehen garaipena da. MMEren aurka jarraitu eta berriro gauzatu beharreko eredia...

Porto Alegre 2003.
«Jai militantearen» distira eta
miseriak



LEILA DAKHLI



2 003ko Munduko Gizarte Foroa, espero genuen legez, jai handi bat izan zen, jai eder bat ezbairik gabe. Ohi denez —horren kontu ematea erronka bat da—, halako jai batek begiraden partzelazioa eragiten du, espazioak partzelatzen diren era berean. Baieztapen hau ez da inola ere kexua: guk parte hartzen dugun mugimendu multiforme hori ezin da aniztasun horretan baino adierazi. Dena dela, MGF 2003ren baitako espazioen leherketak espero zenaren aurkako emaitza ekarri duen ondorio bat eragin du. Hiriko hainbat lekutan ezarritako tailer ugartan jendea libre parte hartzen ikusi beharrean, informazioa eskuratzeko zailtasunak (egitarauetatik hasita, foroaren hiru egunetan egunean prestatu baitziren) publikoaren gehien-goia «hitzaldi handietara» eraman du masiboki (bereziki Gigantinho estadioan antolatutakoetara). Jendetzak ikusi izan dira hizlariak entzutera joaten elkartruke espazioak gaizki funtzionatzen zutenean. Benetako paradoxa da hori jakintza elkarturatzeko bide berriak eta hitza banatzeko arau berriak asmatu nahi dituen mugimendu batentzat.

Alderdi hori are gehiago indartu zen gazteen kanpamentuan. Aurreko urtean, espazio hori kanpin soil bat ez

► **Leila Dakhli** frantziarra AARRG (*Apprentis Agitateurs pour un Réseau de Résistance Globale*) taldeko kidea da.

bilakatzeko eta gazteen eremuaren barnean hainbat jardue-
ra instalatzea ahalbidetzeko gure asmoa adierazi genuen.
Kanpamentua kopuru aldetik izugarri hazi da (25.000 la-
gun baino gehiagok eman zuen izena, beraz 30.000 lagun
gutxienez, hiriaren barnean benetako hiri bat). Horren on-
dorioz, jarduerentzako espazioak lekuz aldatu behar izan
dira aintziraren ertzerara; baina, egitarau eta orientabide argi-
rik ez zegoenez, jendearentzat nahiko ezkutuan geratzen zi-
ren. Oso zaila da benetan jakiten zer gertatu den eremu ho-
rretan. Baina badirudi errealitate berriek nekez murgildu
ahal izan dutela «sare tradizionaletan».

Gutxinaka-gutxinaka, hala ere, gauzek itxura hobea
hartu dute. Paperek eta panfletoek manifestazioak, ezta-
baidak eta tailerrak iragartzen zituzten. Aintziraren espa-
rruaren baitan aurrera eraman ahal izan diren ekimenen
inguruan bildu ahal izan du jendeak. Taldeak zirkulutan
esertzen ziren belarraren gainean eztabaidak jarraitzeko.
Halako espazio gutxi gorabehera informaletan diseinatu
dira ekimenak. Hemen, zapatismoari buruzko eztabaida
bat ari zen matxinada zapatistaren hamargarren urteurre-
nerako egitasmo bat aurkezten (2004ko urtarrilaren 1ean).
Munduan zehar hainbat eta hainbat «aguas calientes»
eratzean datza egitasmo hori: ez ospakizun hutsa soilik,
baita zapatisten antolakuntza komunitarioaren ereduaren
tokian tokiko esperientzioak ere. Beste leku batean,
ekintza zuzenaren erabileraren eta mugimenduen eraketa
eta finkapenaren arteko artikulazioaren auzia planteatzen
zen. Hainbat taldek ekintza zuzenean oinarritutako beren
esperientziak kontatzen zituzten auzi hori kokatzeko. Ar-
tikula al daitezke ikusgarritasun sinbolikoa, erasokorra, eta
mugimendu errebindikatzaille baten iraunkortasuna? He-
goafrikako aterpe gabeen, argentinarrak *piquetero*-en eta ame-
rikar Action Network bezalako mugimenduen parte-hart-
zeak auzirik esanguratsuenak mahairatzen zituen, eta ba-
koitzak besteen kontakizunetan baliabide eta problemati-
ka berriak eranstea —azken buruan, besteen diskurtsoa
aberastea— ahalbidetzen zuen. Eta hirugarren leku batean,
feminista gazteek emakumeen auzi espezifikoak antiglo-
balizazio mugimenduen baitan txertatzeko zailtasunaz

ziharduten, baina baita feminismo berri bat asmatzeko zailtasunaz ere, feminismoa fundatu zuen belaunaldiaren krispaziotik aske...

Zentzu honetan, kanpamentuko eremuak, bestelakoak bezalaxe (Gazometroan aurrera eramán diren hainbat eta hainbat jarduera ditut gogoan, esaterako), elkart ruke eremu benetan emankor eta aberasgarriak izan dira. Gaur egun planteatu behar den auzia, agian, beste bat da. Horixe izan da eremu horietako guztietako parte-hartzaile anitzen galdera. Nola jokatu foroak aberastasun hori aintzat har dezan? Bestela esanda, nola hedatu foroetan benetan gertatzen denaren oihartzuna, agerpenaren perimetrotik kanpora, baita politikaren perimetrotik kanpora ere (gizarte mugimenduen deialdia, gerraren aurkako deialdiak...)?

Galdera hori kronika eta seinale kontuetara garamatza dagokie hein batean. Aurten, antolatzaileek jende jakin bat bidali dute; pertsona horien ardura zen jendea erregistratzea eta eremu ezberdinetako zenbait eztabaidaren ondoren jasotzea. Baina ekimen hori ez zen izan inola ere nahikoa; izan ere, bai baitakigu zer gertatzen den hitzaldiak eta eztabaidak emateko pentsatutako eremuetatik kanpora. Jakina, gauza ez da jarduera ugarien kontaketa exhaustiboaren itxurako zerbait egitea. Aitzitik, nire ustez parte-hartzaile guztiei halako kontsigna moduko bat eman beharko litzaieke, beren jarduera eta eztabaidak oharren bidez idatz ditzaten eskatuz. Dokumentu multzo hori guztien eskura jahi ahal izango litzateke, esaterako foroaren webgunearen bitartez. Foro guztien arteko jarraitasuna —hala nazioarte edo kontinente mailakoak, nola tematikoak— indartzen lagundu ahal izango luke horrek, adibidez.

Baina hori ez da kronika kontua soilik. Nire aburuz, diskurtsoaren benetako eraikuntza bera dago hor jokoan. Izan ere, diskurtso hori zertxobait folklorikoa bilakatu da erabiltzearen poderioz, mugimenduaren aniztasunari buruz, bere askotariko aberastasunari buruz... Horrela, bada, identitate berri eta lauso gisa mugimendu hau masiboa eta askotarikoa dela aldarrikatzea ez da inola ere nahikoa. Eta are eta desegokiagoa bilakatzen da masifikazioak berak aniztasun hori aldi berean naturalki eta paradoxalki

murritzten duelako aldarrikapenagatik poztea. Manifestazioetako parte-hartzaileak gero eta ugariagoak izan, orduan eta gehiago desegiten dira jendetzaren, are okerrago, «publikoaren» anonimatuan; eta mugimenduko aktore estatusa ukatzen zaie (ukatzen zaigu) horrela. Arriskua honako hauxe da: gainerako parte-hartzaileen aurrean «profesionalen» kategoría bat eta ezinbestez auto-izendatutako bozeramaileak gailentzen ikustea gure artean.

Gazteen kanpamentuko esperientziatik ateratako adibide bat, nire ustez, ildo horretatik doa. Foroa hasi aurretik, kanpamentuaren antolatzaileek «gazteen sarea» sortzeko asmoa adierazi zuten, etorkizuneko kanpamentuen antolakuntza koordinatzeko zeregina izango lukeena. Jardueretan parte hartu duten pertsonen arteko eztabaidak oinarri horren gain gauzatu dira. Kanpamentuaren neurri ikaragarriak eta antolakuntza zailtasunek ez dute ahalbidetu ekimena azaltzea eta bilera horietara antolakuntzak jada izendatutako pertsonen zirkuluko jendeaz gain beste inor hurbiltzea. Beraz, lehenengo bilerek ehun bat «gazte» inguru bildu dituzte. Tamalez, nahasmendua berehala zabaldu eta indartu da kanpamentuaren autogestioa eta antolaketa eskatzen duen ekimen pragmatiko baten eta gazteak foroetan ordezkatzeko ekimen politikoago baten artean.

Gertakari batek are nabariagoa bihurtzen du bereizketa hori. Gizarte foroek gaur egun duten iraupenak gutariko batzuk «ohiko» bihurtzen gaitu. Nabigazioa naturalagoa da, sareak eta harremanak naturaltasun osoz berreraikitzen dira. Gazteen eremua bera askoz ere irekiago dago parte-hartzaile eta berrikuntza guztietara. Gune antolatzailea, espezifikoki brasildarra, batez ere maila praktikoko arazoak kudeatzeari lotzen zaio. Kanpamentuan parte hartzen duten nazioarteko kideek oso gutxitan har dezakete parte kudeaketa horretan. Beraz, batik bat jardueretan hartzen dute parte. Egia da mundu osoa ados zegoela kanpamentua kudeatzeko moduak, hobetu beharreko alderdiak, eztabaidatu behar zirela, ostatuari buruz ez ezik jardueri buruz eta horiek foroaren baitan txertatzeari buruz. Horrek, zalantzarik gabe, eztabaida politiko zeka-

rrer, eremu espezifikoki «gazte» baten zentzuari buruzko eztabaida bereziki. Eztabaida horien erabilera txarrak eta esku-hartzeko batzuen eta besteen arteko maila-ezberdintasunek eztabaida hori gorren arteko eztabaida bihurtu zuten. Egia esan, «gazte» kategoria zentzuren batekin harrezaketen bakarrak alderdietako gazteak ziren, hain zuzen partaidetzazko beren egituraren ondorioz («gazte komunistak», «gazte sozialistak»...). Beste batzuk saiatu dira jardueren baitan gazteen inguruko auzi politiko espezifikoa goak ezar zitezkeelako ideia sartzen, baina horrek ez zuela esan nahi gazteria bere horretan identitate politiko bat izan zitekeenik.

Ez dago eztabaida horren xehetasunetan sartzeko premiarik. Mugimenduaren eremu guztietan bakoitzari zein multzo osoari «zentzua emateko», agerikotasuna emateko aurki daitekeen asmoaren seinaleak dira: gizarte mugimenduen deialdiaren eta egutegiaren inguruan biltzea, bat-etortzeak agerraraztea, irakurga rritasuna ematen duen hori agerraraztea. Nire aburuz, kanpotiko irakurgarritasuna aktoreen baitatik bere kasa atera dadin utzi gabe agerrarazi nahi izatean datza arazoa; areago (gazteei dago kienez, esaterako), hura inposatzean. Arazoa are larriagoa da barnetiko irakurgarritasun eza ere erantsiz gero, mugimendu horretako aktoreen multzoak eremu ezberdinetara iristea eragozten baitu.

Auzi hau ez litzateke planteatu behar bazterketa terminotan: ez dago hautatu beharrik barnetiko irakurgarritasunaren eta kanpotiko irakurgarritasunaren artean. Baina badirudi lehenaren gabeziak bigarrena konprometitzen duela. Florentzian, dagoeneko, batzuek eta besteek hitza hartu izanak, europar gizarte foroa ordezkatzuz MGF ohia mediatikoki agertu izanak, auto-izendatutako bozeramaile bat (edo bozeramaile multzo bat, ez baita hala ere egoera askorik aldatzen) «jasan» behararen ustea sortu zion hainbati. Auzi hau talde mailan planteatu beharko litzatekeela iruditzen zait, eta hitzordu bakoitzeko gero eta lagun gehiago biltzen dituen mugimendu honi erantzunen bat ematen saiatu. «Alderdi politikoak eta gizarte mugimenduak» eztabaidaren baitan nire parte-hartzean

azpimarratu dudana iruditzen zait dela horren emaitza: batzuen «profesionalizazioa» eta gero eta deskonexio handiagoa borrokan diharduten mugimenduekin ez ezik foroetan parte-hartzen duten guztiekin oro har. Bilakaera hori, antolakuntza eta erabaki-prozesu molde berriak aurkitu ezean, mundua aldatzeko gure asmoa arbuia eta, areago, hura auzitan jartzeko benetako arrazoia izango litzateke.

Zentzu honetan, «ahotsik gabekoen» (No Vox) sarea eraikitzeko ekimena —Florentziaren ondoren abian jarria eta Porto Alegren luzatua— oso interesgarria iruditzen zait. Frantziako «gabetuen» mugimenduen eta langabeziaren, prekarietatearen eta esklusioen aurkako Europako Martxen sarearen ondoren hasitako ekimena da hura. Hauxe du xede: borrokan dauden mugimenduen presentzia eraikitzea, batik bat foroetan eta antiglobalizazio mugimenduetan parte hartzen duten txiroenen mugimenduen. Ekimen horrek bat egin behar du proiektu zehatzekin, eta batez ere Saint-Denisko Europako Gizarte Fororanzko europar martxa baten antolaketarekin. Asmoa ez da berriro martxa lineal bat egitea, baizik eta ekimen askotarikoak biltzea Saint-Denisen esparru komun baten inguruan topo egiteko. Ezin da eraginkortasunik gabeko enegarren sarea sortzera jo; aitzitik, presentzia formak denok batera lantzera jo behar da, mugimenduen mobilizazioa oraindik ere aberatsen mugimendu gisa ikusten dutenak bertara bultzatzera. Mobilizazio horren alderdirik funtsezkoenetakoa hauxe da: beste elkarten elkartasunaren orokortasuna aktibatzea eta baztertuen eta gazteen mugimenduak erakartzeko «elkartasunezko txartelen» formula bat ezartzea.

Porto Alegren, No Vox-en biltzar batek bildu ahal izan ditu aterpe gabeen eta langabetuen mugimenduak ez ezik, mugimendu indigenak, auzo txiroetako mugimenduak (brasildar Hip Hop mugimenduetako ordezkariak bereziki)... Biltzar horrek erakutsi du beste behin zein zaila den errealitate horien kezka eta auziak adierazteko esparruak aurkitzea, eta agerian utzi du ere esparru hori sortzeko premiazko baliabideen auzi labaina.

Hona hemen, beraz, 2003ko Munduko Gizarte Foroari buruzko zenbait apur eta ikuspuntu. Gure mugimenduen egungo egoera seinatzeko eta beren etorkizunaz zertxobait hausnartzeko ekarri ditugu hona. Genoak, nire ustez, haustura eta mugarririk bortitza eragin ditu antimundializazio mugimenduen mobilizazioen baitan. Mugarririk izan da manifestatu zen jendetzagatik eta gure presentziaren indarragatik. Eta baita segurtasun indarren erasoak eragindako bortizkeriaren aurrean erreplegatzeagatik ere. Genoakoaren ondoren kaleetan izandako agerpen masibo eta baketsuak agerpen horren formei buruzko eta Genoako kaleetan gertatutakoari erantzuteko moduari buruzko benetako eztabaida bat saihestea ahalbidetu digu. Bestalde, gizarte foroak, gaur egun, kristalizazio eta ainguratze guneak bilakatu dira. Bilakaera horrek, nire irudiko, ez du geratu behar mugimendu «alternatiba-eramaile» gisa aurkezteko asmoan; horrez gain, gure indarraren zeinu gisa ere agertu behar du. Indar hori honetantxe datza, hain zuzen: borroka eta mobilizazio uneak denok batera antolatzeke gure gaitasunean ez ezik —horixe da gizarte mugimenduak Porto Alegreira joan izanaren zentzua—, mugimendutik bertatik sortzen den guztia —«itzulpen» sinplifikatzaile egin gabe— entzuteko gure gaitasunean.

Hori azpimarratzeari baliagarri irizten diot oraindik ere, gerraren aurkako mugimendu planetarioaren esparruan. Mugimendu horrek forma asko hartzen ditu, zorionez, ez da monolitikoa. Sistemaren aurrean indar jakin bat ezartzen du, mundializazio neoliberalaren eta bere ordena polizial eta militararen egonkortasuna galarazten du. Alferrikakoa litzateke pentsatzea mugimendu hori besterik gabe «antimundializazio» etiketaren azpian bildu daitekeela —Florentziako hitzordua izanera aktibatzailea aintzat hartuta ere— eta sistemaren aurkako mobilizazio masibo baterantz bidera daitekeela. Horrek ez du eragozten gure mugimenduak horretan guztian rol garrantzitsua betetzen duela onartzea, foroak gaur egun kaleetan biltzen den aniztasuna aurrez aurre jartzeko guneak izan daitezkeela baieztatzea. Elkarrekin baina aldi berean desberdin izanez aurrera egiteko moduak aurkitzean datza gakoa.

Datozen garaiek auzi horiek aintzat hartu beharko litzukete, tentazio triunfalista eta «aritmetikoa» erori gabe (asko gara, beraz irabazi dugu), gure ahultasunei buruz eta bidean gal ditzakegun aberastasunei buruz galdetzeko, eta hemen dakusagun indarra borroka zehatzen eremuei emateko. Izan ere, Frantzia, adibidez, lanetik jendea botatzen jarraitzen dute eta irazpenak ugaritzen ari dira, askatasunen aurkako M. Sarkozyren legeak axolagabetasun orokorraren aurrean onartzen dira, paperik gabekoak eguneroko kanporatzen dituzte... eta hala eta guztiz ere gerra dugu atari aurrean, munduko leku askotan deklaratu ez den arren...

Borroka gune horien eta gerraren aurkako —edo gobernu globalaren instantziaren aurkako— gure konpromisoaren arteko lotura argi eta garbi agerrarazi behar da. Ez soilik kezka soziologikoagatik, baita ere errealitate horiek hortxe daudelako, gure mugimenduen baitan, eslogan bateratzaileek «estalita». Foroak beti dira guretzako, gogoeta egiteko. Saint-Denisko hitzorduak (hurrengo europar gizarte foroa) gure ibilbide komunean oraindik aurrerago joateko beste abagune bat aurkeztu behar digu, borroka guneak gero eta gehiago integratuz. Hain zuzen G8ren Europako hurrengo hitzorduaren ondoren izango dela pentsatzea ere interesgarria da, Genoaren ondoren berriro gure atarian aurkezten den lehena.¶

Emakumeen Mundu Martxa, Munduko Gizarte Foroa eraikiz



MIRIAM NOBRE



*m*unduko Gizarte Foroak antiglobalizazio mugimenduaren hazkundera sinbolizatzen du. Indigenek Chiapasen, dokumenturik gabeek eta Europako emakume langile publikoek Europan, neoliberalismoarentzako alternatibarik ez zegoela baieztatzen zuen ideia-aren aurkako lehen erreakzio-zeinuak agertu zituzten. Seattlen ikusi ahal izan genuen neoliberalismoari aurre egiten zioten taldeen kopuru handia eta antolatze-ahalmena.

Emakumeen Mundu Martxa testuinguru honetan hasi zen. Bere lehen aroan, 2000. urtean, emakumeen bost mila taldetik gora mobilizatu zituen munduko 160 herrialdetan, emakumeen aurkako bortizkeria eta pobrezia-zen zergatiak kapitalismo patriarkalaren eta horren erakunde-erantzukizun gisa salatzen dituen ildoari ekinez. Martxa MGFren eraketaren hasiera-hasieran agertzen da, agenda komunak definituko dituzten gizarte mugimenduen biltzarretan eta Gizarte Mugimenduen Mundu Sarearen sorreraren inguruan. Izan ere, gure ustez, emakume guztien bizimodua hobetzeko beharrezko aldaketak hain dimentsio sakona dute, ezen bestelako mundu baten aldeko borrokan diharduten mugimenduekin elkartuta bakarrik lortu ahal izango baitira helburuok.

► **Miriam Nobre** brasildar agronomoa da, *Sempreviva Organização Feminista*ko teknikaria eta Emakumeen Mundu Martxako kidea.

MGFn, antolakuntza modu berriak esperimentatzen dituzten gazte-taldeek eta ezker tradizionala delakoaren ordezkariak topo egin zuten, besteak beste, poliziaren eta gasezko bonben erasoek sortzen duten tentsiotik at. Talde horiek guztiek bertan egin zuten topo munduaren egungo egoerari eta eraikitzen ditugun alternatibei buruzko ideiak trukatzeko; MGFren hirugarren topaketarako proposamena estrategia komunak eztabaidatzea zen.

MGFk atal eta dinamika asko ditu, eta horietako gehienak positiboki balora daitezke. Baina bere promesa historikoa honetan datza: *topaketa* hori Porto Alegren, eskualde mailako Foroetan, Foro tematikoetan eta antiglobalizazio mugimenduaren agendaren gainerako une guztietan egingo da, G8, Munduko Merkataritza Erakundea (MME), ALCA (Ameriketako merkataritza librerako eremua), Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) bilerei aurre eginez.

Topaketa horrek ezkerrean eta feminismoaren baitako eztabaida behar du eta ahalbidetuko du, esperientzia eta subjektu, ideologia eta balio ezberdinak produkzio eta erreprodukzioaren antolakuntzarako oinarri materialekin elkar lotuz.

Feministen eta gizarte mugimenduen arteko harremanak

Ezkerreko hainbat erakundek dikotomiekin egiten du lan —ekonomikoa/soziala, produkzioa/erreprodukzioa—, horiek parez pare baino hierarkikoki antolatuz. Feministek ez dute eskatzen emakumeak egitasmo jakin batean barneratzea, baizik eta egitasmo horren oinarriak berrikustea: prozesu gisa pentsatua izango den egitasmoa, subjektu ezberdinei ahotsa emanez eta konbergentzia eta sintesiak sortuz.

Hirugarren MGF honetan, zorionez, emakumeen eta feministen presentzia asko hazi da eztabaidaguneetan. Dena den, elkarri interpelatu ahal izateko moduko benetako elkarrizketarik ez dagoela sumatzen dugu. Eztabai-

datzaileen arteko trukerik ezaren eta diskurtso feminista-
rekiko indiferentzia adeitsuaren sindromea delakoaren
adibide zorrotzenak garapen jasangarriari buruzko ezta-
baiden baitan gertatu ziren. Martxakook ardatz horren in-
guruko gaiak analizatu genituenean, bestelako ekonomia
batez eztabaidatuko lukeen, produktibismoa, efizientzia
eta lehiakortasun balioak eta kontsumismoa auzitan jarri-
ko lituzkeen panel baten gabezia sumatu genuen. Gazteak
biltzeko panel bat proposatu genuen, honako gaiak ezta-
baidatzeko: bizitzaren merkantilizazioa, ideologia neoli-
berala ekonomia kapitalistaren berrantolaketaren oinarri
eta emaitza gisa, gure gizarteak erreproduzio sozialari au-
rre egiteko —eta aurre egitea saihesteko— dituen bideak.
Panelaren azken formatua ez zen horrelakoxea izan, bai-
na, dena den, gure kide batek ekonomia feministaren
printzipioak aurkeztu zituen eta gainerako txostengileak
gonbidatu zituen horiei buruz eztabaidatzera. Haiek ez
zuten, ordea, iruzkinik ere eskaini, osoko bilerako emaku-
me batek behin eta berriro eskatu zien arren.

Topaketako delegatuek autoantolatutako mintegi eta
bulegoetan jorratutako auziei buruzko lehengo inform a-
zioen arabera, garapen jasangarria izan zen auzirik jorra-
tuena, eta ondoren generoaren auzia. Hitz-gakoak gurut-
zatuz gero, ordea, generoaren auziak garapen jasangarria-
renarekin zuen, hain zuzen, kointzidentziarik txikiena.

Adibide horiek erakusten duten legez, oraindik ere
badira ezkerreko pentsamenduan feminismoari aurre egi-
ten dioten gune gogorrak. Pentsamendu feministak ezta-
baida luzea du produkzio eta erreproduzioaren arteko er-
lazioaz, lanaren sexu banaketaz, etxeko lanaz, emakumeak
lan merkatuan sartzeko modu subordinatuaz, baina gaur
egun oraindik ez du elkarreragiten antiglobalizazio mugim-
enduaren analisiekin, eta are gutxiago horren alternati-
ba eta estrategia proposamenekin.

Brasilen Emakumeen Mundu Martxak honela jokatu
du arazo horren aurrean: antiglobalizazioaren agendan
agertu gara, bertan lantzen diren auzien eta emakumeen
eta gizonezkoen arteko ezberdintasunen arteko loturak az-
pimarratuz. Horren adibidea dugu ALCaren aurkako kan-

painan izan dugun parte-hartzea. Jarduera orokorretan sartuta egoteaz gain, auzo txiroetako eta nekazaritza eremuetako emakumeentzat hainbat bulego ireki ditugu, ALCari buruzko gure ikuspuntua eraikitzeke asmoz. Ekonomia kapitalistarentzat eta AEBetako multinazionalak ezartzen duten menpekotasun erlazioarentzat duen esanahiaz eztabaidatzeaz gain, sexu turismoaren bitartezko emakumeen gorputzaren merkantilizazioaz ere jardun dugu.

Gure herrialdeek nazioarteko lan banaketa sexualean betetzen duten lekuaz ere eztabaidatu dugu. Izan ere, banaketa horrek gure arteko emakume askori mafiek eta turismo enpresek kontrolatutako prostituzioa baino ez die uzten. Brasilen, ezkerreko parlamentari batek esan zuenez, badugu turismoaren hazkunderari lagun diezaiokeen abantaila bat, gure ordainketa-balantza gaixoarentzako diru iturri bikaina. Haren esanetan, feminismoak ez ditu gure emakumeak kutsatu europarrak bezala, eta, beraz, prestdaude men egiteko —edo, hitzak leunduz, joko sexualerako—. Ezberdintasun erlazioek eta salerosketek ezaugarri utako sexualitatea: joko horretan gehien ordaintzen duenak irabazten du beti. Jakina, gure hausnarketek eta ekimenek kontuan hartu beharreko gaia dugu hori ere.

Munduari buruzko gure begirada zabaldu behar dugu. Horrela bakarrik galdetu ahal izango dugu seriozki zergatik hedatzen ari diren kontserbadorismoa eta emakumeek beren gorputza kontrolatzeko eskubidearen aurkako eraso, sexualitatearen alorreko itxurazko permitibitatearen ondoan —prostituzio eta pornografia merkatuaren hazkunderarekin—. Emakumeen gorputzaren gaineko kontrolerako ildo berriez hitz egin dugu; edertasun eredu zorrotzen inposaketa esaterako. Latinoamerikan esangura jakin bat du horrek: kirurgia plastikoaren, silikonaren, hormona sintetikoen erabileraren hazkundera. Hormona horiek, gainera, agrotoxikoak eta hazi transgenikoak ekoizten dituzten «bizitzaren industria» berberak merkaturatzen dituzte. Gizarte mugimenduen artean saia genitzakeen elkarrizketa eta lotura adibideak baino ez dira horiek, ez baitira oraindik gauzatu, ezta Munduko Gizarte Foroa bezain elkartrukerako esparru zabalean ere.

Ezkerrak ez du erantzuten kontserbadorismo moralaren hazkuntzaren aurrean, ezta hautematen ere diskurtso horiek dakartzan arriskuak. Feminismoari eta belaunaldi politiko berriari buruzko gure bulegoan, italiar emakume gazteek beren herrialdean puri-purian dagoen antiglobalizazio mugimenduak (feministen sektore batek ere osatutako mugimendua) abortoaren eskubidea auzitan jartzen duten lege proposamenen inguruan gordetzen duen isiltasunaz hitz egin dute.

Agian arrazoi horregatik jarri zuen auzitan Europako Gizarte Foroan gure kide batek —feminista historikoa bera— mugimendu mistoekiko aliantzei eman izan diegun zenteltasuna. Haren ustez, 1970eko hamarkadan ere antzeko zerbait egin genuen, eta emaitzak ez ziren nahi bezain onak izan. Zehazkiago, baldintza berriak proposatu behar dira, eta hauxe da horietako bat: ezkerrak eztabaida eta antolakuntza-esperientzia askotarikoetara ireki behar du. Munduko Gizarte Foroa eta Gizarte Mugimenduen Mundu Sarea bestelako erlazio mota posible bat bilakatzeko esparru gisa eraiki behar dira.

Feminismoaren baitako eztabaida

Badakigu elkarrizketa hori ez dela botere berdineko pertsonen artean gertatzen. Gizartean dauden genero mailako erlazio ezberdinek mugimenduen funtzionamendua baldintzatzen dute. Erlazio horiek iraultzeko, emakumeentzako kaltegarria den indar korrelazioa aldatu behar da, emakumeak subjektu kolektibo gisa indartuz. Foro-ko paneletako elkarrizketa batzuetan ikusi ahal izan dugu generoari buruzko hautemateren bat daukaten gizonak, normalean, emakumeen autoantolakuntzarako moldeak edo mugimendu feminista indartsu eta aktiboak dituzten herrialdeetatik datozenak direla. Badakigu guk, feminista gisa, ezkerrari interpelatzeko dugun ahalmena, antolatuta, aztertu eta mobilizatzeko dugun ahalmenarekin zuzenean lotuta dagoela. Emakumeen Mundu Martxak asko indartu gaitu zentzu horretan.

Latinoamerikan, bederen, Emakumeen Mundu Martxak mugimendua hauspotu du eta historikoki feminismoaren erabaki estrategikoetatik at zeuden sektoreak taxutu ditu. 1980-90eko feminismoaren sektore hegemonikoek ibilbide instituzionalizatzailea ezarri zuten, eta horren ondorioz ahuldu ziren feminismoaren agenda eta antolakuntza moldeak.

Sektore horiek lehentasuna eman diote emakumeen eskubideen ikuspegi normatiboari. Legegintza lehenetsi dute, bereziki nazioarteko konbentzioetan eta baita nazio mailako beren joan-etorrietan ere. Duela gutxi arte, nazioarte mailan aritzeko beren esparrua Nazio Batuen Konferentziak eta prestaketa eta balantze mailako beren jarduera etengabeak ziren.

Esparru horretan zerbait lortzeko ekintza-metodoa *lobby*-a da; diplomaziaren mintzairak eta «generoari buruzko adituek» indar gehiago dute ehunka emakume antolatuk baino. Era horretan, emakumearen erabakimen eskubide gisa ulertutako abortoaren legeztatzearen alde borrokatzeari utzi genion, horren ordeztatik soilik osasun publikoaren esparruko arazo gisa baimenduta dagoen aborto kasuen hedapena errebindikatzera pasatuz. Testuinguru horretan, bizitzaren aldeko kontserbadoreek beren argudioen multzo osoarekin erasotzen zuten feministen mugimendu partzial eta etapista bakoitza. Gaur egun, defentsiban jarrita gaude borroka horretan, eztabaida berriro ere gizartearen kokatzeko moduak aurkitu nahian.

Emakumeen aurkako bortizkeriaren aurreko borroka ahuldu egiten da, bortizkeria hori familia barneko bortizkeriaren esparruaren barnean txertatzearen ondorioz; izan ere, esparru horretan, familiaren mantenuak segutasun pertsonalak edo emakumearen autonomiak bezainbeste —edo gehiago— balio du.

Azkenik, historikoki auzi ekonomikoak ez-feministatzat jo zituzten sektore horiek beren agenda zabaldu zuten: gai horiek pobrezia leuntzeko markoetan sartu zituzten, eta ez errenta banaketaren egitura desorekatua gaitzeko markoetan. Horrexegatik esaten dute horietako askok globalizazioak eta nazioarteko merkataritzaren haz-

kundeak alderdi positiboak dituztela emakumeentzat, lan egiteko aukera berriak eskaintzen dizkietelakoan.

Emakumeez ari bagara, hainbat egoeratan, lan baldintzak kaskarrak eta soldatak eskasak izan arren, familieren baitan negoziatzeko egoera eta ahalmen pertsonala hobetzen dute. Hala ere, osotasuna kontuan hartuz gero, nazioarte mailan honako lan banaketa ikus genezake: herrialde aberatsetako enpresen matrizeek lan intentsoa, kronometratua, lanegun luzeak, osasunarentzako produktu kimiko kaltegarriak biltzen dituzten etapa eta lantokiak igortzen dizkigute herrialde txiroetara.

Eta nazioarteko banaketa horri lanaren sexu banaketa jakin bat eransten zaio, inola ere ez ustekabekoa. Emakumeak aldi baterako kontratuen malgutasunera egokitzen dira; izan ere, batzuetan lanegun luzeekin dihardute eta beste batzuetan etxera itzultzen dira hango betebeharrugariak burutzerara. Emakumeak lan intentso eta zorrotzera egokitzen dira, gure gorputza ez baita soilik ugalketarako moldatzen eta kontrolatzen, baita bestelako eginkizun eta jarduera jakin batzuetarako ere.

Globalizazio neoliberala errefusatzen dugu gure emakumeei eta gure herrialdeei lanaren nazioarteko eta sexuaren araberako banaketa horretan esleitzen dien lekua-rengatik. Lan banaketa hori, gainera, truke desorekatu eta bidegabean oinarritutako nazioarteko merkataritza batekin batera dator.

Feminismoaren sektore horiek ere badaude MGFn; baina, hala ere, estrategia feministari eta gizarte mugimenduekiko harremanei buruz duten ikuspegia gure arren bestelakoa da. Cuencan (Ekuador), 2002ko azaroan, «Ameriketako emakumeen topaketa Porto Alegrerantz» izan zen, Munduko Gizarte Foroan parte hartzen duten feministen eztabaidagune gisa antolatuta. Eskema sinplista bat erabiliz, ALCaren aurkako borroka lehenesten dutenen eta aerio nagusizat fundamentalismoak —eta fundamentalismo katolikoaren hazkundera— jotzen dituztenen artean kokatu zen eztabaida.

Gure ikuspuntutik, oposizio hori faltsua da, ez baikaude emakumeen eskubideak erasotzen dituzten kont-


serbadorismoen eta Eliza Katolikoaren jarreren aurkako salaketa eta borrokaren kontra. Kontserbadorismo horren hazkunderaren esparrua definitzean datza auzia. Alegia, lan-esplotazio tasen hazkunderako ideologia eta estrategiek —sexismoa barne— nola bat egiten duten, metaketa kapitalistaren ziklo berri bat inposatuz (erresistentziak direnak direla).

Azkenean ondorioztatu genuen legez, horiek guztiak dira feminismoaren baitako estrategia desberdin eta legitimoak; eta, agian, horrela mugimenduaren eraikuntzan aurrera egin genezake, ikusmolde nagusiaren ildoari jarraitzen ez dioten emakumeak ez-feministatzat jo beharrik gabe.

Gure antolakuntzaren indartzea

MGFn, beste mugimenduekiko gure erlazioa eraikitzeaz gain, geurea bera ere eraikitzen dugu, Emakumeen Mundu Martxa. Antolatzen ditugun bulego eta mintegiak gune garrantzitsuak dira, baita gure agerpen antolatua manifestazioetan ere. Paseoak konfiantzazko harremanak, aliantzak, eraikitzeko lekuak dira. Horietako lehenengoan, gazteen kanpamentuarekin eta gay eta lesbianen mugimenduarekin batera antolatu ginen. Bigarrenean, gizarte mugimenduek antolatutakoan, gerraren eta ALCaren aurkako borrokan finkatu genuen feminismoaren agerpena. Aurretiko lan handia izan genuen zintak eta pankartak josten eta gure elementu erakusgarriak prestatzen. Gure danborrak gozatu genituen eta esloganak asmatu genituen, ez soilik munduaren bestaldeko inperialismo eta matxismoaz hitz egiteko, baita gure eguneroko bizimoduaren jasaten dugun matxismoa aipatzeko ere. Gure bulegoak irudi sexistak zituzten publizitate-kartelen bitartezko parte-hartze kritikoa proposatu ondoren, emakume gazteek paseo bat egin zuten gazteen kanpamentuan hauxe baieztatu: «emakume gara, ez merkantzia».

Emakumeen Mundu Martxako kideok itxaropen handiak ditugu Munduko Gizarte Foroan eta Gizarte Mu-

gimenduen Sarean, eta gure itxaropen horien neurira egin dugu lan horiek eraikitzen. Estrategia komunak eratzeko erronka MGFren hurrengo aldietarako gordetzen dugu oraindik, eta gure analisi eta alternatibak etengabe berrikustera behartzen gaitu. Munduaren larrialdiek egunez egun areagotzen dituzte mugimenduen mugimendu honen erantzukizunak. Eta gu martxan jarri gara...

Palestina eta gizarte mugimendua: elkartasuna sendotu eta... gainditu!



NAHLA CHAHAL



*m*undializazio neoliberalaren aurkako erresistentziak bere adierazpideak eta antolakuntza moldeak asmatzen ari da gaur egun. Eta hori guztia oso berria da. Arabiar munduan gutxi ezagutzen da erresistentzia hori, baita bere adierazpide eta formak ere. Ez dago ezezagupen horrentzako zio bakar edo sinplerik; aitzitik, hainbat elementuren konbinaketak arazoitzen du hura. Ezezagupen horrek, batez ere, zera erakusten digu: ekonomia ez ezik gizarte egiturak, kultura, bizitza politiko eta intelektuala eta horiekin guztiekin lotutako fenomenoak oro munduaren zati honetan jasaten ari diren birrintze maila. Egun, arabiar munduan, batetik hustasun anitz eta zabala dago, eta bestetik Ameriketako Estatu Batuen jomuga bereziki izatearen sentimendu indartsua. Uste orokorraren arabera, AEBak arabiar mundua menperatzen saiatzen ari dira. Gainera, asmo horrek hegemonia politiko eta ekonomikoaren xedea gainditzen du, eta asmo existentziala bilakatzen da. AEBek maila guztietan hartutako erabakiek —eta horietatik eratorritako ekintzek— sentimendu hura berri eta sustraitzea baino ez dute lortzen behin eta berriro.

▮ **Nahla Chahal** libanoar soziologoa da, palestinarren aldeko CCIPPP taldearen sortzaileetako bat.

Egoera horren aurrean, arabiar munduan agertzen diren autodefentsa eta erantzun erreakzioak ez dira beti konstruktiboak. Han behean nahas-mahas azaltzen diren jarduera politikoen artean nagusi dira etsipena, mendeku egarria, baina baita intsumisioa nabarmentzeko borondatea ere. Iraken aurkako gerrak eta herrialde horren okupazioak paisaia hori guztiz baieztatu baino ez dute egin. Irakek leku berezia betetzen du arabiarren kontzientzia kolektiboaren baitan, historiaren eraginez, baina baita bere botere ekonomikoagatik eta gaitasun sozial eta kulturalagatik ere.

Bestaldetik, Iraken aurkako gerrak —eta kolonialismo kutsua hartu duen okupazioak— palestinar herriari egingdako injustizia nabaria berpizten du. Antzeko arazoak topatzen dira modu berean arabiar munduko beste zatietan, baita estatutu orokorra, kultura eta tradizioak dituzten subjektuengan ere. Osotasun horrek arabiar munduak benetako paradoxa bizi duela erakusten du: batetik, neoliberalismo globalizatuaren erasoaren bihotzean dago, eta, bestetik, kanporatua sentitzen da, erruduntzat eta diferentzetat hartua. Gainera, Irailaren 11k gorpil zoro hori larriagotu du.

Horra zerk esplikatzen duen, partzialki bederen, Munduko Gizarte Foroaren baitan adibidez palestinar auziak bete beharko lukeen funtsezko lekuaren eta benetan betetzen duen bazterreko lekuaren arteko desfasea. Gauza bera irakiar auziarentzat, gerraren arazoaren esparruan orokortuta jorratzen baita. Zerikusirik ez MGfK Vietnamgo gerraren garaian existitu izan balu hartuko zukeen jarrerarekin!

Eta, beraz, kausaren justiziatik haratago, palestinar auzia mundu osoari dagokion eta globalizazio neoliberalaren aurkako erresistentziaren mugimenduari interpelatzen dion arazo bat baino ez da. Palestinar herriak kolonialismo mota jakin bati egiten dio aurre, non diskriminazio askotarikoak, lurren eta bestelako baliabideen konfiskazioak, indarkeria errepresiboak nahasten diren. Horrek guztiak herri horren existentziaren eta eskubideen erabateko ukazioa dakar. Israelek Nazio Batuek Palestinari

buruz hartutako ebazpen guztiak urratu eta nazioarteko hitzarmen guztiak iraintzen ditu. Israeldar buruzagiek behin eta berriro baieztatzen duten legez, Mendebaldea deitzen duten horren —ez baita kapitalismoa bere molde-rik bortitzenean baino— abangoardia-postua errepresentatzen dute. Gainera, Israel biziki inplikaturata dago multinazionalekin, batik bat goi teknologia eta armamentu ekoizleekin. Zentzu batean, AEBek munduan zehar beren eraso hegemonikoa justifikatzeko gaur egun plazaratzen duten ideia horren aitzindaria da Israel: jakina, gerra prebentiboaz ari gara. Dena dela, gerraren kontzeptua planeta kudeatzeko lanabes gisa planteatzen da. Ikuspegi horren korolariora hauxe dugu: gizarte bakoitzaren baitan aplikatzen diren segurtasunezko ikusmoldeak eta tresna polizial eta errepresiboak jotzen dira neoliberalismo globalizatuaren aurrerakadak eragindako hondamendien inguruko arazoei aurre egiteko modutzat.

Iraken aurkako gerra printzipio horien izenean sustatu da. Zuzenean eta anbiguotasunik gabe iragarri da. AEBek adibide kutsua eman diote gerra horri, eta Iraken ezarritako sistema gainerako Ekialde Hurbil osoarentzako eredu bihur dadin nahi dute. Asmo horiek edozein izanda ere, egia da gerra hori, eta Iraken okupazioa, etapa garrantzitsua direla pentsamendu eta estrategia neoliberalaren bila-kaeraren baitan. Egitasmo zehatzago baten pean, gertakari horrek Asia eta Europako ekonomien osotasunaren gaineko —eta munduko petrolio baliabideen gaineko— amerikar bahimendua indartzeari lagunduko dio.

Zio horiengatik, Palestina eta Irakeko auziek Munduko —eta kontinenteetako— Gizarte Foroek orain arte eskainitakoa baino arreta handiagoa merezi dute. Ez da, besterik gabe, elkartasun kontua. Auzi horiek gure mobilizazioen bihotza ukitzen dute eta horien funtsezko zati dira.

Arrazoi horrexegatik, auzi horiek ezin dira konpondu munduko herritarren nazioarteko esku-hartzearen indarra alde batera utzita. Palestinan, aurrez aurre dauden horiek ez dira kopuruz gutxi gorabehera berdinak diren bi herri. Israelek adiskidetzeko borondate handiagoa erakutsiko luke baldin eta AEBen neurrigabeko babesa izango ez balu.

Mugarik gabeko babes ekonomiko, logistiko eta militarra, eta Israel nazioarteko ohiko harremanetatik kanpora uzten duen babes politikoa. Palestinar herriak ezin du inola ere era horretan eraikitako indar-oreka bat bere kasa desegin. Nazioarteko dimentsioa berezkoa zaio egoerari. Horrexegatik da ezinbestekoa auzi honetan, beste edozein borroka kasutan baino areago, mugimendu inkonformista eta iraultzaileen elkartasuna.

Baina helburua ez da elkartasuna azpimarratzea, borrokan bertan txertatu beharko litzateke hori bera, borroka horrek hartzen duen dimentsio berri bat bilakatu.

Idea horrek bultzatu gaitu Palestinar Herriaren Babesaren aldeko Nazioarteko Kanpaina Zibila sustatzera (*Campagne Civile Internationale pour la Protection du Peuple Palestinien*, CCIPPP). Mugimendu horrek Palestinara «misio zibilak» igortzen ditu, hau da, milaka herritar gaur den egunean. Antolatzen dituzten behaketez eta testigantzez gain, elkartasun ekitaldietan edo lekuan lekuko babes jardueretan parte hartzeaz gain, herritar horiek, beren ekimenaren poderioz, hauxe uzten dute agerian: itzelezko espoliazio eta errepresio makina baten aurka palestinar herriak daraman borroka ikusirik, premiazkoa da nazioarteak borroka horretan herri horren ondo-ondoan esku-hartzea. Nazioarteko komunitateak parte hartu beharko luke egoera horretan, lehenik —hasteko— palestinar herria babesteko, eta ondoren haren eskubideak atzera ematea aldarikatzeko. Baina instantzia ofizialek, konplize ez direnean, etsi egiten dute eta ez dira gauza ezta beren ebazpenak aplikatzea exijitzeko ere. Hori dela eta, bestelako mundu posible baten alde borrokatzen duten guztiek hortxe egon behar dute, ez soilik kausa hori babesten, baita, babesa gainditzeko, bertan parte hartzeko bitartekoak aurkitzen ere. Baldintza horietan soilik topatu ahal izango du palestinar auziak bidezko amaiera. Eta gauza bera irakiar auziari buruz. Baldintza horietan soilik lortu ahal izango dute arabiar herriek AEBek sartu nahi dituzten geldialditik ateratzea, horrela soilik batu ahal izango dituzte beren indar eta eskumenak munduko gainerako herri guztienekin. ♪

India 2004. Munduko Gizarte Foroaren globalizazioa



ERIC TOUSSAINT



*m*unduko Gizarte Foroa, gaur egun, metatuz joan diren hainbat esperientzia aberasgarriren batura da: 2001ean 12.000 parte-hartzaile izatetik hirugarren aldi honetan 100.000 izatera pasatu da. Prozesu horrek mundu mailako dinamika berritzailea taxutzea ahalbidetu du. Eta, bide batez, dinamika hori kontinente batzuetan oso modu sakonean sustraitu da, batik bat Latinoamerikan eta Europa Mendebaldean. Asian eta Ipar Amerikan eragin ahulagoa izan du, eta askoz txikiagoa Afrika eta Europa Ekialdean.

MGF Asiaratuz

Foroa 2004an Asiara eramatea, hau da, MGF «asiatizatzea», funtsezko urratsa da. Asiak munduko biztanleriaren erdia baino gehiago hartzen du. Mundu mailako aldaketak neurri handi batean kontinente horretatik pasatuko dira. Ez dugu ahaztu behar Europa Mendebaldeak eta Latinoamerikak munduko biztanleen %15 baino ez dutela hartzen.

Hasi zenetik eta orain arte, MGF batik bat europarra eta latinoamerikarra da, eta izaera horrek bere funtsezko

► **Eric Toussaint** belgikar idazlea da, CADTM (*Comité pour l'Annulation de la Dette du Tiers Monde*) taldeko zuzendaria.

ezaugarriak baldintzatzen ditu. Leku aldaketak lan egiteko moduaren aldaketan ere eragingo du, hitza hartuko duen jende motarengan. Orain arteko hiru foroetako hizlari gehienak beti berak izan gara, hitzaldiak banatu ditugu. Oso auzi zehatzen bozeramaile eta adierazpide gara (Hegoaldearen zorra, ura, mundializazioa, hedabide alternatiiboak, gerraren aurkako borroka, emakumeen borroka, elikagai subiranotasuna...). Indiara aldatzeak berrikuntza ahalbidetuko du jarraitasunaren baitan. Arazoak ukitzeko eta auziak jorratzeko modu berri bat. Osagai gehigarri garrantzitsu batekin: gizarte mugimenduek garapen maila handia dute herrialde hartan.

Oso gutxi ezagutzen da gizarte dinamika hori, baina sekulako gizarte mugimenduak dituzte. 50 milioi laguneko nekazari erakundeak. Erakunde sindikal oso garrantzitsuak, industrian, zerbitzu publikoetan, arrantzan... Eta globalizazio neoliberalari atxikitako auzi nagusien inguruan mobilizatu diren eragileak dira horiek. Inbetsioen Munduko Hitzarmenaren aurkako indiar nekazarien borroka; transgenikoen aurkakoa; Monsanto bezalako multinazionalen aurkakoa; multinazionalen sustatutako Narmada ibaiko bezalako egitasko energetikoen aurkakoa... Multinazionalen arduragabekeria kriminalari aurre egin dioten herritarrez ari gara. Esaterako, Bophalgo Union Carbide-ren adibidea dugu: duela hamar urte baino gehiago, produktu oso toxikoen erabilpen bereizi gabearen ondorioz, 15.000 lagun baino gehiago hil ziren.

Horrela, bada, Foroa Indiara eramatea, batik bat, esperientziak trukatzeko abagunea da, Foroa ren dinamika munduko lurralde oso sentiberatan gertatzen diren gizarte prozesu aberatsetan sustraitzeko aukera.

Foroaren jarraitasuna ziurtatzeko antolakuntza gaitasunari dagokionez, beste kontinentei ezin diegu eskatu Porto Alegreko MGFren azken aldiaren lortutako bera egitea edo hobetzea. Baina ez dezagun ahaztu 2001ean 12.000 parte-hartzailerekin hasi ginela. Normala litzateke, beraz, eta oso ona, Indian 2004an 30.000 parte-hartzailerekin hasia... Azpiegitura aldetik, oso desberdina izango da. Ez dugu udalerrri edo lurralde mailako gobernuen sostengu-

rik izango, Porto Alegreko prefekturarekin edo Rio Grande del Sur eskualdeko gobernuarekin gertatu bezala. Ekimen eta sare militanteei gehiago eskatu beharko zaie. Eta ziuraski orain artekoa baino erosotasun txikiagora egokitu beharko dugu.

Indiako MGFren antolatzaileek fundazio handien dirua ez onartzea erabaki zuten. Porto Alegreko MGFren azken aldiak Ford Fundazioaren ia milioi erdi dolarreko diru laguntzaren babesa izan zuen. Ikuspuntu berri hori interesgarria iruditzen zait, azpiegitura bakun eta xumeagoak izatera behartuko baikaitu. Baina Porto Alegre aurretik Chiapasen bildu ginen 1996an Neoliberalismoaren aurkako eta Gizateriaren aldeko Lehen Topaketetan parte hartzeko, Lacandona oihanaren erdian, eta prozesu horren hasiera oso aberatsa eta interesgarria izan zen.

Berririo diot: gizarte mugimenduen arteko elkartrukea ahalbidetuko duen ekitaldi bat ziurtatzeko indiar lankideek duten gaitasunaz ez dut zalantzarik. Ekitaldi horrek, gainera, mugimendu horien etorkizuneko agenda erabaki beharko du, eta baita mugimenduon ordezkaritza eta beren arteko koordinazioa indartu ere. Prozesu arrakastatsua izango da eta denok aterako gara bertatik indartuta.

MGFren mobilizazio planetarioak

2004ko urtarril edo otsaileko Munduko Gizarte Foroa baino garrantzitsuagoak dira, dena dela, 2003an zehar burutuko diren ekimen eta borroka guztiak: lehenik, gerraren aurka; ALCaren aurka (Ameriketako merkataritza librerako eremua); GATSren aurka (Merkataritza eta Zerbitzuei buruzko Akordio Orokorra); zorra baliogabetzearen alde; Nazioarteko Diru Funtsarekin sinatutako hitzarmenak haustearen alde; Munduko Merkataritza Erakundearen aurka.

Eta 2004ko MGFren bilera bera baino are garrantzitsuagoa izango da lurralde eta kontinente mailako foroaren prestaketa-prozesua eta bilera. Ekimen guztiak behetik elkar lotuz, lekuan lekukotik esparru globalera, mobilizazioak

piztuz. MGF Davosko Ekonomi Foroaren alternatiba gisa sortu zen, gogoeta gune gisa. Lehen fasean ez zen aintzat hartzen mobilizazioak deitzeko aukera. Jatorrizko ideia eztabaida foro bat eratzea zen. Porto Alegre III-n, oinarriko kontzeptua aldatu gabe, Davosekin batera urtero mobilizazio bat antolatzea erabaki genuenean —egun berean mundu osoan mobilizazio bat: «Neoliberalismoaren aurka, gerraren aurka, bestelako mundu bat posible da»—, aurrerapauso bat egiten ari ginen...

Inork ez zuen uste hasieran manifestazioak antolatuko genituenik. Aurreko otsaileko gerraren aurkako mobilizazio planetarioak, mundu mailan gerraren aurkako mugimendu kementsua eraikitzen lagundu dezakeen heinean, seinale oso esanguratsua da. Lehen aldiz gerra bat zilegitasunik gabe hasi da. Eta hori Florentziako Europako Gizarte Foroaren eta AEBetako bertako mobilizazioen emaitza baino ez da.

Gramscik deskribatutako historiako ezohiko une bat bizi dugu. Argi une bat, herritar gehienek kontzientzia mailan urrats erraldoiak egiten ari baitira. Bush, Blair, Aznar eta Berlusconi, adibide batzuk aipatzearen, sistemaren hipokrisia, zinismoa eta ankerkeria erakusten ari dira. Mundu osoko hainbat eta hainbat herritar sistema horren aurka politizatzen ari dira arrapaladan.

Beste manifestazio batzuk ere aurreikusten dira laster baterako: Eviango G8 bileraren aurka maiatzaren 28tik ekainaren 3ra, Munduko Merkataritza Erakundeak Cancunen 2003ko irailean zehar egingo duen bileraren aurka... Ikusten denez, prozesu honetan, ia-ia hilero halako ekimenen bat ageri zaigu.


Gerraren aurkako mobilizazio hori ez zen sortuko Florentziakorik gabe, eta hori ez zen antolatuko Porto Alegrikerik gabe. Florentzia Europa mailako deialdia izan zen, baina gero mundu mailako protesta bilakatu zen. Jakina, hau guztia hainbat bat-etortzearen emaitza da, 2001ean Porto Alegren baino lehenago hasitako prozesu batzuen fruitua. Baina Porto Alegre ardatz bateratzailea bihurtu zen, autodeterminazio dinamikaren abiapuntua. Mugarik gabeko prozesua. Abian diren ekimen hauetara guztietara irekita

egon behar dugu, logika eta kultura politiko berrietara irekita. Prozesu hori zentripetoa da: mugimenduen mugimenduaren ozeanorantz doazen ibai askok osatutako prozesua. Kapitalismoa eta patriarkatua oso ongi bat egiten duten eta planetaren arazo larrienen sustraian dauden bi sistematzat hartzen dituen prozesua.

Mugimenduen mugimendu horretan, dena dela, zenbait tentsio ere azaldu dira Porto Alegren gizarte mugimenduen eta Foroaren artean, azken agiri sintetiko batera iristeko gizarte mugimenduen proposamenaren inguruan. Nire ustez, Foroan dinamikan gizarte mugimenduen eragina haziz joan da, sindikatuak edo konfederazio sindikal tradizionalak ere aintzat hartuta. Mugimendu horiek gero eta itzal handiagoa dute, hasiera batean GKEek eta hedabide alternatiboek (*Le Monde Diplomatique*, kasu) ekimean funtsezko eginkizuna bete zuten neurri berean. Joeira horren aldekoa naiz. Alde batetik, gizarte mugimenduek ez diete MGFrekin identifikatzen diren gainerako parte-hartzaileei aurrera egiteko ildoan inposatu behar. Baina, bestetik, oso positiboa da ikustea benetako gizarte oinarria duten erakundeek —benetako borrokak sustatzen dituztenek— funtsezko zeregina dutela mugimenduaren baitan, horregatik gainerakoak baztertu gabe. Areago, ziur naiz prozesu hori mundu osoko herritar mugimenduetara ireki ahal eta behar dela.

Mugimenduen mugimendu bat indartzen ari dela nabaritzen dut. Ez da biltze edo bat-etortze soila, hori baino zerbait gehiago da. Hor ez dago zuzendaritza zentralizaturik. Baina, hala ere, mugimenduen mugimenduaren esparru egituratu bat ari da indartzen. Gertakari hori berria da. Europaren kasuan, adibidez, onartu behar dugu Florentzia, iazko azaroan, europar gizarte-mugimenduen sortze-agiria izan zela. Kontinente mailako zenbait kanpainatan izan zituen aurrekariak (zorria baliogabetzeko, langabeziaren aurkako europar martxak, Europa mailako grebak —trenbideetako langileak, kasu—...). Baina ez zen inoiz halako mailarik lortu. Zoragarria benetan!¶

Gaiak



IÑAKI IRIARTE LOPEZ

Eduardo Sanz y Escartín eta
«anarkismo intelektual»
Nietzscheren harreraren inguruan

77

Eduardo Sanz y Escartín eta «anarkismo intelektuala»

Nietzscheren harreraren inguruan



IÑAKI IRIARTE LOPEZ



*h*istorian zehar anitz eta anitz dira behin batean ospea eta garaikideen errekonozimendua lortu zutenak eta ondoren, urteen eraginez, erabateko ahazmenean erori zirenak. Horixe da, preseski, Eduardo Sanz y Escartín-en kasua. Gaur gutxi izanen dira dakitenak nafar honek erdaraz agertu zen Nietzscheri buruzko lehen saioa idatzi zuela 1898an, hots, filosofo alemana oraindik bizirik zegoenean. Bitxia bada ere, Euskal Herriko unibertsitate publikoetan, soziologia ikasketak irakasten badira ere, ia ez dago bere garaian hain famatua izan zen soziologo honen libururik —eta Nafarroakoan batere ez. Bere aldetik, Lur Entziklopediak ez dio aipamenik egiten. Artikulu hau irakurri eta gero baten batek pentsa lezake egile honi buruzko gaurko ezezagumena guztiz merezia dela. Baliteke. Nietzschek berak iradokitzen zuen eran, dedikatuko bagina gogoraterat mendeetan zehar pasatu diren autore guziak, ez genuke inoiz astirik izanen gure ideia propioak garatzeko. Edozein delarik, eta behinik behin «Jainkoaren heriotzaren» filosofoaren harrera zerbait gehiago ezagutzeko, mereziko du nonbait zer edo zer jakitea Sanz y Escartínen gainean.

► **Iñaki Iriarte Lopez** EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea da.

Bizitza eta obra

1923 arte, Eduardo Sanz y Escartínek ibilbide txundigarria izan zuen. Iruñean jaioa 1855ean; bigarren mailako irakaskuntza Uztaritzen egin zuen, non frantsesa ikasi zuen. Gaztaroaz, urte batzuk dedikatu zituen Hego Amerikatik ibiltzerat, eta abenturaz. Espainiarat itzulia, 1876an, Filosofia eta Letrak eta Zuzenbidea estudiatu zituen Zaragozako Unibertsitatean. Gainera, ingelesa eta italiara ikasi zituen. 1882an doktoratu zen Filosofia eta Letretan Madrilgo Unibertsitate Zentralean. Ordurako argitaratu zuen bere lehenbiziko liburua: *Ensayo crítico sobre el Imperio de Carlomagno*, 1879an, hain zuzen. Alderdi kontserbadoreko kidea, Eduardo Datoren korrontean kokatu zen. Horri esker kontuzko postu politikoak bete zituen, bertzeak bertze Valentzia, Madril zein Bartzelonako gobernadore zibilarera. Horrez gain, *Instituto de Reformas Sociales*-eko presidentea izan zen, Zientzia Moral eta Politikoen Akademiako betiko idazkaria, Nazioarteko Soziologia Institutuko presidentea, Espainiako Bankuaren gobernadorea eta 1921eko martxo eta iraila bitartean Lan ministroa. Hori den hori gutxi balitz, 1903 eta 1923 artean senatore izan zen aipatutako Zientzia Moral eta Politikoen Akademiaren ordezkartzan. Primo de Riveraren kolpearekin, gure egileak politika utzi zuen. Halaber Sanz y Escartínek Lizarragako Konde titulua zeukan. Azkenik Donostian hil zen 1939ko maiatzaren 28an.

Bere ekoizpen intelektualari dagokionez, Sanz y Escartínek karrikaratu zituen hainbat liburu, garaian izen ona eta ospe aski erdietsi zutenak. Garrantzitsuenen artean aipa litezke honako hauek: *La cuestión económica*¹, *El Estado y la Reforma social*², *El individuo y la Reforma social*³ (hiru titulu hauek trilogia bat osatzen dute, bere obrarik nabarmenena), *Las asociaciones obreras y el catolicismo*⁴ eta *La educación moral*⁵. Haietarik bat, *El individuo y la Reforma social* izeneko hain zuzen, Auguste Dietrich-ek isuri zuen frantseserat, zabalkunde aski lortuz. Horra, banaturik izan zen Frantziako Lizeoetan⁶. Halaber, aipatzekoa da bertze liburutxo bat, *Algunas indicaciones acerca de la doctrina evo-*

*lucionista y su aplicación en las ciencias morales y políticas*⁷, zeinetan ikertzen zuen Darwinen eboluzionismoa. Horretan, eta bitxia bada ere, eusten zion teoria hau guztiz bateragarria zela erlijio katolikoarekin.

Sanz y Escartín «los Eclécticos» izeneko korronte filosofikoan kokatzen zen, Martín Mateos, Armesto eta García Ruiz bezalako egileekin. Eklektizismoak Frantzia zeukan sorrera eta funtsean XVIII. mendeko «sensualismoaren» (Locke, Condillac, etab.) aurkako erantzuna zen. Victor Cousin-ek fundatua, eklektizismoa iritsi zen izaterat Frantziako zein Espainiako filosofia ofiziala XIX. mendeko azken hamarkadetan, eta funtsean psikologian interesatutako positibismo moderatu bati eusten zion. XX. mendeak aitzina egin ahala desegin zen, jarraitzaile gehienak razionalismorat pasatuz.

Sanz y Escartínen aburu filosofiko eta politikoak

Nietzscheri buruzko liburuxkan sartu aitzin, argigarria izan daiteke zer edo zer jakitea gure egilearen koordinatu politiko zein filosofikoez. Bere militantzia kontserbadorea goiti-beheiti, Sanz y Escartín hagitz kezkatua zegoen klase langileen lazeria gorriaz. Kontzientzia txarren kontu hutsa litzateke, menturaz, baina egia da kezka hau konstantea dela bere pentsaera soziologikoan.

Marxen obra ezagutzen bazuen ere, Sanz y Escartínek jotzen zuen gizarte modernoaren arazo sozialen muina ez zetzala egitura ekonomikozko faktoreetan (errate baterako, etekin beherakorren legean, edo kapitala kontzentratzeko goranzko joeran) baizik eta faktore espirtualetan. Horra, *El individuo y la Reforma social* izeneko liburuan zioen eran:

Sin negar los sufrimientos de la pobreza, sería vano desconocer que nuestros males, antes son de índole moral que de carácter material, que son nuestras pasiones, nuestros desmedidos anhelos, nuestra carencia de firmes convicciones, el extravío de nuestros entendimientos y de nuestros corazones, lo que conturba y amarga nuestro espíritu.⁸

Ezaguna denez, pasioen papera gizarte arazo gisa oso elementu tipikoa da pentsaera kontserbadorean, gutienez Hobbesengandik; eta gero ikusiko dugun moduan pasioek parte hartuko dute ere Nietzscheren auzian. Bertzalde, Sanz y Escartínen aburuz, gizarte modernoek nozitzen zuten endekatze espiritualaren zioetako bat gehiegizko indibidualismoa zen. Bere ikuspuntutik, gizaki modernoek soilik pentsatzen zuten euren buruan, euren probetxuan, legetzat hartzen zuten euren desio eta nahien betetasuna, sistematikoki baztertuz interes orokorraren defentsa.

Ildo beretik, Sanz y Escartínek gogorki kritikatzten zuen klase jabedunen bilakaera erlijioso eta morala. Behin batean, Antzinako erregimenean, klase horiek behardunen babesle gisa funtzionatu zuten, miseria eta goseteak arinduz. Baina, garaiko jabedunek bertan behera utziak zituzten betebeharrak sozial horiek eta dedikatzen ziren langileak gupidarik gabe ustiatzerat. Jarrera egoista honek bultzatuta, pobrezian jaurtikita, etsita, klase langileak urruntzen ziren bertute kristaueetatik. Pixkanaka-pixkanaka erlijioa abandonatzen zuten eta horrekin batera hasten ziren ez konformatzen euren egoerarekin. Legeari errespetua galtzen zioten eta gizartearen aurkako ideiak hartzen zituzten. Baina, Sanz y Escartínentzat, guztiz erridikulua zen ugazabak aitz protestatzea honen kontra. Zeren eta azken finean eurek ziren egoera honen arduradun nagusiak. Puntu honetaz gure egileak ez zuen erreparorik eduki hitzez hitz honakoa idazteko: «anarkismoa plazera helburu nagusitzat duen estatu sozial baten fruitu legitimoa da»⁹.

Marxek bere *Kapitala*-ren lehen liburuan egiten duenaren antzera, Sanz y Escartínen erreforma sozialaren gaineko trilogiak barne hartzen ditu adibide aitz langileen bizi-baldintza gordinez. Bere xedea da ukatzea *laissez faire* delakoaren doktrina ekonomikoak, eta batzuetan arras iritzi gogorak adierazten ditu. Horra, aztertzen duenean haurren esplotazioa Europako zein Amerikako fabriketan, Fielden sozialista iraultzailearen zita bat bereganatzen du praktika honen kontra: «Los beneficios del capital se compran con la vida de la niñez; nuestra prosperidad industrial está fundada sobre el infanticidio»¹⁰.

Are gehiago, Lizarragako Kondearen aburuz, garaiko sistema politiko-ekonomikoa abiatzen zen onartu ezinezko falazia batetik. Alde batetik, zioen askatasuna zela abiabururik garrantzitsuena, bizitza sozial zein politikoa-ren ardatza. Baina hori teoria hutsa zen, zeren gero maiz aski klase langileek zuten askatasun bakarra «gosez hiltzeko askatasuna» baitzen¹¹.

Itxuraz, adierazpen hauek nahiko harrigarriak irudi dezakete, batik bat aintzat harturik kontserbakor bategandik datozela. Era beretsuan, Sanz y Escartínek ez zuen inongo erreparorik kolokan paratzeko aberastasunaren jatorria, gutxienez kasu batzuetan, erranez moralik gabekoa eta zuzengabea zela. Honi doakionez hagitz argigarria da *Las asociaciones obreras y el catolicismo* izeneko liburua n egiten duen hurrengo hausnarketa:

(...) nunca, como hoy, se había fundado el negocio en el engaño; nunca, como hoy, se había considerado lícito abusar de la debilidad y de la ignorancia; nunca, desde la caída del Imperio romano, el trabajo manual se había visto en mayor dependencia, en más triste inseguridad.¹²

Zita hauek pentsarazi diezagukete Sanz y Escartínek begikotasunen bat sentitzen zuela sozialismoarekiko. Baina ez da inolaz ere hala. Are gutxiago. Gure kondeak irmoki egiten zien uko grebei zein klase sindikatuen ekintzei. Bere ikuspegitik doktrina sozialisten garaipenak, arazo sozialak ez konpontzeaz gain, ekarriko luke pobrezia eta menpetasun gehiago. Izan ere, uste zuen sozialismoak irudikatzen zuela indibidualismo modernoaren inbertsio bat: egoismoaren ordezkolektibismo purua ezartzen zuen. Eta azken hau indibidualismoa bezain kaltegarria zen. Edo are gehiago, zeren praktikan horrekin batera baitzetozen autoritate, erlijio eta aztura onekiko erdeinua. Aipatu berri dugun testuan dioen moduan:

El ahorro, la sobriedad, la resignación, el respeto a la ley, la obediencia a las autoridades constituidas, lejos de ser para el socialismo virtudes, son verdaderos defectos.¹³

Baina, sozialismoa kritikatzeko bazuen ere, Lizarragako Kondeak are gogorrago gaitzesten zituen ideia anarkistak.

Hauexek irudikatzen zuten perbertsiorik perbertsioa, eromenik eromena, gaixotasunik gaixotasuna. Hitzez hitz:

El anarquismo es (...) una protesta insensata contra toda organización social, contra toda autoridad moral o material, contra toda regla que no sea la pasión o el deseo; es la negación de todo orden, un estado verdaderamente morboso, sintomático de graves dolencias en la actual constitución de las sociedades.¹⁴

Izan ere kontsideratzen zuten anarkismoa azken muturreraino eramano indibidualismo modemoaren agerpena zela. Ez jainkorik, ez legerik, ez moralik. Hori bera zen akraten leloa. Deusek oztopa ez zezala desio egoisten betetasuna. Anarkistak eta burges hedonistak bereizten zituen partikularitate bakarra jabetza kontua zen. Burgesentzat eskubide sakratua zen bizkitartean, anarkistek —agian, koherentziarik gabe— errefusatzten zuten, erranez gizabanakoaren askatasunaren aurka zihoala. Gure egilearentzat, hedonismo burgesa eta anarkismoaren arteko hurbiltasun hau ez zen batere kasuala. Nola edo hala islatzen zuten zein zen mundu modernoaren arazo ororen iturburua: zentzu erlijiosoaren galera.

Hau errana, konprenituko da Sanz y Escartínek pentsatzea arazo sozialen konponbidea etorri behar zuela erlijioaren berreskurapenetik. Honi dagokionez, nabarmena da Leon XIII.aren *Rerum Novarum* izeneko entziklikaren ukalondoa bere pentsamenduan. Ezaguna denez, 1891ko entziklika honek «katolizismo sozialaren» oinarriak paratu zituen. Laburki errana, bertan proposatzen zen langileen lan baldintzen hobekuntza kapitalismoaren humanizazioa erdiesteko asmoz. Alta, jotzen zen jabetza pribatua guztiz legitimoa zela eta, zentzu honetan, gogorki kondenatzen ziren hura ezabatzeko saiakerak. Sanz y Escartínen hurbiltasuna *Rerum Novarum*-ekiko argi eta garbi geratzen da «entziklika miresgarriari» egindako zita ugarietan. Halaber, gure egileak maiz aski zitaten ditu Leon Harmel (*Manual de una corporación cristiana* liburuaren autorea) eta Leroy Beaulieu (*El colectivismo* liburuarena) bezalako egile katolikoak.

Edozein delarik, Lizarragako Kondearen kapitalismoaren onarpen orokorra zalantzarik gabekoa da. Gainera, sis-

tema ekonomiko hau zuriztatzeko erabiliko dituen argumentuak aski tolesgabeak dira. Hain zuzen, Louis-Adolphe Thiers-ek erabili zituenak, gero Marxek *Kapitalean* eridikulizatuak¹⁵. Horren adibidea litzateke hurrengo parafoa:

He aquí dos hombres que producen una cantidad igual de valores: uno de ellos, falto de virtud y de previsión, consume todos los suyos sin moderarse en nada, mientras el otro conserva la mayor parte y forma una reserva que le permite, o les permite a otros, por la baratura del interés, acometer nuevos trabajos, crear nuevas riquezas, aliviar nuevas necesidades.¹⁶

ekoizpen-harreman modernoaren pare, Lizarragako kondeak eredutzat hartzen zituen Erdi Aroko kristautasunaren gizarte harreman harmoniatsuak. Garai hartan, zuzentasuna eta elkartasuna ziren nagusi. Klaseek elkarri laguntzen zioten. 1894ko *Las asociaciones obreras y el catolicismo* izeneko mintzaldiak, hain zuzen, ardatzat hartzen ditu berekoikeria modernoa eta zabaltasun tradizionalaren arteko diferentziak:

(...) el contraste que ofrecen la inestabilidad [sic], el egoísmo, el aislamiento moral y material, caracteres propios de la sociedad presente, con el reposo del espíritu, la fraternidad cristiana, la fuerte y fecunda organización de las clases sociales en el largo período de la Edad Media.¹⁷

Nola ekin modernitatearen arazo sozialei? Nola saihestu sozialismoak eta bereziki anarkismoak segitzea aitzinatzeko klase langileen artean? Nola hobetu hauen bizi baldintzak? Sanz y Escartín-en ustetan ezinbertzekoa zen erreforma sakon bati ekitea. Honetarako beharrezkoa litzateke Estatuaren parte-hartzea, zeren hauxe baitzen agenterik boteretsuenetakoa. Beraz, Estatuaren arduraren litzateke gorputz sozialaren talderik ahulenei laguntzea, gehiegikeriak sor ez daitezen. Halaber, bermatuko litzateke oinarriko elikagaien prezioa eta soldaten urratsa. Legeak ere aldatu beharko litzateke lan baldintzak ziurragoak eta osasuntsuagoak izan zitezkeen. Hori bai, ekimen oro mugaturik egon beharko litzateke jabetza eskubideaz eta askatasun indibidualaz, bi faktore hauexek funtsezkoak baitira guztien

onerako¹⁸. Puntu honetan, uste du Espainiak jarraitu beharko liekeela Suitzan, Erresuma Batuan eta Frantzian urte horietan onartutako lege sozialei. Hauexek ziren eredu bat klaseen arteko elkarbizitzarako. Bertzalde, legezko neurri hauek osatuz, Lizarragako Kondeak planteatzen zuen korporazio mistoen eraketa, langileak zein ugazabak barne hartzen zituztenak. Horri esker, beratzen ahalko lituzkete bat bederaren interesak.

Halaber, eta kontserbakorregan tipikoa izaten ohi den moduan, Sanz y Escartínek pentsatzen zuen onegintzak joka zezakeela ere paper garrantzitsu bat arazo sozialen konponketan. Preseski, puntu honetaz egiten dituen hausnarketek oso ongi islatzen dute bere pentsaeraren «doinua». Karitatea, dio *El individuo y la Reforma social* izeneko liburuan, bertute net laudagarria da, bereziki garrantzitsua kristauen artean. Horra, Foucault-en erara analizatzeke gonbidatzen duen lerroarte batean irakur dezakegu:

Hospitales, hospicios, casas de corrección y de asilo para la niñez, escuelas de niños y de adultos, patronato de presos y excarcelados, refectorios económicos, obras de redención de la mujer caída, viviendas salubres, bibliotecas gratuitas, baños jardines, lo que conforta el cuerpo y lo que ennoblece el espíritu, ¡qué amplia y fecunda esfera para la acción benéfica e inspirada por la caridad!¹⁹

Halarik ere, Sanz y Escartínek gehitzen du gizarteak tentu handiz usatu beharko lituzkeela onegintzazko erakundeak, «gaitz eta bizio iturburu»²⁰ bihur ez daitezen. Izan ere, jarraitzen du, eskekotasunaren gibeletik «pikareska» ezkutatzen da maiz. Hemen aipatzen ditu pasadizo eta istorio anitz, zeintzuetan eskaleak alfer, gaizkile eta gezurontzi bezala agertzen diren.

Bertzalde, gure egileak azpimarratzen du aipatutako neurri eta politika guziak ezdeusak izanen direla funtsatzen ez badira ezinbertzeko kristianizazio prozesu batean. Erreforma sozialak behar du birmoralizazio bat, eta hau nahi eta nahi ez oinarritu beharko da erlijioan. Honi dagokionez, interesgarria da ohartzea nola erlijio faltak eta moralik ezak denbora berean gizarte kapitalistaren arazoan

kausa eta ondorio bezala funtzionatzen duten. Hau da, alde batetik, hedonistak gara, erlijioa eta morala baztertu ditugulakotz, baina batera erlijioa eta morala baztertu ditugu hedonismoan erori garela. Edozein delarik, erlijioak lortu beharko du ugazabak zuzentasunez jokatzeko langileekin eta hauek konformatzea nahi eta nahi ez sufrimendua eta aberastasun desberdintasuna barne hartzen dituen existentziarekin. Erlijioa, beraz, erabat funtsezkoa izanen da. Erlijiorik gabeko gizakiak bere desioak oreka ginetik paratzen ditu, ez du mugarik onartzen. Ez zaio axola legeak haustea eta hurkoa ustiatzea. Testuak dioen gisan, erlijioa da «el único puerto de salvación contra los embates de la revolución social y de la anarquía»²¹.

Atal hau finitzeko erratea Lizarragako Kondeak azpimarratzen zuela afera eta arazo hauek solbatu behar zirela ahalbait lehen. Ez zegoen geroratzetik edo indar hutsaren bidez konpontzerik. Premiazkoa zen erantzun bat ematea, hortik baitzen zintzilik mendebaldeko zibilizazio kristauren patua.

El reinado de la moral, o la barbarie: he aquí los términos entre los que debe optar la sociedad presente.²²

Nietzsche eta anarkismo intelektual

Eduardo Sanz y Escartín aburu politikoak ikusi eta gero, sumatuko da mesfidantzaz eta beldurrez ikusten zituena Nietzscheren ideiak. Bere *Federico Nietzsche y el anarquismo intelectual* izeneko liburuxkaren 53 orrialdeek helburutzat dute hain zuzen kritikatzeko eta aurreikusteko filosofo alemanaren ikuspuntuak.

Gure egileak ezagutzen zuen Nietzscheren obra ingelesezko, frantseseko eta italiarazko itzulpenen bitartez. Röcken-go pentsalariaren ideiak antzemateko erabili zuen iturri nagusia Henri Lichtenberger nietzschetar frantsesak a rgitaratutako *F. Nietzsche. Aphorismes et Fragments choisis*²³ izeneko aforismo bilduma izan zen. Liburu honek zabal-kunde handia izan zuen Espainian, eta biltzen zituen *Aurora, Ecce Homo, Zarathustra, Humano, demasiado humano, El*

Anticristo, El Crepúsculo de los ídolos eta *La gaya ciencia* izeneko liburuetao pasarte batzuk.

Formalki Sanz y Escartínen entseguak bi parte zituen. Hasteko, eta teorían, azaltzen zituen Nietzscheren ideiak, bigarren partean zehar bere eragina ikertzeko. Alta, aitor-tu behar da nafar soziologoak ez zuela oso sistematikoki osatu idazkia, eta praktikan alemanaren filosofiaren azalpena josita dago bere ustezko izaera kaltegarri eta disolbagarri buruzko iruzkinez. Honi dagokionez, oso erranguratsua dira liburu skaren izaera ulertzeko testuaren hasetsuetan egileak botatako honako hitz hauek:

Síntoma triste y significativo de la corriente de descomposición que invade el organismo social contemporáneo, alterando sus más nobles actividades, es la aparición y, más aún, el éxito que obtienen obras de la índole de las que tienen por autor ese genio extraviado que se llama Federico Nietzsche.²⁴

Aipatu dudán moduan, Sanz y Escartín bereziki kezkatua zegoen gizartearen egoeraz. Zentzu honetan erratea dago bere ikuspuntua ia beti soziologo batena dela. Hóna, Nietzscheren kasuan gehien axolatzen zaion puntua filosofo honek eduki dezakeen eragin kaltegarria da. Berarentzat Zaratustraren egilea izanen da gizarte gaixotasun batzuen ordezkaria, arazo sozialen seinalea.

Arduraten gaituen entsegu irakurtzerakoan, seguraski harrítuko gaituen lehenbiziko puntua bere titulua izanen da: «Nietzsche y el anarquismo intelectual». Izan ere, Lizarragako Kondeak uste du filosofo alemana anarkista bat dela, edo *The Quaterly Review* izeneko aldizkaritik hartutako esaldi bat erabiliz testualki dioen eran, «un símbolo de la subversión y de la anarquía en el orden intelectual y en el orden moral»²⁵.

Egia da nafar egileak jakin badakiela Nietzscheren «anarkismo aristokratiko»²⁶ hura ez dela xeheki mintzatuz Kropotkin edo Gravena. Bata nola bertzea gaitzesgarriak ziren, baina azkenek asmo demokratikoa eta bihozbera defendatzen zuten bizkitartean —gizaki-ikuskeran tolesgabea eta jarduera politikoa bortitza izan arren—, egile alemanak ordezkaten zuten anarkismoa anitzez periloso-

goa zen. Batik bat aintzat hartuta propaganda egiteko ez zuela jotzen biolentziarat, zeren eta horrela ez zuen eragiten anarkismo bortitzak sortutako nazka.

Zer dago Nietzscheren obran horren arriskutsua izateko? Sanz y Escartínen arabera, gizarte modernoan individualismoa, baina azken muturreraino eramana. Hau da, Nietzscheren filosofiaren muina pasio guziak betetzea litzateke, jaramonik egin gabe moralari, erlijioari edo hurkoarekiko errespetuari. Erabateko egoismoa, beraz.

(...) los héroes de Nietzsche son esos hombres que han sacrificado con épica indiferencia a sus designios, a sus placeres y a sus ambiciones, la paz, la vida y el honor de los demás hombres.²⁷

Nafarraren ustez, Röckengo filosofoarentzat indarra zen ordena sozialerako oinarri bakarra. Eta botere hutsa lege bakarra, naturak, moralak eta zuzenbideak emandako eskubideak ezabatuz. Gizabanakoak ez zuen zertan izan mugarik. Azkarra bazen, bere borondatea ahulen eskubideen gain zegoen. Beroiek sortu behar zuen bere kode moralak, bere onura hutsean pentsatuz, inongo kasurik egin gabe artaldeari ezarritako «moralina» xalo horri. Arau bakarra gizabanako burukoiairen plazerra litzateke Nietzscherentzat.

Todas las pasiones antisociales, todos los extravíos de la sensualidad, todas las iniquidades del poder y de la mala fe, hallan su justificación, más aún, su glorificación en los libros de Nietzsche. Ellos serán, quizá muy pronto, La Biblia del ateísmo, de la rebelión y del crimen.²⁸

Erran dudan moduan, Nietzscheren gaineko ulerkuntza anarkista honek harrigarri irudi dezake, baina azpimarratu behar da garaian aski arrunta zela. Egile alemanaren obran Ernst Nolte adituaren erranetan²⁹, bere liburuek oihartzun eskerga izan zuten elkarte anarkista batzuetan, erateko Brahm-goan eta *Freie Bühne* haren aldizkari ospetsuan. Espainiari dagokionez, lehen nietzschezaleetariko batek, Azorínek, dio bere garaikide gehienontzat Nietzsche anarkista bat zela. Halaber, Pío Barojaren *Aurora roja* izeneko eleberriak erakusten du nola mende hasierako giro anarkistetan Nietzscheren eragina hagitz nabarmena zen.

Gainera, han ikusten dugun Nietzscheri buruzko anarkisten ikuskerak zerikusi handia du Sanz y Escartínen irakurketarekin³⁰. Are gehiago, antza ulerkuntza anarkista honek aski iraun zuen. Horra, noiz eta 1930ean, anarkista garrantzitsu batek, Emma Goldmanek, idazten zuen bere autobiografian (*Living my Life*): «Nietzsche era un anarquista y todos los verdaderos anarquistas eran unos aristócratas»³¹.

Nietzscheren ustezko anarkismoa nahiko interesgarria da aintzat hartuz bertze giro ezkertiar batzuetan leporatzen ziotela «kapitalismoaren filosofo soziala»³² izatea. Izatez, «darwinismo soziala» delakoaren aldeko batzuegan aski eragin sakona izan zuen. Sanz y Escartínek berak anbigotasunez ikusten du Nietzscheren obra. Alde batetik filosofo anarkista bat da, ikusi berri dugunez, baina aldi berean, eta «individualismo aristocrático intransigente»³³ bat babesten duen heinean, baiesten du aldarrikatzen duela «la tiranía de los fuertes»³⁴. Maiz ematen du gure egilea guztiz txundituta dagoela Nietzscheren ideien aitzinean, ez dakiela nola izendatu, nola kalifikatu horren nardagarriak eta eskandalagarriak iruditzen zaizkion teoria horiek.

Alta, paradoxikoki, Eduardo Sanz y Escartínek ez du ezkututzen «Naumburgetako ero triste»³⁵ horrekiko sentitzen duen mirespena. Liburuxkan zehar, behin eta berriro mintzatzen da Nietzscheren azkartasunaz. Horra, gorai-patzen du bere «fantasía genial, próxima a los linderos de la locura»³⁶, «el vigor de razonamiento»³⁷, «la lógica inflexible con que se hallan enlazadas con el principio satánico, con el *non serviam* que les sirve de base»³⁸, etb. Laburki errana, alemandarraren «eztabaidatu ezinezko talentua»³⁹. Nola edo hala, ematen du Sanz y Escartínek konpontzen duela Nietzschek eragiten dion izua gupidaren bidez: hondarrean, «antikristo» hori buru-gaixoa da. Honi doakionez, berriro ere argigarria izanen da testurat jotzea:

La lectura de Nietzsche inspira el sentimiento de honda tristeza que imprime en nuestra alma la contemplación de una juventud ceñida de flores, iluminada por sonrisas y al propio tiempo irrevocablemente herida de muerte.⁴⁰

Seguraski gaixorik ez zegoen etsai batek ez zuen jaso-ko konpasio hori, ezta errekonozimendu hori ere. Erdeinu hutsa, agian grimea, jasoko zuen. Hemen, berriz, Nietzsche eromenak balio du bere liburuen mezua indargabetzeko. Munstro horrek dagoeneko hartu du merezitako punimendua, nozitzen ari da dagokion penitentzia eroetxean. Horri esker, posible da erantzutea gupidaz bere biraoui: «(...) tristísimo fenómeno de patología mental, cuyas obras debieran figurar en los archivos de psiquiatría»⁴¹.

Erran liteke Nietzsche ero hori artifizio literario bat dela laburtzen ari garen liburuxkan. Lehen mailako papera jokutzen duen artifizio bat, hain zuzen. Zeren irudi horren bidez, filosofoak aldarrikatutako Jainkoaren heriotzak sortutako tentsioa, nafarra ren kontzientzia onean, kausitzen baitu konponketa lasaigarri bat. Horrexegatik, preseski, entsegua aipamen biografikoez josita dago. Nietzsche bizitzak, eta batez ere, gaixotasunak, balio dute hari gisa obra osoa konprenitzeko. Are gehiago, Nietzsche bidez, Lizarrako Kondeak kontuak zuritzen ditu jenio erromantiko eta satanikoaren inudiarekin, edertasuna soilik gurtzen duena, jainkozko legeak hausten dituen, gizarteaz trufatzen dena. Azkenik, errebelde horrek nozituko du bere buruan bere gaiztakeriaren ondorioa. Horra, Nietzsche litzateke pentsamenduaren Don Juan bat, damurik eta Margaritarik gabeko Fausto bat.

(...) aquella razón que pretendió dictar nuevas leyes a la humanidad, y que con tan soberano desprecio calificaba las doctrinas a las suyas opuestas, se perdió para siempre en las tinieblas de la locura. ¿Será temerario suponer que algo pudo influir en tan triste desenlace la dirección de su pensamiento, la radical contradicción entre sus ideas y las normas de vida secular y universalmente aceptadas?⁴²

Nietzsche gaineko ulerkuntza erromantiko hau islatzen da orobat liburuxkan zehar pasioek jokutzen duten paperean. Hau da, bere erretratu filosofikoa egiteko, Sanz y Escartínek behin eta berriro erabiltzen ditu pasioak eta sentimenduak Nietzsche ibilbidea ulertzeko. Gorrotoak, nahiek, senek balio dute bere filosofia erakusteko eta «liseritzeko». Zentzu berean nabarmena da gure egileak ez

duela menderatzen nietschetar hizkera eta, horra, behin batean ere ez du aipatzen Dionisioren sujeta. Nola edo hala ikusten duen gai bakarra moral kristauaren suntsiketa da eta horren orde pasioen betetze gordina. Horri esker, Nietzsche agertzen zaigu «ganberro» hedonista, burukoi eta anker bat bezala. Horren agerpena litzateke hurrengo lerroarteak:

Sacudir todo género de trabas legales y morales; no reconocer ni ley divina ni obligación humana; tener por único principio la satisfacción de los propios instintos; no retroceder ante el dolor y la muerte de los semejantes; acabar una vida de intensa y desordenada lucidez con un himno a la destrucción, cuyas últimas palabras, ya incoherentes, son ¡vencedor! ¡destructor!— tal es la enseñanza, tal el espectáculo que nos ofrece Nietzsche.⁴³

Émile Durkheim-en hitza aipatzen ez badu ere, Sanz y Escartín arras kezkatua dago anomiaz. Izan ere, pentsatzen du —garaian anitzek egiten zuten moduan— gizartea desager daitekeela lokarri sozialek deuseztatzen jarraitzen badute. Posiblea da, beraz, gizadiak eta bereziki gizarte mendealdarrek basakeriarat gibel egin dezatela. Beldur hau oso presente dago halaber Nietscheri buruzko entsegu honetan. Lehen ikusi dugunez aitortzen du gizarte horiek arazo sozial bat dutela. Eta bere ustez konpondu beharko litzateke justizia ezarriz lan harremanetan. Baina, ororen gaintik, modernitatearen arazoaren muina espiritualak zen. Ikuskerak, mentalitateak, sinesmenak ziren gaixo zeudenak. Eta testuinguru honetan, Nietzsche bezalako autoreen ideiek «frutos de muerte y discordia»⁴⁴ eragiten zituzten gizartearen, hots, orden sozialaren suntsiketa zekarten.

Honi dagokionez hagitx erranguratsua da ohartaraztea nola Nietscheren aitzindarien artean Lizarragako Kondeak aipatzen dituen Hobbes eta Neron enperadorea (Stirner, Heine, Hartmann, Demokrito, eszeptikoak eta sofistez gain). Lehenaren presentzia «normalizat» joenezake: Sanz y Escartín-en arabera Hobbesek funtsatuko zituen gizarte harremanak indar hutsean. Baina zer egiten du Neronek zerrenda honetan? Ezaguna da legenda kristau hori, zeinen arabera enperadore honek Erroma errearaziko zuen

ikuskitzen duzue disfrutatzen eta bere odetarako inspirazioa kausitzeko. Horra, Neronek irudikatuko luke estetizismo amoral bat, plazer egoistei emana. Ero honek bezalaxe, Nietzschek islatuko lituzke «los instintos antisociales que tienen (...) profundo arraigo aun en medio de la más alta civilización»⁴⁵. Puntu hau interesgarria da. Sanz y Escartín iritzi zibilizazioak, kulturak ekar dezake gizartearen aurkako gorrotoa. Arteak, literaturak gara dezakete amoralismoa, egoismoa eta epe ertainera, sen periloso horiek gizarteratuz eta zabalduz gero, zibilizazioaren suntsiketa.

Sujet hau ez zen batere berri Sanz y Escartín obran. Izan ere, *El individuo y la Reforma social* izeneko liburuan gure soziologoak kapitulu oso bat dedikatzen zuen ikertzerat artearen ondorio kaltegarriak. Gaurko kontserbadore berriek egiten duten gisan, gure egileak mesfidantza itzela sentitzen du sentimenduen eta ni-aren espresioarekiko.

La comunicación de sentimientos, el contagio afectivo, es el arma más poderosa con que el artista penetra en los corazones y con la que ejerce influencia incontestable, se ha puesto al servicio de lo innoble, de lo subversivo, de las pasiones que degradan y que destruyen.⁴⁶

Epilogo

Hasten nituen orrialde hauek erranez pertsonaia anitz bezala, Sanz y Escartín arras atzendua zegoela egun. Agian, galdetu beharko genioke geure buruari zein punturaino ahazmen hori ez den merezitua. Izan ere, bere pentsaera soziala ez da lar sakona eta Nietzscheren gainean egiten duen irakurketa ez da ere sobera dirdiratsua. Baina agian Sanz y Escartín obraren balioa ez datza azaltzen dituen ideietan beretan, baizik eta bere aburuen izaera sintomatikoan, nolabait errateko. Alegia, egia da Lizarragako Kondea ez dela maila handiko filosofo bat, baina garaian izan zuen famak iradokitzen digu zer-nolako gustu eta iritzi nagusitzen ziren mendearteko espainiar gizartean. Eta izan ere, Nietzscheri buruzko entseguak biziki ongi is-

latzen ditu garaiko kontserbadoreen beldurrak modernita-


tearen aitzinean. §

1. Sanz y Escartín, *La cuestión económica. Nuevas doctrinas. Socialismo de estado. Crisis agrícola. La protección arancelaria*, Imp. de Antonio Pérez, Madril, 1890.
2. Sanz y Escartín, *El Estado y la Reforma social*, Imp. de la Sociedad editora de San Francisco de Sales, Madril, 1893.
3. Sanz y Escartín, *El individuo y la Reforma social*, Imp. Hijos de J.A. García, Madril, 1896.
4. Sanz y Escartín, *Las asociaciones obreras y el Catolicismo*, Imp., Fund. y Fábrica de tintas de los Hijos de J.A. García, Madril, 1894.
5. Sanz y Escartín, *La educación moral*, Imp. de E. Raso López, Madril, 1910.
6. Itzulpenaren titulua *L'Individu et la Réforme sociale* izan zen eta F. Alcan-ek editatu zuen Parisen 1898an.
7. Sanz y Escartín, *Algunas indicaciones acerca de la doctrina evolucionista y su aplicación en las ciencias morales y políticas*, Imp. del Sagrado Corazón de Jesús, Madril, 1898.
8. Sanz y Escartín, *El individuo y la Reforma social*, op. cit., 9. or.
9. Sanz y Escartín, *Las asociaciones obreras...*, op. cit., 29. or.: «El anarquismo es fruto legítimo de un estado social cuyo fin supremo es el placer (...)».
10. Sanz y Escartín, *El Estado y la Reforma social*, op. cit., 139. or.
11. *Ibidem*, 142. or.
12. Sanz y Escartín, *Las asociaciones obreras...*, op. cit., 18. or.
13. *Ibidem*.
14. *Ibidem*, 19-20 or.
15. Cfr. Carlos Marx, *El Capital*, lehen lib., XXIV. kap., «La llamada acumulación originaria».
16. Sanz y Escartín, *El Estado y la Reforma social*, op. cit., 82. or.
17. Sanz y Escartín, *Las asociaciones obreras...*, op. cit., 8. or.
18. Sanz y Escartín, *El Estado y la Reforma social*, op. cit., 7. or.
19. *Ibidem*, 200. or.
20. Sanz y Escartín, *El individuo y la Reforma social*, op. cit., 192. or.
21. Sanz y Escartín, *Las asociaciones obreras...*, op. cit., 37. or.
22. *Ibidem*, 29. or.
23. Henri Lichtenberger, *F. Nietzsche. Aphorismes et Fragments choisis*, Felix Alcan ed., Paris. Lehen edizioa 1890ekoa omen da. 1902rako hamar edizio zeramatzan. Lichtenbergerrek, Nancyko Unibertsitatean atzerriko literaturaren irakasleak, karrikaratu zuen 1898an halaber ikerketa ospetsu bat Nietzscheren gainean. Bere titulua zen *La philosophie de Nietzsche*, eta 1911rako 23. edizioan zihoan.
24. Sanz y Escartín, *Federico Nietzsche...*, op. cit., 1. or.
25. *Ibidem*.
26. *Ibidem*.
27. *Ibidem*, 12. or.

28. *Ibidem*, 21-22 or.
29. Ernst Nolte, *Nietzsche y el nietzscheanismo*, Alianza, Madril, 1990, 235 eta hurrengoak.
30. Ikusi, adibidez, agertzen den eztabaida hau: Pío Baroja, *Aurora roja*, Caro Raggio Ed., Madril, s.f., 270 eta hurrengoak.
31. Henri Arvon-ek zitatua, cfr. *El anarquismo en el siglo XX*, Taurus, Madril, 1979, 87. or.
32. Nolte, op. cit., 235-236 or.
33. Sanz y Escartín, *Federico Nietzsche...*, op. cit., 26. or.
34. *Ibidem*.
35. *Ibidem*, 9. or.
36. *Ibidem*, 8. or.
37. *Ibidem*, 18. or.
38. *Ibidem*, 18. or.
39. *Ibidem*, 24. or.
40. *Ibidem*, 19. or.
41. *Ibidem*, 43. or.
42. *Ibidem*, 46. or.
43. *Ibidem*, 21. or.
44. Sanz y Escartín, *Federico Nietzsche...*, op. cit., 35. or.
45. *Ibidem*, 23. or.
46. *Ibidem*, 356. or.

Egunen

gurpilean



kultura • 97

Hila eta hobiratua • Maiatzaren 25a

- Zugaza efektua • Berria berri

JOSEBA BALERDI



literatura • 101

Egunkaria-ren ordezkoa jaiotzear

- *Maiatz*-en hogoigarren urteurrena
- *Ustela Saila* eta *Nontzeberri*, zaharbertzearen bidean
 - Kristalezko sabaia buru gainean
- Literatur kritikaren sendotze geldoa

LAURA MINTEGI



soziolinguistika • 107

Ahuldutako hizkuntzak indarberritzeaz

- Euskararen erabileraren bilakaera bereziak
- Gutxituak diren hizkuntz komunitateen 'muga-hesiak'
- Euskararen erabileraren bihar-etziko bilakaera

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA




telepolis • 113

Gizarte begiratzailerak • Gizarte kirikatzailea: «sans être vue»

- Ehiztariaren begirada erotikoa • Pornografia sarean • Pornografia arrosa • Telerrealitatearen gezurra eta iruzurra
 - SARS: arriskua ala paranoia?

AMATIÑO



Jorge Oteiza hil da. Orain bi zenbaki, ospitalean utzi genuen. Aurreko zenbakikoa idaztea tokatu zitzaidanean, hantxe jarraitzen zuen, ostrak janez bere burua hobeto ikusten zuenean —hori diote ezagutzen zutenek, klinikara bisitan joaten zitzazkionez—, baina *Jakin*-en azken zenbakia kaleratu zenerako Oteiza hilik zegoen. Hilda, eta lurperatuta. Eta aldizkariaren atal honek nolabait egunerokotasunari lotuta egon behar badu ere, ez nintzen garaiz iritsi aurrekoan, eta zilegi bekit, orain, hilabete batzuk joan diren honetan (maiatzaren amaieran ari naiz hau idazten, baina beranduago kaleratuko da), Jorge Oteiza hil egin dela idaztea. Hemen idatzita gera dadin. 2003ko apirilaren 9an hil zen Oteiza, Donostian. Altzuzan eman zioten lur, Itziar Carreño emaztea zuena hilobiratuta zegoen toki berean.

Hila eta hobiratua

Es-kolan kredoa erakusten zigutenean beti deitzen zidan atentzioa «hila eta hobiratua» sintagmak. Hila eta hobiratua. Aurrena hila eta hurrena hobiratua. Bata bestearen atzetik datozen ekintzak dira horiek. Hil eta hobiratu. Baina hobiratu hitzak zenbat eta zenbat zentzu eta esanahi ezberdin izan ditzakeen, hori beranduago ikasi dut. Eta konturatu naiz gehiegitan «ahaztu» esan nahi duela «hobiratu» horrek. Hila eta hobiratua. Hila eta ahaztua. Oteizari Altzuzako kanposantuan eman zioten lur, eta berak pentsatutako gurutze bat dago hortik hobi gainean, heriotzaren ondoren ere Itziar eta biak uztartzen dituen gurutzea. Eta handik metro gutxira, Orioko artista nagusia Kasedak eman duen arkitekto nagusiarekin behin betiko uztartu behar zuen eraikina dago, edifizioa. Francisco Javier Sáenz de Oizak Oteizarentzat diseinatutako fundazioa, museoa, Oteizaren etxea.

Sáenz de Oiza ez da erraza izan behin ere. Madrilgo Dorre Zurietatik hasita. Eta bere edifizioa ez dut barrutik ezagutzen (erabat bukatuta ere telebistan bakarrik daukat ikusita), baina proiektuaren lehen pausoetatik antzematzen zitzaien (aurkeztu zuenean; Altzuzan bere forma kapritxoso bezain «xinplea» agerian gelditzen hasi zene-tik...) artista batek beste batentzat egindako zerbait zela hura, eta bien gustukoa izanik, ezer gutxi esan zitekeela handik aurrera. Sáenz de Oizaren azken lan enblematikoa izango da, ziurrenik; eta Oteizaren gustukoa omen zen.

Eraikin barruan dagoena, eta barruan gertatzen ari dena, ordea, beste kontu bat da. Ez naiz izan Oteizaren museo-fundazioan. Kritikoek diote erakusketa koxkor batekin zabaldu dutela Nafarroa eta Espainiako agintari-ek museoa, eta ez dela, inolaz ere, Oteizak berak nahi zuena errespetatzen. Kritiko ez direnek diote, berriz, goldea ezin dela idien aurretik jarri, eta gauzak pazientziaz hartu behar direla. Fundazio-museoa osatuz eta hobetuz joateko betarik izango dela. Biek izango dute beharbada, arrazoia. Baina ezin dut utzi kontatu gabe inaugurazio egunean bertan izandako batek museoaren zuzendariari entzun omen ziona. Oteizaren borondatea gora eta Oteizaren borondatea behera, Rosales jaunak halako batean esan omen zuen, Oteiza ordurako hilik zegoenez, hemendik aurrera kritikoek ezin izango dutela Oteizaren borondatea erabili euren jarrera defendatzerakoan. Eta, nolabait, alibiatuta zegoela gizona, hori dela-eta. Anekdotak apokrifoa izan daiteke, erositako prezioan saltzen dut nik, baina egia unibertetsala da hildakoek ez dutela hitz egiten. Hila eta hobiratua.

Maiatzaren 25a

Linguistika jorratu eta Oriokoa izan arren, Oteizak ez zekien euskaraz. Juan Ramón Corpas medikua da ikasketaz, eta Lizarrakoa. Nik dakidala, berak ere ez daki euskaraz. Baina *Diario de Noticias*-en irakurri nuen bera ere harrিতa gelditu zela Oteizaren hileta elizkizunetan euskaraz

hitz bakar bat ere entzun ez zelako. Aparteko ezer ez, Corpas Bianako Printzea Erakundearen zuzendari ez balitz. Alegia, Nafarroako Gobernuaren kultura zuzendaria. Hiletak antolatu zituena, beste hitz batzuekin esanda, nahiz eta zeremonia familiaren esku utzi neurri handi batean. Corpasi ahaztu ez balitzaio.

Nafarroako gobernu berrian jarraitzeko aukera asko ditu Corpasek. Eta bere gainetik dagoen Laguna jaunak. Sanz lehendakariak jarraituko duelako, eta bere asmo berritzaileen artean, Lagunaren izena orain arte behintzat aipatu ez delako. Egia esan, hobe ez aipatzea gainera. Izan ere, orain arte aipatu diren aldaketek ez diote baikortasunari inolako itxaropenik uzten. Eta kulturaz eta hizkuntza politikaz besterik ez naiz ari.

Hauteskunde emaitzen ondorioak dira hauek. Eta hauteskundeak, mundu guztiak daki hori, ez dira kultura. Baina kultura hil egiten da hautatzeko aukerarik ez denean.

Zugaza efektua

Madrilen diote Miguel Zugazak eskimalei ere salduko lizkiekeela hozkailuak. Eta Pradon sakoneko berikuntza gehiegi nabari ez bada ere —batzuek baietz diote, sakoneko aldaketak ere hasi direla nabaritzen—, zalantzarik gabe ukitzen duena urre bihurtzeko gaitasuna aitortu behar zaiola. Lehen Vermeer eta holandar pinturarekin (New Yorkeko Metropolitanan ere sekulako arrakasta izan zuen Vermeer-ek), eta orain Tizianorekin. Erakusketa deigarriak prestatzen eta saltzen aparta omen da Zugaza.

Beharbada horregatik ibiliko da arnasestuka Bilboko Arte Ederren museoa azkenaldi honetan. Baina lozorrotik esnatzen hasi dela ere ematen du. Kataluniako Arte Museo Nazionalarekin batera (noizko Euskal Museo Nazionala?) «Hispaniar-flandestar pintura gotikoa. Bartolomé Bermejo eta bere garaia» ekarri du Bilbora. Arte Ederren museoak berak gogora dakarrenez, Bermejoren maisulan garrantzitsuenetako bat museoarena berea da, Santa Engraziaren flagelazioa. Baina oraingoan 70 lan bildu dituzte,

eta jendeari gustatzen zaizkion erakusketa horietakoa antolatu dute. Beharbada ez ditu Madrilen Tizianorenak sortuko dituen jende ilarak eragingo, baina zalantzarik ez museo baten betebeharrak garrantzitsuena jendea bertara hurbiltzea dela. Eta hori behintzat lortuko dute Bartolomé Bermejo eta beste hainbaten lanekin. XV eta XVI. mendeetako pinturak, gainera, badu jendea erakartzen duen aparteko zerbait. Beharbada, hainbeste zeresan eman duen ulergarritasuna, lan modernoei (garaikideei esan nahi dut) hain zaila egiten zaien ulergarritasun hori.

Kontuak kontu, Zugaza efektua berrekuratzeko balio dezakeen bidea izan daiteke erakusketa honekin hasitakoa. Metro gutxira duen titaniozko museoak ere aurki ekin beharko dio benetan erakargarria den zerbaiti, lozorroan murgiltzea besterik ez zaio falta-eta. Josu Jon Imazek esana, Euskal Autonomia Erkidegora inoiz baino turista gehiago ari dela hurbiltzen. Ikusiko ditugu titaniozkoaren datuak nolakoak diren aurtengoan.

Berria berri

Uda hasiera honetan ezin utzi aipamenik gabe euskal kulturaren munduan urteko bigarren notizia garrantzitsuena izango dena (izan dena, zuek hau irakurtzerako). Lehenengoa Espainiako justiziak *Euskaldunon Egunkaria* izatea izan zen (euskal kulturaren defentsan, Acebes ministroaren hitzetan). Bigarrena, euskarazko egunkari bat berriro kalean izatea. Ez zait izena gehiegi gustatzen, egia esan, nahiago nukeen Heraldia, edo antzeko besteren bat, klasikoagoa. Eta ez dut egunkaria ezagutzen, oraindik ez baita kalera atera. Baina bi gauza argi erakusten ditu: debate sakon eta luzeak egiteko gauza izateaz gain, herri honetako gauza konkretu eta tangibleak ere egiten badakiela. Eta ezina ekinez egiten dela. Bejondeiela! Bejondeigula!¶

Egunkaria-ren ordezkoa jaiotzear

Artikulu hau idazteari ekin diogunean (maiatzaren azken astea) oraindik ez da kaleratu euskara hutsezko egunkari berria, baina haren jaioteguna ezagutzera eman da dagoeneko: ekainaren 14an jakinaraztekoa da beraren izena.

Egunkaria-ren itxieraz eta kazeta berriak izan beharko lukeen jokaeraz luze aritu nintzen aurreko zenbakian (etxe honetako arduradunen eskuzabaltasunari esker), lehen hilabetean argitaratu ziren iritzien bilduma eginez. Artikulu hura argitaratu ostean beste 13 egilek eman dute iritzia gaiaz, nahiz eta, kasu gehienetan, aurretik plazaraturiko iritziak berretsi diren, alde batekoak zein besteakoak izan.

Itxieratik hiru hil bete berri diren honetan, hiru pertsona daude oraindik kartzelan; epaileak sumarioa sekretupean mantentzen du, inolako justifikazio juridikorik gabe; langileak lanposturik gabe gelditu dira eta milaka hiritarri aukerako egunkaria irakurtzeko eskubidea ebatsi zaie. Buruturiko bidegabekeria gero eta nabarmenagoa da. Eta halaxe ulertu du gizarte osoak, bai euskal herrietan, bai eta hemendik kanpo ere, hala nola Catalunyan edo nazioarteko erakundeetan.

Hitz xume hauek oroitarri izan daitezzen batetik, eta, bestetik, egunkari berriari eskainitako ongietorri gisa uler daitezzen, produktu duina egingo dutelako konfiantza osoa dut eta.

Maiatz-en hogoigarren urteurrena

Euskal literaturgintza heldutasunera ari da heltzen, zentzu guztietan. Beste artikulu batean zoriondu genituen 25 urte bete ondoren euskalgintzan «nagusi» egin diren talde edo erakundeak (Elkar, Erein, Gasteizko Jazzaldia, UEU; urte berekoak ziren Bergarako UNED, *Egin* eta *Deia*,

garaiaren berpizkunde usainaren seinale). Oraingoan *Maiatz* aldizkariari heldu zaio txanda, 20 urte bete berri baititu aurten (1983-2003).

Garai berean sortu eta aritu ziren aldizkariak ez zioten eutsi demari. Iruñean ziren *Korrok* eta *Pamiela*, Donostiako *Susa* eta *Literatur Gazeta*, Gasteizko *Kandela*, Durangoko *Txistu y Tamboril* eta Bilboko *Ttu-ttua* aldizkariak (bai eta apur bat beranduago sorturiko *Enseiucanen* eta *Plazara* ere) aspaldian utzi zioten argitaratzeari, nahiz eta horietariko batzuk argitaletxe bihurtu diren denboraren poderioz, *Maiatz*-ek berak ere egin bezalaxe.

Maiatz mantentzean (bai eta 1981eko *Idatz & Mintz* ere salbuespen gisa) eta gainontzekoak desagertzearen arrazoia ez da azalduko «baldintza objektiboak» aintzat hartuta. Edonondik begiratuta ere, Iparraldean ez dago Hegoaldean baino eremu samurragorik literatur aldizkari bat garadadin. Alderantziz, izan ere. Beste behin, baldintza subjektiboak nagusitu dira objektiboen gainetik, *Maiatz* aldizkariak iraun badu pertsona batzuen ekimen subjektiboari esker izan baita.

Maiatz-en bertuteen artean aipagarriena da beraren buruari fidela mantentzen jakitea. Hedapenaren eta salmentaren arloetan hegora begira egoteko behartuta bada ere (merkatu potentzial handiena hegoaldean duelako), edukia eraldetik beraren eremu naturaletik elikatu da, jarrera «ekologikoari» eutsiz. Txikitasunaren barruan txikiena, *Maiatz*-en testigantza ezinbestekoa zaigu euskal literaturgintzan. Nirekiko nago ez ote diogun gure periferiari areta gutxiegi eskaintzen. Jakin badakigu gure literatura gipuzentrisismoak jota bizi izan dela hamarkadetan, ertzeak ertzeko sentiaraziz. Azken hamarkada honetan, ordea, Nafarroako eta Bizkaiko idazleen ahotsa ozen entzun da bazterretan, idazle kopuru gero eta zabalagoak lagunduta.

Iparraldeko idazleek, aitzitik, demografia aurka dute eta hizkeraren berezitasuna (beste edozein berezitasun bezain berezia alegia, baina, izan ere, gipuzkera ez den beste guztia berezitasuna da) ez zaie lagungarri suertatu. Ondorioz, ez dute lortu beren lekua hartzea. Protagonisten ahalegin eza ez da izango, ordea.

Ustela Saila eta Nontzeberri, zaharberritzearen bidean

Urtebetetzeak direla eta, 1977an (beraz, orain 25 uste), Koldo Izagirrek eta Joxemari Olaizolak *Ustela Saila* jarri zuten martxan. Ibiñagabeitia Proiektuak (www.armiarma.com) dioskunez,

Panpina Ustela aldizkaria 1975eko urtarrilean sortu zuten Bernardo Atxagak eta Koldo Izagirrek. Bi zenbaki gehi-
go izan zituen ondoren: *Zorion Ustela* eta *Mermelada Us-
tela* (biak 1976an). Aldizkaria amatatu zen, baina *Ustela*
izenak jarraitu zuen, 1977ko martxoan Koldo Izagirrek
eta Joxemari Olaizolak *Ustela Saila* argialetxea abian ja-
rrita. Zazpi urtetan 19 liburu kaleratu zituzten, denak
berriak, Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*
nobelaren bigarren argitalpena izan ezik.

Orain, Susak sareratzen duen «Literatur Emailuak» proiektuari esker (susanews@armiarma.com), orduan egin-
dako lan hura etxean berrirakurri ahal izaten dugu, nor-
beraren ordenagailua piztuz. Merezi du, eta eskertzekoa
da. Eskertzekoa da Ibiñagabeitia proiektu erraldoi hone-
tan bildu den euskal aldizkarigintzaren altxorra: 28 aldiz-
kari eta 9.000 artikulua batu dira eta sarean jarri dituzte
susatarrek, Gipuzkoako Aldundiak lagunduta.

Metatutako testu zaharrak berri-egiten dituzte bat-
zuek, eta beste batzuek, aldiz, berriak direnak metatu egi-
ten dituzte. Oso interesgarria da (eta txalogarria) Lutxo
Egiak eta Juan Ramon Madariagak Bizkaiko Aldundiaren
laguntzaz aurrera daramaten Nontzeberri Proiektua
(www.nontzeberri.com), euskal literatura eta kulturaren in-
guruan jazo albisteak jaso eta ordu gutxira sarean jartzen
baitituzte, guztion eskuragarri.

Horrez gain, nontzeberritarrek testu berriak «eskegit-
zeko» aukera ematen diete idazle guztiei, ezagun izan
zein plazaratu berri izan. Zero kostuaz etxeratzen digute
literatura. Tiradarik egin gabe, banaketa arazorik gabe,
stock antzurik gabe (eta egile eskubiderik gabe, hori ere
egia da). Txiki (eta defizitario) garenontzat sareak aukera
paregabeak eskaintzen dizkigu.

Kristalezko sabaia buru gainean

Euskal literaturari buruzko liburuak zerrenda hutsak (idazleen eta haien lanen zerrenda hutsak) zireneko garaia iragana da dagoeneko. Gero eta sarriago irakurri ahal izaten ditugu literaturgintzaren inguruko saio monografiakoak, joeren azterketak, lanen kalitateari buruzko iritziak, ildo orokorrekiko zein zehatzekiko analisiak.

Arlo honetan plazaratu den azken liburua dugu Inma Erreak idatzitako *Literatura eta hamikoa*, Pamielak kale-ratuta. Lehen irakurraldi arinak pausatuago irakurtzeko g ogoa piztu dit. Gaia berria ez izan arren (emakumearen eta literaturaren arteko erlazioa), estilo berezkoak eta ikuspegi berriak erakargarri egiten dute, oso.

Zentzu honetan esan behar da azken hamarkada erabakigarria izan dela euskaraz idazten duten emakumeentzat. Bizkaitar eta nafar idazleei buruz oraintsu esan berri duguna, emakume idazleentzat ere baliagarria da: kopuruaren aldetik ugalduta eta soziologikoki presentzia areagotzea lortu dute, gero eta normaltasun handiagoz jalgitzen baitira letren plazara, hau da, literaturgintzaren eremu publikora (pribatua beti egon dira eta).

Bidea jorratzen ari da, baina bide luzea dago oraingoz egiteke. Plaza horretan hogeitun bat urte daramagunok oraindik nozitzen dugu kristalezko sabaia gure buruen gainean. Egin egiten dugu; ezagutu ezagutzen zaigu egingdako lana, baina beti aparteko sailkapen batean kontabilizatuko zaigu, parametro ezberdinak dituen rankingean, emakumeen eta gizonen lanak konparagarriak ez balira bezala, lehia honetan kategoria ezberdinetan jokatu bage-nu bezala.

Emakume baten lana goraiatu nahi denean «emakume idazleen artean onenatarikoa dela» esaten da, mesedea egiten zaiolakoan. Eta idazle «guztien artean», zein postutan jarri beharko genuke? Rankingean zenbat postu beherago? Gizon guztien ondorengo hurrengoan?

Jon Alonsori sarritan entzun diogu esaten «berandu heldu» zela literaturara, belaunaldikideak baino beranduago eta periferiatik argitaratzen hasi zelako. Nire belau-

naldiko emakumeei, aldiz, askotan iruditzen zaigu «goizegi heldu» garela literaturara. Hogei urte barru, agian, emakume idazleek kide maskulinoen sailkapen berean sartzea lortuko dute eta.

Literatur kritikaren sendotze geldoa

Aurreko puntuan esan dugu gero eta literatur saio gehiago idatzi eta argitaratzen dela, eta gero espezialduagoak direla, izan. Arrazoiak ugariak dira, seguruen. Alde batetik izan daiteke goi mailako irakaskuntzak ekarri duen eskaerari erantzun apala ematen hasi zaiola lehenengoz.

Euskalduntze-alfabetatze eta, oro har, irakaskuntzari esker, irakurleago potentziala ugalduz doa, eta irakurleek erreferentzi gose izaten dira. Merkatu zabalaren aurrean, kritikari erreferentziak eskatzen dizkiote zer irakurri behar duten jakiteko.

Bestalde, fakultateetan gero eta eskaera handiagoa dago ikasleen aldetik, eta lizentziatu berri/gazteak ere ekoizten hasi dira. Azkenik, kritikariak profesionalizazioaren bidean doaz. Gero eta arruntagoa da ikustea idazle ez diren kritikariak. Orain, beraz, askatasun handiagoz mintza daitezke sortzaileez, beraiek sortzaileak ez badira.

Edozein kasutan, herri honetan hurbiltasun gehiegizkoa egoten da egileen eta hauen kritikarien artean, eta horrek ez du errazten kritika zorrotza egitea. Kritikak nekez izango dira gordinak, idazleak eta kritikariak elkarrekin bidaiatzen badute kongresuetara, liburu aurkezpenak elkarrekin egiten badituzte, eta topo egiten badute kalean zein edozein bilkura literariotan. Hurbiltasun fisikoa oztopo bihur daiteke. Hurbiltasun ideologikoz hobe ezer ez aipatzea.

Ugaltasunaren seinale, begirada arina emanaz apalategian ikusi ditut *Euskal Literaturaren historia txikia* (Jon Kortazar, Erein), *Azken aldiko euskal narratiba. Sortzaileak eta irakurleak* (Kirmen Uribe (arg.), UEU), *Euskal eleberriaren historia* (Marijo Olaziregi, Labayru), *Obabatiko tranbia* (Iban Zaldúa, Alberdania), *Diglosia eta euskal literatura*

(Jon Kortazar, *Utriusque Vasconiae*), eta *Euskal kritika gaur* (Marijo Olaziregi eta Aurelia Arkotxa (arg.)), Eusko Ikaskuntza). Hauez gain, egile batzuei buruz egindako lan zehatzak ere aipa genitzake: Sarrionandia, Umetabizkaia, Atxaga eta Saizarbitoriari buruzko lan monografiko mar-
dulak idatzi dira, bai eta zenbait doktorego-tesi ere euskal idazle batzuk oinarri hartuta. ¶

Ahuldutako hizkuntzak indarberritzeaz

Galdera batekin ireki zuen Mikel Zalbidek egindako eskaera bati erantzuteko eman zuen hitzaldia: «Ahuldutako hizkuntzak indarberritzeaz zer dio mundu zabaleko teoriak?». Eta kezka horri era egokian aurre egiteko dagoen garapenen ahuleziaz ohartarazten zigun egile horrek, horrela zioenean (ikus www.erabili.com webgunean egile horrek duen artikulu sorta):

(...) gauza bat dago hemen garbi: hizkuntz plangintzaren teoria gehienek deskribapen kontuan hobeto funtzionatu dutela orain arte, iragarpen edo predikzio alorrean baino.

Eta atzerrian egindako saio teoriko zein enpirikoak aztertu eta gurera ekartzeko ahaleginetan diharduela, horra hor euskarak pairatzen duen antzeko egoeratan dauden hizkuntzen egoeraz Zalbidek dioena:

(...) eguneroko gizarte-bizitzaren joan-etorri arruntak ere ezin dituztela beren kabuz eta beren etnohizkuntza hutsez osorik bideratu. (...) Eta hori zergatik? Motibo askorengatik, dudarik gabe. Honako bi hauengatik bai behintzat, besteak beste: a) beren soziokulturazko mugahesiei eutsi ezinik ari direlako; b) erdal soziokulturarekiko harreman-tratua mendekotasun-molde jakinera makurtuta daukatelako.

Arrazoi horiek bete-betean sartzen dira hemen landu nahi ditugun gogoetatan, ondoko lerroetan ikusiko dugun bezala.

Euskararen erabileraren bilakaera bereziak

Duela urte bete, *Kale erabileraren IV. neurketa, 2001* izenpean, SEI elkarteak argitaratu zuen euskararen kale erabileraren gaineko azken ikerlana (*Bat soziolinguistika aldiz -*

karia, 43. zbk.). Bertan eskainitako informazioak ederki lagun diezaguke euskararen erabilerak zonalde batzuetan aurkitzen dituen oztopoak interpretatzen.

Informazio hori Zalbidek aipaturiko erreferentzia teoriko batzuen argira aztertzen saiatuko gara hemen. Hala ere, interpretazio sendo bat burutzeraino iritsi gabe, nahikoa zaigu susmo eta burutapen berriei lekua egitea, betiere horiek duten behin-behinekotasuna garbi utziz.

Lerro hauen ausardia argi utzita, itzul gaitezen aipaturiko neurketak eskaintzen dizkigun emaitzetara. Eta euskararen kale-erabileraren bilakaerari erreparatuta —eta gehiegizko sinplifikazioan erortzeko arriskuaz jabetuta—, hauxe esan genezake: *zonalde euskaldunetako euskararen kale erabilera gora doan bitartean, eremu erdaldunetako datuek, mugitzekotan, ez dute aurrerapauso nabarmenik adierazten.*

Baieztapen hori ondoko datuetan oinarritzen dugu: a) Hego Euskal Herrian euskarazko gaitasunak zonalde (ia) guztietan gora egin duen bitartean, erabilerak batzuetan baino ez du aurrera egin; b) are zehatzago, 1989tik 2001era bitartean, erabilerak gora egin du Gipuzkoa eta Bizkaian, baina ez Araba edo Nafarroan. Eta kontuan izanda neurketa-unitateen dimentsioak eta laginak zenbat eta zabalago eta dibertsifikatuagoak izan, datu horien egonkortasuna handiagoa dela, aipaturiko esparruetan antzemandako joera horiek nahikoa fidagarriak direlakoan gaude.

Horrezaz gain, Irun Iruten euskara elkartearen gonbidapena zela medio, parada izan genuen Irungo kale-erabileraren datuen bilakaeraren berri jasotzeko: Irun herri nahikoa erdalduna den aldetik, 1989tik 2001era bitarteko emaitzak bat datoz gorago aipatu den joerarekin: euskarazko gaitasunaren aurrerakadarkin batera, erabilera areagotzeko ezintasuna agertzen da Irunen.

Gutxituak diren hizkuntz komunitateen 'muga-hesiak'

Arestian esaten genuen euskara bezalako hizkuntzek «beren soziokulturazko muga-hesiei [*sociocultural bound-*

dary] eutsi ezinik ari direla». Eta Fisman-ek dioenez (Zalbidere lanaren bitartekaritzaz baliatuta, betiere) politikazko muga-hesirik ezean (burujabetasun politikorik ezean), «hiztun-herriok beren [*sociocultural boundary*] tradizionala indarrean mantentzen saiatzen dira.» Hori horrela izan dadin, alabaina, gizatalde etniko/kultural horrek zer gorderik izan behar du; hau da, herri hori berezko kulturari eutsiz beste kultura/hizkuntzaz kulturizatua izatera iritsi ez denean.

Idea hori aztergai dugun euskararen erabilerara ekarri, honako hau bururatzen zaigu: «berezko nahiz kulturazko transmisioaren» bidez (Txepetxen hitzetan) euskarazko gaitasun nahikoa lortu duten ume, gazte edo helduak euren gizatalde etnokulturalaren hizkuntza gutxitua (euskara gurean) indartzera datoz, baldin eta «soziokulturazko muga-hesi» horiek oraindik existitzen badira. Hau da, euskaldundu diren horiek euskaraz jarduteko baldintza egokiak dituen hiztun komunitaterik aurkituz gero, euskararen erabilera areagotuko dute, seguru aski. Horrela uler daiteke Gipuzkoa eta Bizkaiko zonalde batzuetan antzematen den kale-erabileraren gorakada.

Halere, jakina da euskal lurralde askotan jatorrizko talde soziokultural euskaldun irmorik ez dirauela. Alderantziz, euskaltzale orok ondo baino hobeto daki gure hizkuntzaz hazteko eta bizitzeko eremu erdaldunak zabalak direla. Halako egoeretan beste mekanismo batzuek funtzionatzen dute:

Transetnizazio-prozesua aski aurreraturik dagoen kasuetan eta indarrean zer mantendu handirik gelditzen ez zaienetan, gizarte-molde berriak hartaturik lehengoari bere hartan eutsi baino gehiago [*sociocultural boundary*] eguneratu edo zaharberritu bat osatu eta zurkaiztu nahi izaten dute. Hil ala biziko lana dute hiztun-herri gehienok, delako [*boundary*] edo muga-hesi hori lortzearena.

Uste dut Fisman edo Zalbidetik ez dutela txartzat hartuko «muga-hesi soziokultural» hori eraikitzea, hemen eta euskarari dagokionez, euskal «hiztunen komunitatea eratzearekin» parekatuko bagenu. Horrela ulertuta, ondo-koa esan dezakegu: ordura arte erdara baino ez zegoen gi-

zarte baten baitan, gizabanako batzuk euren arteko eguneroko hartu-emanak euskaraz gauzatzen kontzienteki hasi dira, eta euskarazko komunitate (edo erdararen baitako azpi-komunitate) bat osatu nahi dutela. Halako egoeretan —eta hiztun komunitate berri hori sendotu bitartean—, euskaldundu direnek ez dute aukerarik izango ikasitako hizkuntza inon ere erabiltzeko. Horregatik, hain zuzen, kale-neurketaren datuek ez dute aurrerapauso arastorik eskaintzen eremu erdaldunetan.

Azken finean eta arestian esandako azalpen-ildoari jarraituz, familia eta irakaskuntza sistemaren bidez etenik gabe euskalduntzen ari zaizkigun belaunaldi berriek, egun, bi egoera hauetako batean aurkitzen dute euren burua murgildurik: a) «beren soziokulturazko muga-hesiei» eusten dien hiztunen komunitate eratu (batzuetan sendo, bestetan ahul) batean; b) erdal komunitatean txertatuta, euskal hiztunen komunitatea eratzeko asmotan batzuk dabiltzalarik; hau da, euskaltzale batzuek soziokultura beregaina «eguneratu edo zaharberritu bat osatu eta zurkaiztu nahi izaten dute» horretan.

Beraz, bigarren egoera horretan daudenek «muga-hesi» propioak dituen euskal kulturazko komunitate (edo azpi-komunitate) bat eratu ezean, jai dute berreskuraturiko euskara erabili ahal izateaz. Eta horretan datza zonalde erdaldunetan erabilerak pairatzen duen ezinaren gakoa, hain zuzen ere.

Euskararen erabileraren bihar-etziko bilakaera

Eta, euskararen erabilera aipatzen dugula, saia gaitezen erantzuten euskaltzale ororentzat buruhauste handia den galderari: «Gaur egun esku artean ditugun datuak aintzat hartuz eta azken urteotan izandako erabilerari erreparatuz, zein bilakaera izango du euskararen erabilerak?». Galdera hori, besteak beste, SEI elkarteak kale erabileraz antolatu zuen gogoeta-jardunaldian ere mahaigaineratu zuen (ondorio batzuk ikusteko: www.sortu.org). Erantzunak erantzun, horra hor nik neuk ematen diodana.

Hasteko, argi utzi behar da euskararen erabileraz ezin dugula hitz egin, euskararen erabilerez baizik, hizkuntza baten erabilera bakarra ez delako. Hau bi zentzutan gertatzen da: espazio edo *lurraldetasunaren* arabera eta *erabileraren* arabera.

Kontuan izan behar dugu, halaber, erabilera-alor horietako batzuk euskalgintzaren eskuetan dauden bitartean, beste batzuk, egun, harrapaezinak direla euskalgintzarentzat.

Bestalde, euskal hiztunen komunitateak duen bizi-endar etnolinguintikoari ere erreparatu behar diogu. Gogoan izan, bizi-endar etnolinguintikoaren alderdi objektiboan atal hauek ditugula: komunitate euskaldunaren pisu demolinguintikoa, hizkuntzak jasotzen dituen babes instituzional publikoa eta pribatua, komunitate euskaldun horrek gizartean duen kontrol-ahalmena eta, azkenik, euskal hiztunak gizartean duen estatus-kokapena. Eta alderdi subjektiboan, bestalde, honako hau dugu: komunitateak bere hizkuntzaz eta honen egoeraz dituen iritzi, balorpen eta asmoa. Bizi-endar etnolinguintikoaren ezaugarri horiek guztiek euskararen alde edo kontra joka dezakete, edo batzuek alde eta gainontzekoek aurka.

Hori dela eta, euskal hiztunen komunitateak duen bizi-endar etnolinguintikoaren araberrakoa izango da bihar-etzikoa erabilera. Baina hori, euskalgintzaren esku dauden eremuetan soilik, ez guztietan. Horregatik, etorkizunean euskarazko gaitasunak gora egiten jarraituz gero, erabilerak bi joera nagusi izan ditzake:

1. Euskal komunitateak bizi-endar etnolinguintiko eta «soziokulturazko muga-hesi» sendoak dituenean, komunitate horren kontrolpeko alorretan erabilera areagotuko da; baina, euskal komunitatearen bizi-endar etnolinguintikoa handia izanik ere, bere kontroletik kanpo gelditzen diren eremuetan erdal dinamika nagusituko da (estatuko komunikabideetan, adibidez).

2. Euskal hiztunen komunitateak bizi-endar etnolinguintiko apala eta «soziokulturazko muga-hesirik» ez duen eremuetan, erabilera higituz joango da; hau da, duen pisu erlatibo pixkanaka-pixkanaka galduko du, erdara gero

eta gehiago nagusituz. Ingurune hauetan itxaropen edo aukera bakarra «ongi hesituriko» *oasi euskaldunak* sortu eta trinkotzea da; bestela esanda, euskaingintzaren peko erabileraren eremu berriak bultzatuz, euskal hiztunen *proto-komunitate edo azpi-komunitate euskalduna* sortzean.

Jakina da tarteko beste egoera batzuk ere agertuko direla; baina bihar-etziko erabileraren gakoa —berezkoa nahiz sortu berria den— hiztun komunitatearen biziraupean sendoa dago.

Planteamendua begi bistakoa izanik, egin beharreko galdera ez da erabilerarekin zer gertatuko den, beste hau baizik: nola indartu euskal hiztunen komunitatea?¶

Gizarte begiratzaila

Terroristak ala *voyeur*-ak, ez omen zaigu mendebaldeko gizarte honetan beste aukerarik geratzen. Bat-batean besterik iruditu arren, proposamen honek ez du politikarekin zer ikusirik, komunikabideen jokerekin baizik. Izan ere, Ryszard Kapuscinski poloniar gerra-erreportariak esan bezala:

Nosotros, por las imágenes, por el terror de las imágenes, de los relatos de la realidad, somos transformados en una de estas dos posibles cosas: terroristas o *voyeurs*.
(*Los cínicos no sirven para este oficio*, Bartzelona, 2002)

Voyeur hitzaren balio semantikoa sexuari lotua agertu izan zaigu beti oraintsu arte. Halaber, *voyeurismoa* inoren sexua edo sexu harremanak begiratzeko zaletasunari deitu izan zaio. Hala ere, deitura hau gero eta gehiago egokitzen ari zaio zer gerta ere telebistak sortarazten duen audientzia pasiboari, aurrez aurre sexu-irudirik izan edo ez:

El secuestro aéreo, el terrorismo, la guerrilla urbana, emociones fuertes que llegan al consumidor burgués con el previo gravado por la importación del mundo de la realidad al mundo de sus perversiones *voyeuristas*.
(Vázquez Montalbán)

Roman Gubern ikerleak ere *voyeurismo* hitza gogotan du sarri, nolabait gaztelanieratu nahirik *sociedad mirona* ere erabiltzen duen arren. Zenbait urte lehenago Giovanni Sartorik *homo videns* (*Homo Videns. La sociedad teledirigida*, Madril, 1998) proposatu zuen. Batak zein besteak zera adierazi nahi dute, zirku handia bihurtu zaigun komunikazio-gizartean jendea gero eta begirale hutsalagoa dela. Alegia: gizarte begiratzaila.

Baina *voyeurismo* hitzak, jatorriz bederen, begiratzeko zaletasun soila baino zertxobait gehiago esangura du.

Gizarte kirikatzailea: «sans être vue»

Voyeur hitza frantsesa da jatorriz, beste hainbat hizkuntzatan ere sarri asko erabili ohi den arren, ingelesez, alemanez, italieraz, espainieraz edo katalanez bai behintzat. Ez dut euskaraz ezelango hiztegitan aurkitu baina bai, ordea, aipatutako horietan. Gaztelaniaz: «Persona a quien le gusta mirar a otras en situaciones eróticas para excitarse sexualmente» (*Diccionario del uso del español. María Moliner, 2000*). Ingelesez, berriz: «A person who obtains sexual excitement from watching the sexual activities of others» (*Longman Dictionary of Contemporary English, 1978*). Frantsesez, ordea: «Personne qui assiste pour sa satisfaction et sans être vue á quelque scène érotique» (*Dictionnaire alphabétique et analogique. Paul Robert, 1982*). Beraz, hitzak badu jatorriz, frantsesez, espainieraz eta ingelesez galdu bide duen ñabardura garrantzitsua: «sans être vue», ikusleak ezkututik begiratu ohi duela alegia. Katalanak ere zentzu hori gordu du: «Persona que aconseguix estímuls sexuals contemplant escenas érotiques sense que la vegin» (*Diccionari Europeu. Avui, 1994*). Beraz, Roman Gubern adituak gaztelaniaz aipatzen duen *sociedad mirona* hori ez litzateke euskaraz «gizarte begiratzailea» izango, «kirikatzailea» baizik.

Voyeur (guetteur, zelatari) XVIII. mendeko testuetan agertzen da lehen aldiz, telebista eta gainerako komunikabide elektronikoak asmatu baino dezente lehenago. Hala ere, *voyeurismo* pekatua Genesiak berak salatzen du, duela bost mila urte inguru-edo Noek Kam semearen familia mardikatu baitzuen, aita lotan zela barrabilak ikusi zizkiolako. Geroztik, mendebaldeko pinturak gehien islatu izandako ereduak paisaia eta giza-soina izan dira; oraintsu, berriz, industri-zibilizazioak erakarritako hedabideek paisai-ikono-grafia alboratu dute eta giza-anatomia, aldiz, nabarmendu.

Gero eta gehiago espektakulu bihurtzen ari zaigun gizarte honetan, egile, eragile edo ekintzaileen kopurua murriztuz doa, ikusle edo begirale soilena hazten den hein berean. Are gehiago, gizarte begiralea ez ezik, gizarte kirikatzailea da gurea, antzerkiaren ikusleak jakineko begiratzaile aktiboak (jendaurreko txaloak, orroak, zarata eta abarra) zi-

ren bitartean pornografia edo telerealitatearen ikusleak kirikatzaile ezezagun pasiboak (isilak, lotsatiak, bakartiak) baitira, inoren bizitza edo alderdi ezkutuaren espioitzan, zelatan, jardungo balira bezala: *sans être vues*, alegia.

Ehiztariaren begirada erotikoa

Pornografia zein telerealitatearen ikusleak kirikatzaile amorratuak dira, ez, ordea, berdinak. Are gutxiago berberak. Izan ere, pornografiaren ikuslea arra da eta telerealitatearena, aldiz, emea. Eta batzuen eta besteen zaletasun hauek ez dira inondik ere makurkeriatzat hartu behar, naturaltasun osoz baizik, bata zein bestea oinarri-oinarrizko jarauntsi antropologikoan kokatzen baitira.

Roman Gubern irakasleak (*El eros electrónico*, Madril, 2000) eta beste hainbat ikerlek batere espanturik gabe adierazi izan dute gizonezkoaren pomografi-zaletasuna gizakiaren beraren ehunka milaka urteren bilakaeran ulertu behar den jokera baino ez dela. Giza-arraren ikusmen erotikoa ez da azken mendeotako «tentaldi» lotsagarria, noizbaiteko lehen ehiztariak garatu zuen abilitatea baizik. Emeak beste hainbat zentzu (ukimena, entzumena, emozioa...) indartu zuen bitartean, arrak zelatan, aurkikuntzan eta ehizean hain beharrezko zuen ikusmena garatu zuen. Ikusmen landu honi esker areagotu zuen bere kilikagarritasun sexuala eta, oraindik orain, horren bereganatua duen funtzio horri erantzun behararen beharrez sortu da pomografiaren negozioa, merkatuko eskari-eskaintza legearen arabera, besteak beste.

Gizakumeak ez du gustuko pornografia astokilo samarra delako edo «buruan zakila besterik ez duelako», gizakumea den aldetik, sortze beretik, seinale erotikoekiko ikusmen hipersentikorren jabe delako baizik. Gizakumearen begirada erotikoa ez da ahulezia lotsagarria, bere sexuaren abilezia aparta baino. Eta, abilezia horri zor zaio, hain zuzen ere, espeziearen iraupena.

Beste kontu bat da pornografiaren kontzeptu modernoa XIX. mendeko gizonezko aberatsen artean sortzea

eta, geroztik, XX. mendean zehar, komunikabideen sozializazioaz, gizarte-maila guztietara barreiatzea. Baina ez industri-iraultzak eta ez telepolisak ez dute pornografia asmatu, ezkutuan zegoen betidaniko eskabideari erruz erantzun baizik. Lehenik putetxeetan, gero kioskoetan, ondoren zineman, arestian bideoan eta, azkenik, sarean.

Pornografia sarean

Pornografiak sarean lortutako arrakastak *establishment*-hulegoak aztoratu bazituen ere, auzia argitzea ez da erraza izan, jendeak ez baitu pornografiar iritzi berbera Eskandinavian edo Mesopotamian. Sareango pornografiaren kontrako lehen ekimen ofiziala Alemaniako gobernuak erabaki zuen 1995ean, Compuserve zerbitzariaren zenbait forum legez kanpokotzat jo zituenean. Hurrengo urtean «Communication Decency Act» delako legea onartu zen Ameriketako Estatu Batuetan, sareko pornografi-edukiak debekatzeko ahalmena gobernu federalari emanez. Baina ahalmen honek urtebete baino ez zuen iraun.

Estatu Batuetan oinarritzko legeria ezberdina da prentsa idatzia ala irradi-telebista izan. Prentsa idatziaren askatasuna Konstituzioak bermatzen du, irradi-telebistaren zabalkundea gobernuak arautzen duen bitartean. Gauzak honela, eztabaida ezinbestekoa zen: zer da Internet? Konstituzioak bermatzen duen komunikabide idatzia ala erakunde politikoek muga dezaketen jendaurreko irrada-zabalkundea? AEBetako Epaitegi Gorenak 1997an erabaki zuen sareak prentsa idatzia bezain askea behar duela izan eta, beraz, gobernuak ezin duela ezelango zentsurarik ezarri.

Gerostik arazo honek hainbat gorabehera eta ñabar-dura izan ditu han-hemenka, baina eztabaida guztien gaitetik honako oinarritzko ideia hau nagusitu da mendebalde guztian zehar, alegia: Internetek ez duela aurretik ez zegoenik asmatu, pornografia atariko kioskoan ere begi-bistan eta salgai dagoela, eta sareak ez duela merkatuan arunt ezaguna den produktua gehiago zabalazazi besterik.

Pornografia arrosa

Ehiztariaren begirada erotikoa da pornografiaren bezerik onena (%89,9 inguru gizonezkoak omen); telerealitatearena, berriz, eme umezaina gehien-gehienbat. Soin biltsak, besterik gabe, ezer gutxi kilikatzen edo ematen du emakumea, baina bai ordea, pasio, jelsia, maiterre, gutzia, inbidia edo bekaizkeriaren pareko emozioek. Sentimendu hauek ez dira berriak, melodrama zaharretan zein foiletoietan agertu baitziren lehenik, telesailetan ondoren, *reality show*-etan gero, kazetaritza arrosean geroago eta era bateko nahiz besteko telerealitate-saioretan oraintsu. «Pornografia femeninoa» edo «pornografia arrosa» deitu izan zaio sarri.

Esan bezala, sentimendu hauek ez dira inondik ere berriak. Betidaniko antzerkigintzan zein hasiera-hasierako zineman aurki zitezkeen; baina telebistak bete-betean etxeratu ditu, pertsonaiak sukalderraino sarrarazi ditu eta beraien arketipoak inoiz baino ezaugarriagoak bilakatu, sekula baino lotsa, espantu eta itzal gutxiagoz.

Ikerle, aditu eta kritikari askok nahi izan dute era honetako programa hauen arrakastaren arrazoia interpretatu, eta han-hemenka emandako azalpenek edozenbat liburu beteko lukete. Baina, beharbada, azalpenik xumeenetakoa aurtengo Asturiasko Printze Komunikazio Saria irabazi duen Kapuscinski kazetariari zor diogu. Egunero orduak pasatu omen zituen etenik gabeko nahas-mahas programa ero, neurotiko eta harrabotsu horietako bat ikusten, arrakastaren funtsak zertan ote zetzan asmatu gurarik eta, halakoren batean, bat-batean konturatu omen zen: *ez zen ezer pasatzen!* (*Lapidarium IV*, Bartzelona, 2002).

Telerealitatearen gezurra eta iruzurra

Hiru urte joan dira *Gran Hermano* antenaratu zenetik hona. Programaren arrakastak erabat aldatu zuen espainiar telebistaren merkatua eta geroztik ildo bereko dozena erdiren bat programa berri plazaratu izan dira. Ez,

hain zuzen ere, aurrenengo hura hobetzeko, hasierako ajeak eta lotsagabekeriak areagotzeko baizik.

Besterik uste arren *Big Brother* formatua ez da jatorriz iparramerikarra, Endemol Entertainment holandar ekoiztetxearena baizik. Ideia John de Mol produktoreari otu zitzaion 1997an, *Biosfera 2* zientzi-dokumentala ikusten ari zela. Programa hartan, plastikozko burbuila barruan elkarrekin sartutako zenbait lagun erreakzioak aztertzen ziren, gero espazio-ontzietan edo indarrean jartzeko. De Molek pentsatu zuen: zergatik ez esperimentu hori kameran aurrean lehiaketa bihurtu?

Telerrealitateak, genero gisa, fikzioa zaharkituztat jo eta ontzat ematen du errealitateak fikzioa gaingaitzen omen duen leloa, bizitza bera antzezlanik itzelezkoena baino intesgarriagoa delakoan. Fikziozko telesaietan ez bezala, telerrealitatean ez dago egoerarik asmatzerik, ez gidoirik jarraitu beharrik, protagonistak ez baitira antzezleriak, euren jokabideen eta emozioen jabe diren egiazko pertsonaiak baino.

Baina hau guztia teoria besterik ez zen *Big Brother*-en hasieran, eta gero eta gezur handiagoa ondotik sortu izan diren programa klonikoetan. Gaur egungo telerealitate-saietan agertzen diren protagonistak sekulako *casting* zorrotzez hautatuak dira, erabat planifikatua dagoen produkzioan parte hartzen dute, une oro dakite kameran aurrean antzezlanean ari direla, esan egiten zaie audientziak zer nahi duen eta aukeratu egiten dira pasarterik egokienak.

Errealitatearen izenean, telerrealitatearen protagonistek ez dute inoiz gerraz, gatazkaz, politikaz, ikasketez, lanik ezaz edo eguneroko egiazko arazoez hitz egiten. Telerealitatea ez da fikzioa, ez, fikziorik ezaren fikzioa baizik. Telerrealitatea ez da egia, ezta egiaren gezurra ere, iuzuraren gezurra baizik. Eta teleikusleak *voyeur* hutsak baino ez dira.

SARS: arriskua ala paranoia?

ASAL (Arnas Sindrome Akutu Larria) delako asiar pneumonia bazterrak asaldatu ditu mundu guztian barrena.

Ez da gero erraz jakitea eritasun hau benetan larria den ala komunikabideek eragindako izua ote. Zenbateraino da kontuan izan beharreko arriskua eta zenbaiterainokoa, berriz, telepolisen paranoia? Datu objektiboen arabera ez dirudi arazoa larriegia denik, lehen sei hilabeteetan zortzi mila lagun inguru baino ez baitira kutsatu eta eurretarik %8 hil, ia zazpiehun bat alegia.

Gutxienik gaixoren bat izan duten Estatu guztien heritar-kopurua kontuan hartuz, 2.300 milioi biztanleko gizartearen baitan izan du dagoeneko eraginik asiar pneumoniak eta eurotarik %0,00034 gaixotu da, milioi bat laguneko 3,4 alegia, eta hildakoak, aldiz, hamar milioi laguneko 2,7. Datu hauek, hotz-hotzean hartuz gero, inor kezkatzeko bezain larriak al dira?

Dena erlatiboa da. Beharbada epidemia hau ezer gutxi da 1918-20 hiru urteetan 20 milioi lagun hil zituen gripealdiarekin alderatuz gero; baina orduan gaixoen %1 baino ez zen hil eta orain, ordea, arriskua zortzi bider gehiago da. Beharbada, gutariko edonork arrisku gehiago du gripe arruntaz hiltzeko asiar pneumoniaz baino, baina lehenengoa jakinekoa da, txertorik bada, eta bigarrena, aldiz, ezezaguna da, inork ez daki nola erreakzionatuko duen, inon ez da kontrajotze-planik, ezjakintasuna nagusi da eta gizakiak betidanik beldur gehiago izan dio badaezpadako trantze ezezagunari, jakineko kinka larriari baino.

Dena den, asiar pneumoniak gutxienik bi ikaskai erakutsi dizkigu dagoeneko. Bat, orain dela hogeitau urte medikuntzak besterik agindu arren, infekzio-eritasunak ez direla behin betiko amaitu, areagotu baizik. Globalizazioak kutsadura-mota guztiak gehiagotzen ditu eta baita eritasun-amiskua ere. Marokon ur zikinez gorostatutako marubiek beherakoa eragin dezakete Suedian, eta piramideak ikustera joandako turistek niloar birusa New Yorken kokatu.

Bigarrena ikaskaia, berriz, komunikabideen zereginari dagokioke. Egia da, bai, sarri asko komunikabideok kontakatilu samarrak direna baina, kasu honetan behintzat, komunikabideei esker pandemia (epidemia unibertuala) arriskua erabat murriztu da. Izan ere, Interneti esker txinatarrek

pneumoniaren berri jakin zuten beraien osasun-agintariak jendaurrean onartu baino lehenago; komunikabideei esker turismo eta merkatal harremanak ez dira oraingo honetan kutsadura zabaltzeko bitarteko izan eta, posta elektronikoa-ri esker, mundu guztiko osasun-zerbitzu eta ikerlariek elkarlanean lan egin izan dute aldi berean. ¶



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jakingunea.com